EUROPA

HELMUGA GIDA2016

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

Argitaraldia:	5.a, berrikusi eta eguneratuta, 2016ko martxoa
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Egilea:	Antonio Jesús Rodríguez Martínez
Koordinazioa eta itzulpena:	Gazteen Euskal Behatokia
Diseinu eta maketazioa:	Neverland, S.L.
Internet:	www.euskadi.eus
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

A Aurkibidea

AURKEZPENA 9
GIDA NOLA ERABILI 10

1. MUGIKORTASUNA EUROPAR BATASUNEAN 14
1.1. Zure mugikortasun-plana 15
1.2. Abiatu baino lehen behar duzun dokumentazioa 18
1.3. Zure eskubideak 19
1.4. Zure eskubideak defendatzea eta konponketa lortzea 23
1.5. Osasuna 24
1.6. Zer egin dezake Europar Batasunak zure alde? 25
1.7. Aukerak eta lorpenak 27
1.7.A. Muga gutxiago, aukera gehiago 27
1.7.B. Atzerrian ikasteko 27
1.7.C. Europa berdeago bat 27
1.7.D. Euroak poltsikoan 28
1.7.E. Aukera berdintasuna 28
1.7.F. Enplegua eta hazkundea 28
1.7.G. Askatasuna, segurtasuna eta justizia guztiontzat 29
1.7.H. Toki bat Europar Batasunean 30
1.7.I. Kontinente oso bat 30

2. EUROPAR BATASUNEAN LAN EGITEKO 31
2.1. Aholku eta iradokizunak lana aurkitzeko 33
2.1.A. Non aurkitu lana? 33
2.1.B. Zer izan behar dut gogoan lana aurkitzen hasi aurretik? 34
2.1.C. Lan egiteko oinarrizko informazioa 35
2.1.D. Nola aurkitu lana? 36
2.1.E. Nola atzeman iruzurrezko lan-eskaintzak? 37
2.1.F. Aitortza, kualifikazioak eta tituluak 38
2.2. Curriculum Vitaea 39
2.3. Aurkezpen-gutunak 41
2.4. Hautespen-frogak eta elkarrizketa 42
2.5. EURES 45
2.6. SEPE 48
2.7. Enplegurako europar programak 49
2.7.A. Zure lehen EURES lana 49
2.7.B. ‘Zure EURES-FSE lana’ 50

2.7.C. Gazte-bermea 51
2.7.D. Erasmus gazte ekintzaileentzat 52
2.8. Atariak: lan bila Europan 52
2.9. Gazteentzako lan-baliabideak 58
2.10. Baliabideak: enplegu zerbitzu-publikoak herrialdeka 60
2.11. Baliabideak: lana aurkitzea herrialdeka 62

3. URTE-SASOIKO LANA 73
3.1. Sarrera 74
3.2. Baliabideak oro har 75
3.3. Ostalaritza eta turismoko sektoreetan lan egiteko 80
3.4. Itsas bidaietan, itsasontzietan eta ontzi enpresetan lan egiteko 80
3.5. Abenturen eta kirolen arloan lan egiteko 82
3.6. Animazio turistikoarekin loturiko postuetan lan egiteko 84
3.7. Kanpamenduetan lan egiteko 85
3.8. Jolas-parkeetan lan egiteko 87
3.9.Nekazaritzan eta baserrietan lan egiteko 90

4. EBN IKASTEA, OPOSIZIOAK 94
4.1. Prestakuntza EBn 95
4.2. EBn ikasteko 10 arrazoi 96
4.3. Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua 97
4.4. Lanbide Heziketa Europan. LH duala 98
4.4.A. LH duala Alemanian. *The job of my life* 99
4.5. Kualifikazioen eta tituluen aintzatespena 100
4.5.A. Herririk herri 103
4.5.B. Naric sarea 105
4.5.C. Europako Txartel Profesionala 106
4.6. ERASMUS+ Hezkuntza 107
4.7. Ploteus 109
4.8. Ikasturtea atzerrian igarotzea 110
4.9. Ikasteko eta ikertzeko baliabideak herririk herri 111
4.10. Zentroen arteko trukeak eta lankidetza 127
4.10.A. Prestakuntza eskolan 127
4.10.B. Lanbide heziketa 127
4.10.C. Unibertsitatean ikastea 128
4.11. Europar Batasunerako oposizioak 131
4.11.A. EBn lan egitea 131
4.11.B. Enplegu-motak 131
4.11.C. Enplegu-profilak 132
4.11.D. EBko instituzioak eta agentziak 133
4.11.E. Hautaketa-prozesua 133
4.11.F. Oposizioak egiteko baliabideak 133

5. BEKAK ETA PRAKTIKAK 135
5.1. Sarrera 137
5.2. Erasmus+ egitasmorako bekak 138
5.3. Praktikaldiak Europako instituzioetan 139
5.4. Praktikaldiak nazioarteko organismoetan 145
5.4.A. Garapena eta lankidetza 145
5.4.B. Segurtasuna 145
5.4.C. Ekonomia eta finantzak 146
5.4.D. Zuzenbidea 147
5.4.E. Energia 148
5.4.F. Zientziak eta teknologia 148
5.4.G. Garraioa 149
5.4.H. Telekomunikazioak eta aeronautika 149
5.4.I. Giza zientziak: hezkuntza eta kultura 150
5.4.J. Hirigintza / habitata eta ingurumena 150
5.4.K. Psikologia, soziologia, gizarte-lana 151
5.4.L. Emakumea eta berdintasuna 152
5.5. Praktikaldiak Europako enpresetan 152
5.5.A. Ingeniaritza 152
5.5.B. Elikadura, ehungintza eta oinetakogintza 154
5.5.C. Automobilgintza 155
5.5.D. Bankuak eta aseguruak 156
5.5.E. Eraikuntza eta enpresa laguntzaileak 159
5.5.F. Farmazia eta kimika 160
5.5.G. Banaketa eta merkataritza 161
5.5.H. Informatika, elektronika eta teknologia 162
5.5.I. Komunikazioa eta telekomunikazioak 163
5.5.J. Energia 164
5.5.K. Garraioa, aisia eta turismoa 166
5.5.L. Ingurumena 166
5.6. Nazioarteko praktikaldietarako bekak 168
5.7. Praktikaldiak kudeatzen dituzten bilatzaileak eta webguneak 171
5.8. Praktikaldiak eskaintzen dituzten europar elkarteak 175

6. ERASMUS+ 177
6.1. Egitasmoa 178
6.2. Helburuak 179
6.3. Erasmus+ egitasmoaren egitura 180
6.4. Nork har dezake parte? 181
6.5. Egitasmoan parte hartzen duten herrialdeak 181
6.6. Ekintzen deskribapena 182
6.6.A. 1. Ekintza: Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta
a. 1. Ekintza. Gazteen trukeak 182

b. 1. Ekintza. Gazteen dinamizatzaileen mugikortasuna: prestakuntza eta sareko lana 183
c. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS) 184
d. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzuaren eskala handiko ekitaldiak (EVS LS) 185
6.6.B. 2. Ekintza: Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana 186
a. 2. Ekintza. Elkarketa estrategikoak 186
b. 2. Ekintza. Gaitasunak indartzeko proiektuak 188
6.6.C. 3. Ekintza. Erreforma politikoei laguntzea 189
a. 3. Ekintza. Elkarrizketa egituratua: topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artea 190
6.7. Erasmus+ hizkuntzak ikasteko laguntza 190

7. HIZKUNTZAK **191**
7.1. Hizkuntzak ikasteko 193
7.1.A. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua 194
7.1.B. Ingelesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 196
7.1.C. Frantsesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 199
7.1.D. Alemana. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 201
7.1.E. Italiera. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 203
7.1.F. Portugesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 204
7.1.G. Europako erreferentzia-esparruko baliokidetasun-taula 205
7.2. Baliabideak 207
7.2.A. Online hiztegiak eta itzultzaileak 207
7.2.B. Maila-testa 208
7.2.C. Aurrez aurreko ikastaroak: hemen eta atzerrian 209
7.2.D. Txatak eta hizkuntza-trukeak 211
7.2.E. Online ikasteko tresnak eta ikastaroak 212
7.2.F. Gizarte sareak 216
7.2.G. Online irakasleak 217
7.2.H. App-ak, smartphone-ak eta tablet-ak 218
7.2.I. Podcast-ak 221
7.2. J. Beste dispositibo batzuk: telebista, irratia, kontsolak 222
7.2.K. Hizkuntzak filmen, telesailen eta bideoen (youtube) bidez ikastea 223
7.2.L. Hizkuntzak musikaren bidez ikastea 225
7.2.M. Bekak eta dirulaguntzak 226
7.2.N. ERASMUS+ Hizkuntzak online ikasteko laguntza 227
7.3. Hizkuntzak eta enplegua 228
7.3.A. Atzerrian gaztelania irakastea 228
7.3.B. Lanean nabilen bitartean hizkuntzak ikasteko 230
7.3.C. Eskaintzen adibideak 231
7.4. Agentziak: hizkuntzak eta gehiago 233

8. "AU PAIR" 236
8.1. Zer da "au pair" plana? 237
8.2. Nola lan egin "au pair" moduan? 240
8.3. "Au pair" moduan joateko baliabideak 241

9. BOLUNTARIO LANA 245
9.1. Nazioarteko boluntarioak 246
9.1.A. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa 247
9.1.B. Nazioarteko boluntarioentzako baliabideak 248
9.2. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS) 251
9.2.A. Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzeko 6 urrats 252
9.2.B. Europako boluntarioekin loturiko baliabideak 254
9.3. Auzolandegiak 255
9.3.A. Auzolandegiak, Euskadiko lan-eremuak 256
9.3.B. Auzolandegiekin loturiko baliabideak 256
9.4. Gazte trukeak 258
9.4.A. Gazte-trukeei buruzko baliabideak 258

10. CURRICULUM VITAE-A ETA EUROPASS 260
10.1. EUROPASS 261
10.1.A. Europass Curriculum Vitae-a (Europass CV -a) 263
10.1.B. Gaitasunen pasaporte europarra 263
10.1.C. Europass hizkuntza pasaportea 264
10.1.D. Arrazoiak agertzeko gutuna 264
10.1.E. Europass mugikortasun-agiria 264
10.1.F. Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarria 265
10.1.G. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria 266
10.1.H. Europass agiri berriak 267
10.3. YOUTHPASS 268

11. EUROPAN BARRENA BIDAIATZEKO 269
11.1. Beharrezko dokumentuak 270
11.2. Bidaiatzeko aholkuak 272
11.3. Lekualdatzea 273
11.3.A. Errepidetik 273
11.3.B. Hegazkina 275
11.3.C. Trena 279
11.3.D. Itsasontzia 280
11.3.E. Metroa 281
11.3.F. Bizikleta eta txangoak 281
11.3.G. Motxila turismoa 282
11.4. Nazioarteko txartelak 282

11.5. Ostatua 283
11.6. Bestelako informazio praktikoak 290
11.7. Zer egin? 292
11.8. Turismo-webgune ofizialak herrialdeka 294
11.9. Bidaiatzeko ezinbesteko aplikazioak 295

12. EUROPAKO SAREAK **297**
12.1. Europako Informazioaren Euskal Sarea (EIES) 298
12.2. Europako Batzordearen Espainiako ordezkaritza 299
12.3. Europako Batzordearen informazio sareak 300
12.3.A. Europe Direct 300
12.3.B. Europako Dokumentazio Zentroak (EDZ) 302
12.3.C. Eures. Mugikortasun profesionalaren Europako ataria 303
12.3.D. Naric 304
12.3.E. Ploteus 305
12.3.F. Eurodesk 305
12.3.G. Euroguidance 306
12.3.H. Solvit 307
12.3.I. Kontsumitzailearen Europako Zentroa 307
12.3.J. Enpresei laguntzeko Europako sarea 308
12.3.K. Salto-Youth 310

Aurkezpena

Europa Helmuga Gida 2016 argitalpenak Europa zabalean bidaiatzeko, ikasteko edo lan egiteko online baliabide multzo ezin osatuagoaren berri ematen dizu. Bostgarren edizioa duzu hau.

Bimilatik gora web-orrialdetara jo ahal izango duzu, eta bertatik bidaia antolatu, hizkuntzak ikasi, beste herrialde batean lan bat aurkitu, beka bat eskatu, gazteen arteko truke batean parte hartu, ikasketak baliozkotu edo Europako curriculuma prestatu.

Gaurkotze-lana Antonio Jesús Rodríguez Martínezek egin du, aurreko edizioak atondu zituen berak. Nazioarteko mugikortasunaren alorrean aholkularia da, eta hainbat urtetatik hona Gazteen Euskal Behatokiarekin dihardu elkarlanean. Bihoakio gure esker ona erakutsitako ardura eta profesionaltasunagatik.

Aurreko gidak biltzen zituen erreferentziak egiaztatzeaz gain, egileak hainbat gairi buruzko informazio berria erantsi dio aurtengoari, besteak beste: Europar Batasunean zure eskubideak defendatzea, Europako txartel profesionala eskuratzea, prestakuntzak eta tituluak aintzatestea, Erasmus+ programaren berrikuntzak hizkuntzak ikasten laguntzeari dagokionez, edo hizkuntzen ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak.

Gida hau zuei benetan baliagarria izatea espero dugu!

Gazteen Euskal Behatokia

Gida
Nola erabili

ESKAINTZEN DUGUN INFORMAZIOA

Europar Batasunak mugikortasun-gaietan (enplegua, prestakuntza, hizkuntzak, boluntario-lana eta abar) eskaintzen dituen aukera guztiak Euskadiko gazteei helaraztea da gida honen helburua. Gidaren atal bakoitzean, atalaren azalpena aurkituko duzu, baita eskura dituzun baliabideen azalpena ere.

Eskaintzen dizkizugun baliabide publiko zein pribatu guztiak honako irizpide hauei jarraiki bildu dira:

1. Eusko Jaurlaritzaren web-orrietan eta aldizkari ofizialetan egindako bilaketa.
2. Euskal erakunde eta instituzioetako (unibertsitateak, aldundiak, boluntario-elkarteak eta abar) webguneetan egindako bilaketa.
3. Europako webgune ofizialetan (Gazteen Europako Ataria, Europa ataria) egindako bilaketa.
4. Beren lanarengatik ezagunak diren Europako gazteen atarietan egindako bilaketa.
5. Gazte- eta ikasle-foroetan eta mugikortasun-arloko foroetan ere ikerketa batzuk egin ditugu, iritziak jasotzeko.

Gida hau argitaratzean, web-orrietarako loturak indarrean zeuden, baina Internet azkar aldatzen denez, lotura eta eduki horiek alda daitezke. Aldaketaren bat antzematen baduzu, edo, besterik gabe, atal edo informazio bati buruzko iritzia bidali nahi badiguzu, jar zaitez gurekin harremanetan: gaztebehatokia@euskadi.eus helbidera idatzita. Zure laguntza balio handikoa izango da guretzat, ondorengo argitalpenetan aplikatzeko.

Azkenik, nabarmendu beharrean gaude, batetik, guk ezin dugula gure gain hartu aipatutako enpresen zerbitzuen kalitatearen erantzukizuna, eta, bestetik, enpresa batzuek kobratu egiten dutela egindako lanaren truke. Gure ustez, hautatu aurretik, hobe duzu aukera bat baino gehiago bilatu, aukera horiek alderatu eta ahalik eta informaziorik osoena bildu.

ALDERDI PRAKTIKOAK

Litekeena da webgune batzuetan edukia zer hizkuntzatan —([EN] ENglish, [FR] FRench, eta abar)— dagoen ez zehaztea; horrek esan nahi du espainolez daudela, herrialdez herrialde antolatutako helbideak izan ezik, nagusiki, herrialdearen hizkuntza ofizialean jasota daudenak.

Gai batzuk atal bati baino gehiagori lotuta egon daitezke; esaterako, atzerrian tituluak homologatzea EBn lan egiteari eta ikasteari buruzko atalei lotzen zaie.
Bikoiztasuna saihesteko, gaia atal batean garatu dugu, eta bestean, berriz, ohar bat jarri dugu, aurreko atalean gaia sakonetik garatuta dagoela adierazten duena..

GIDAREN EDUKIA

1. Mugikortasuna Europar Batasunean

Zertan datza mugikortasunak Europar Batasunean barrena?; zure eskubideak, irabazten dituzunak eta galtzen dituzunak eta, batez ere, eskubideok nola defendatu; zure mugikortasun-plana, zure burua antolatzen jakin dezazun; eta Europar Batasunak eskaintzen dizkizun aukeren eta lorpenen laburpena (moneta bakarra, merkatu bakarra, mugikortasun-programak eta abar).

2. EBn lan egitea

Europar Batasunean lana aurkitzeko jakin behar duzun guztia aurkituko duzu gidan, eta iruzurrezko eskaintzek engaina ez zaitzaten Eures Europako enplegu-zerbitzuak erabiltzeko behar duzun informazioa edo eskura dituzun enplegurako europar programak (gazte ekintzaileentzako Erasmus programa, gazte bermea, zure EURES-FSE lana eta nire lehen Eures lana). Era berean, Europako enplegu-atariei, lanbidez lanbideko atariei, gazteentzako enplegu-baliabideei buruzko bilduma zabala ere, eta, areago, lana bilatzeko webguneak herrialdez herrialde. Curriculuma eta aurkezpen-gutuna aurkezteko eta elkarrizketa prestatzeko funtsezko informazioa ere baduzu.

3. Urte-sasoiko lana

Udan lan egiteko premia al duzu? Oporretan lan egiteko aukera ugari dauzkazu: auzolandegiak, itsas bidaiak, turismo-animazioa, hoteletan, parke tematikoetan,, abentura-kirolak eta granjak.

4. EBn ikastea. Oposizioak

Europako Hezkuntza Eremuari, Lanbide Heziketari(baita LHdualaere) eta prestakuntza Europako beste herrialde batean egiteko eskaintzen dizkigun aukerei buruzko azalpen osoa. Funtsezko informazioa, batetik, tituluen homologazioari buruz, bai eta Europako txartel profesionalari buruz ere,, eta, bestetik, atzerrian bekekin ikasteko aukera ematen diguten mugikortasuneko hezkuntza- programei buruz. Ikasturtea atzerrian igarotzeko edo ikertzen emateko informazioa. Europako instituzioetan lan egitea interesatzen bazaizu, hemen aurkituko duzu informazio osoa.

5. Bekak eta praktikak

Europako eta nazioarteko erakundeetako bekei eta erakunde publiko eta pribatuetako beka- eta praktika-bilatzaileei buruzko bildumarik handiena. Gainera, nazioarteko erakundeetan praktikak egiteko aukeren zerrenda bat aurkituko duzu, sektorez sektore sailkatua. Praktikak eskatzeko 200 enpresa europar baino gehiago zure eskura!

6. Erasmus+

Europako gazteria-, hezkuntza- eta kirol-egitasmoa. Programa honi buruzko informazio guztia: Erasmus bekak, ikasleentzako mugikortasun-bekak, gazteen trukerako bekak, Europako Boluntario Zerbitzua (EVS), hizkuntza ikasteko laguntza, eta abar.

7. Hizkuntzak

Hemen hizkuntzak ikasteko informazio baliagarria aurkituko duzu, baita ikastaro, beka eta laguntzei buruzkoa ere. Gainera, hizkuntza ikastea enpleguarekin, praktikekin eta mota guztietako jarduerekin uztartzeaz arduratzen diren agentzien zerrenda kontsulta dezakezu. “Hizkuntzak eta Enplegua” izeneko atala gomendatzen dizugu bai eta Europan barrena gaztelania irakasteko atal berezia ere.

8. ‘Au pair’

Atzerrira *‘au pair’* joateko behar duzun guztia. Dokumentazioa, baliabideak, kontratuak, eskaintzak eta motak.

9. Boluntario-lana, auzolandegiak eta gazte trukeak

Aisialdirako aukera ugari daude. Boluntario-lanaren, auzolandegien eta gazte-trukeen aukera-eskaintza zabala aurkituko duzu hemen, bai eta Europako Boluntario Zerbitzuari buruzko informazioa (EVS) 6 urratsetan bakarrik boluntario izateko.

10. Curriculum Vitae-a eta Europass

Oso baliagarria EBn beren gaitasunak aurkeztu behar dituzten guztientzat. EBko edozein herrialdetan gure curriculuma prestatzeko aholku praktikoak.

11. Europan barrena bidaiatu

Bidaiatzeko informazio praktikoa: aholkuak, bidaiatzeko baliabideak, nazioarteko deskontu-txartelak, aplikazioak eta turismo-informazioa, hegaldi eta ostatu merkeak, gida turistikoak eta zure eskubideei eta eskubide horiek erreklamatzeko moduari buruzko informazioa.

12. Europako sareak

Europako sareak, eta gure eskubideei buruzko zalantzak argitzeko, tituluak homologatzeko edota atzerrian ikastaro bat edo lan bat aurkitzeko lagungarri izan daitezkeen erakundeak.

1 Mugikortasuna
Europar Batasunean

1.1. Zure mugikortasun-plana **15**
1.2. Abiatu baino lehen behar duzun dokumentazioa **18**
1.3. Zure eskubideak **19**
1.4. Zure eskubideak defendatzea eta konponketa lortzea **23**
1.5. Osasuna **24**
1.6. Zer egin dezake Europar Batasunak zure alde? **25**
1.7. Aukerak eta lorpenak **27**
1.7.A. Muga gutxiago, aukera gehiago 27
1.7.B. Atzerrian ikasteko 27
1.7.C. Europa berdeago bat 27
1.7.D. Euroak poltsikoan 28
1.7.E. Aukera berdintasuna 28
1.7.F. Enplegua eta hazkundea 28
1.7.G. Askatasuna, segurtasuna eta justizia guztiontzat 29
1.7.H. Toki bat Europar Batasunean 30
1.7.I. Kontinente oso bat 30

LABURPENA

Gaur egungo mugikortasunak ez dauka zer ikusirik behialako emigrazio-mugimenduekin. Porrotik ez izateko, beharrezkoa da zure mugikortasun-plana ondo diseinatzea, eta atera orduko ahalik eta informazio gehien bilduta izan behar duzu. Beharrezko izango duzu, zalantzarik gabe.

- Jarraitu urratsez urrats Mugikortasun Planari. Zure lehentasunak agerian utziko dituzu, eta planifikazio egokia egin.
- Mugikortasun Planean ezusteak ere gerta dakizkizuke. Izan prest beti ihes egiteko plan bat.
- Aldean daramazunarekin abiatu ahal zara; dena den, eta ezustekorik ez izateko, planifikatu ondo zure bidaia.
- Aztertu ondo zure eskubideak zeintzuk diren (baita zure betebeharrak ere) atzerrira ateratzen zarenean eta ikasi horiek defendatzen.
- Egin kasu gomendio eta aholkuei, prestatu dokumentazioa eta ez ahaztu Europako Osasun Txartela.

1 Mugikortasuna Europar Batasunean

1.1. ZURE MUGIKORTASUN PLANA

Mugikortasuna norberaren erabaki bat da, prestakuntza-maila ertain-altua eskatzen duena eta hizkuntza-maila altua. Argi daukazu? Hala bada, zure mugikortasun- esperientzia urratsez urrats planifikatzea gomendatzen dizugu, ezustekorik izan ez dezazun. Horretarako, 8 urratseko plan bat prestatu dizugu:

1- Zein da buruan duzun mugikortasun-esperientziaren asmoa?

Joateko erabakia hartu aurretik, galdera batzuei erantzun behar diezu: argi daukazu?, erabaki pertsonala da, zeurea? Hala bada, zein da zure asmoa: bidaiatzea, mundua ezagutzea, atzerrira betiko joatea, prestakuntza jasotzea edo, besterik gabe, bizirautea? Bestetik, noiz eta nora joan nahi duzu? Kasuan kasuko herrialdeko

hizkuntza kontuan hartu behar duzu, eta noiz joan nahi duzun jakin, egonaldian ahalik eta gehien aurreztu nahiko bazenu.

2- Lan-merkatua

Ba al dakizu joan nahi duzun herrialdeak zure zerbitzuak behar dituen? Ba al dakizu zure lanbidea edo prestakuntza baliagarriak diren herrialde horretan arazorik gabe jarduteko? Badakizu zeintzuk diren sektore ekonomikorik pisutsuenak? Ba al dakizu zein izapide exijituko dizuten lan-merkatu horretan sartzeko?
Horretarako, Enplegua atalean aurkituko dituzun **Euresen, SEPEren edo Kanpo Ministerioaren webguneak** kontsultatu ahal izango dituzu.

3- Marka pertsonala

Beste herrialde batean lan egin edo ikasi nahi baduzu, zure marka pertsonala prestatu behar duzu, hau da, **zure burua saldu eta ikusgarri bilakatu**. Zure **CVa prestatu** behar duzu, bai eta zoazen herrialdean eskatzen duten **dokumentazioa** ere. Gizarte-**sareak** egokitu itzazu eta are **komunikatzeko modua** ere (mugikorra, tablet-a eta abar). Prestatu, era berean, Skype edo Google kontu bat ere, Hangoutsen erabili ahal izateko, bai lana hemendik bilatzeko, bai kanpoan zaudenean komunikatu ahal izateko.

4- Presta ezazu zure burua

Argi dago: bazoaz. Baina behar bezain ondo moldatzen zara herrialde horretako hizkuntzan? Bertako kultura ezagutzen duzu? Exijitutako ezagutza tekniko guztiak dituzu? Jar zaitez abian. Egizu **hizkuntza-mailaren azterketa bat**, zer behar duzun egiaztatzeko. Informa zaitez bidaiari buruz, kulturari buruz eta han aurkituko duzunari buruz, eta presta ezazu behar den guztia, zure **ikasketak baliozkotzeko edo homologatzeko**, zerbait falta baduzu, sasoiz prestatzeko moduan egon zaitezen.
Aholku bat: begira itzazu zoazen lekuko lan-eskaintzak. Horrela, zein baldintza eskatzen dituzten ikusi ahal izango duzu, eta betetzen dituzuna la ez konprobatu ahal izango duzu.

5- Kontuak egin

Badakizu zenbat diru behar duzun? Kalkulatu behar duzu alokairuan egoteko fidantza eskatuko dizuten, ibilgailu beharko duzun edo garraio-bonoak eta zein den kostua eta zenbat denbora emango duzun kontratua izan arte. Hori guztiori kontuan hartuta, zure burua planifikatu beharko duzu, **3 hiletik 6 hilera diru-sarrerarik gabe egon ahal izateko.**

6- Laguntzarik behar?

Euskal Herriko eta Espainiako herritarren komunitatea nahiko handia da dagoeneko hainbat hiritan. Dagoeneko komunitateak osatzen ari dira Londresen, Berlinen, Vienan edo Pragan. Komenigarria izango zaizu horiek zure kontaktu-sarean txertatzea. Spaniards edo Erasmus foroak oso baliagarriak izango zaizkizu informazioa eta laguntza eskuratzeko.

Laguntza-sareak atzerrian

• Internations

Bere foro eta taldeetan **aholkuak trukatu** ahal izango dituzu dagoeneko **atzerrian dauden pertsonekin** nahiz oraindik beren bidaia egin ez dutenekin, baita lan-munduarekin loturiko informazioa bilatu ere.
www.internations.org/

• Strategic project Scotland

Eskozian bizi diren (eta lana lortu edo duten lana hobetu nahi duten) espainiar gazteentzako doako zerbitzuak eskaintzen ditu.
https://juventudgijon.wordpress.com/2015/03/28/strategic-project-escocia-orientacion-laboral-en-escocia-para-jovenes-espanoles/

• Just landed

Mundu osoan barrena erbesteraturik dauden pertsonak lotzen ditu. Gidak herrialdeka, foroak erkidegoka, lan-baliabideak eta abar. Lekualdatzeko laguntza aparta.
https://www.justlanded.com/espanol

Atzerrian laguntza jasotzeko komunitateei buruzko informazio gehiago helbide hauetan: http://www.cext.es/ edo
http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-contcvpv/es/contenidos/informacion/v2_presentacion/es_colectiv/presentacion_colectividades.html

7- Zer behar duzu?

Funtsezko zein gauza eramango dituzu? Nolako klima izango duzu? Zer eros dezakezu han eta, hortaz, ez da beharrezkoa hara eramatea? Non hartuko duzu ostatu? Elektrotresnak edukiko dituzu? Autoa eramango duzu? Nola konektatu Internetera?

8- Ihes egiteko plana

Azken puntua, baina ez garrantzi txikiagokoa, buelta planifikatzea da. **Gogoratu zergatik irten zinen eta zergatik bueltatu nahi duzun**. Gogoratu beti itzultzeko hegazkin bat hartzeko beste diru izan behar duzula aurreztuta.

1.2. ABIATU BEINO LEHEN BEHAR DUZUN DOKUMENTAZIOA

Irten aurretik, eta bidaiaren helburua kontuan hartuta, honako dokumentazio hau prest izatea gomendatzen dizugu:

• **NAN** edo pasaportea indarrean
http://www.dnielectronico.es/PortalDNIe/

• **CV Itzulia**, Eraman ale batzuk, ahal dela, formatu digitalean, litekeena delako aldaketak egin behar izatea.

• **Aurkezpen- eta babes-gutunak**; pasaporte-neurriko argazkiak.

• **Lehen soldata jaso arte behar adinako funtsak edukitzea.**

• **Europako osasun-txartela edo E-100 inprimakiak**
Gizarte Segurantzaren arreta- eta informazio-zentroa:
https://sede.seg-social.gob.es/Sede_1/Serviciosenlinea/ciudadanos/164993

• **Nazioarteko jaiotza-agiria eta familia-liburua**. Erregistro zibilean lortu ohi da. Aurkeztu familia-liburua eta horren fotokopia.
http://www.justizia.net/jaiotza-ziurtagiria

• **Gizarte segurantzaren eskubideak babesteko eta prestazioak esportatzeko inprimaki egokiak**
http://europa.eu/youreurope/citizens/work/social-security-forms/index_es.htm
Oro har U1 inprimakiak langabezia-prestazioa kalkulatzeko kontuan izan beharreko aseguru-aldiak aitortzeko erabili ohi dira, eta U2 inprimakia langabezia-prestazioa jasotzen jarraitzeko baimena da, beste herrialde batean enplegu bila zabiltzanean.

• **Gidabaimena**
Trafiko Zuzendaritza Nagusia. Probintziako buruzagitza.
http://www.dgt.es/es/

• **Banku-kontu bat irekitzea**
Lan-kontratu bat edukiz gero, enpresak berak gutun bat ematen du bankuan kontu bat irekitzeko erraztasunak emateko. Lan-kontraturik eduki ezean, bankuan alokairu-kontratua aurkeztu behar da, edo, bestela, argiaren edo uraren fakturak eta abar.
Espainiako banku baten gutuna, interesduna bezero ona dela adierazten duena, eta kontuaren azken mugimenduak. Bilatu helmugako herrialdean sukurtsalak dituzten banku espainiarrak. Atzerrian bulego gehien dituzten bankuak **Santander** eta **BBVA** dira. Online bankuak ere baliagarriak izan daitezke.

Ikasleak: egiaztatu zentro batean gutxienez hiru hilabeteko matrikula egin duzula.

• **Lanbide batean aritzeko tituluak egiaztatzea**
Ikus egiaztagiriak Hezkuntza Ministerioaren web-orrian.
Gobernuaren Ordezkariordetzan ere aurkez daitezke.
• **Tituluaren itzulpen ziurtatua eta ikasketa-ziurtagiriaren fotokopiak**
Espainian behar bezala inskribatutako edo baimendutako zinpeko itzulpen batekin. Estatu espainiarrak atzerrian duen edozein diplomazia- edo kontsul-ordezkaritzaren eskutik. Kanpo Arazoetako Ministerioaren webgunean, www.exteriores.gob.es "Zinpeko interpreteen zerrenda eguneratua" ageri da.
• **Kontsulatuan edo enbaxadan izena ematea**
Beste herrialde batean egoitza iraunkorra baduzu, kontsulatuko matrikula-erregistroan inskribatu behar duzu. Espainiako kontsulatu eta enbaxaden helbideak www.exteriores.gob.es webgunean daude eskuragarri.

1.3. ZURE ESKUBIDEAK

Laburpen honek Europako merkatu bakarrak eskaintzen dituen zenbait eskubide eta aukeraren berri ematea du helburu. Horietako batzuk gida honetako atal bakoitzean xehatzen dira. Ikasten ari bazara, kontsumitzailea bazara, lanean edo langabezian bazaude... nor zaren eta zertan zabiltzan gorabehera, abantailak eta aukerak aurkituko dituzu beti Europako merkatu bakarrean.

Eskubide hauek guztiek ezagutu beharreko zenbait denbora-muga edo baldintza dituzte.

Hori dela eta, Zure Europa ataria kontsultatzea gomendatzen dizugu.
http://europa.eu/youreurope/citizens/index_es.htm

BAINA ADI EGON.
Eskubiderik galtzen al dugu kanpora irtetean? **Zer egoeratan doaz gazteak?** Egoerak hobera egiten du beti **atzerrian**? Zer gertatzen da itzuli nahi dugunean? Askotan, mugikortasunak dakartzan onurei buruzko gehiegizko publizitatea egiten da; badira, halaber, atzerrira lan egitera joan diren edo mugikortasuna egungo egoera ekonomikoa alde batera uzteko irtenbide bakartzat jotzen duten gazteen asmo onak edo ezjakintasuna aprobetxatzen dituzten eskaintza mordoa ere.

Horregatik, gida honetan bloga ere gomendatzen dizuegu www.sosgazteak.org, pertsona orok bere bizipenak eta gazteriaren emigrazioari buruzko iritzia partekatu ahal dezan, bai eta gida ere *#SOSGazte. Emigración laboral juvenil*, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak migratzaile gazteei elkarrizketak egin ostean burututakoa, estatistiken analisia berriak eta migratzaile gazteen elkartearekin batera egindako elkarlana Kooperaktiboa.

1. EBko beste herrialde batean lana bilatzea

Europar Batasuneko (EB) herritarra izateagatik, EBko beste herrialde batean **lan egiteko eskubidea duzu, lan-baimenik gabe.**

Tratu berdina.

EBko beste herrialde batean lan bila bazabiltza, bertako herritarren **eskubide berak** dituzu lana eskuratzeko (aginte publikoaren abantailak gauzatzea eta Estatuaren interes orokorrak babestea berekin dakartzaten zenbait lanposturen kasuan izan ezik), **lan-zerbitzuen laguntza** jasotzeko eta lana aurkitzea ahalbidetzen dizun **diru-laguntza eskuratzeko**.

Diru-laguntza mota batzuetan, lana eskatzen duen pertsonak tokiko lan-merkatuarekin benetako lotura ezarri izana eskatzen da.

2. EBko beste herrialde batean langabezi-prestazioa jasotzea

Langabezian bazaude, **lana aurkitzeko laguntza** eskuratu dezakezu Europar Batasuneko (EB) beste herrialde batean

EBko beste herrialde batean lana bilatzea.

Zure herrialdeko langabezia-prestazioa kobratzen ari bazara, hura jasotzen jarraitzeko baimena eska dezakezu (normalean 3 hilabetez, 6 hilabetera arte luzagarria) EBko beste herrialde batean lana bilatzen duzun bitartean.

3. Zure Lanbide Kualifikazioen onarpena lortzea

Europar Batasuneko (EB) herritarra zarenez gero, **zure lanbidea Batasuneko beste herrialde batean gauzatzeko** eskubidea duzu.

Kualifikazioen onarpena.

Zure lanbidea lekualdatu zaren herrialdean araututa egon ezean, bertako herritarren baldintza berdinetan gauzatu dezakezu, onarpen-ziurtagiri ofiziala ez izan arren.

Araututa badago, aldiz, zure kualifikazioen onarpen ofiziala lortu beharko duzu herrialde horretan.

Zure lanbidea helmugako herrialdean araututa badago, baina ez, ordea, jatorriko herrialdean, zure herrialdean azken 10 urteetan 2 urtez gutxienez horretan jardun duzula frogatu beharko duzu.

4. Zergak ordaintzea

Beste herrialde batera bizitzera bazoaz, baliteke jatorriko herrialdean eta helmugako herrialdean zergak ordaindu behar izatea.

Errentaren gaineko zerga.

Ulergarria da lan egiten duzun herrialdean zergak ordaindu behar izatea, bertan erdietsitako diru-sarrerengatik. Lana herrialde batean baduzu, baina beste batean bizi bazara, litekeena da bizi zaren herrialdeak lan egiten duzun herrialdean lortutako diru-sarrerengatik zergak ordainaraztea.

Zorionez, herrialde gehienek nazioarteko hitzarmenak dituzte zerga-ezarpen bikoitza saihesteko. Oro har, bizi zaren herrialdeko administrazio fiskalak bertan ordaindu beharreko zergak kalkulatuko ditu, beste herrialdean jada ordaindu dituzunak kenduz.

5. Gizarte Segurantzara sartzea

Europar Batasunaren barruan (EB) **herrialde bakarrean kotizatu behar duzu**, hainbat herrialdetan lan egiten baduzu ere. Oro har, kotizazioak ordaintzen dituzun herrialdean soilik jasoko dituzu gizarte-segurantzaren prestazioak.

6. Mugikorra gutxiagoren truke erabiltzea

Mugikorra EBko beste herrialderen batean erabiltzen duzunean, deitzeko, mezuak bidaltzeko zein Internetera konektatzeko, zure operadoreak muga jakin bateraino baino ezin dizu kobratu.

2017ko ekainaren 15etik aurrera "roaming" delakoa amaitu egingo da, hots, konpainiek norberaren herrialdetik at mugikorra erabiltzeagatik kobratzen duten aparteko zenbatekoa.

Hauek dira dei, mezu labur eta Internetera konektatzeagatik (datuak deskargatzea) ordaindu beharreko gehienezko **tarifa**:

	2014/07/01	2016/04/30
Egindako deiak (minutuko)	0,19€	Tarifa nazionala + 0,05 eurora arte
Jasotako deiak (minutuko)	0,05€	2015eko abenduaren 31 baino lehen zehaztu behar da
Bidalitako mezu laburrak (mezuko)	0,06€	Tarifa nazionala + 0,02 eurora arte
Internetera konektatzea (datuak deskargatzea, MBeko)	0,20€	Tarifa nazionala + 0,05 eurora arte

7. Atzerrian osasun-laguntza jasotzea

Europako legediak Europar Batasuneko (EB) **beste herrialde batean osasun-laguntza jasotzea ahalbidetzen** dizu, bai eta gizarte-segurantzaren gastuen itzulketa eskatzea ere.

Osasun-laguntza egonaldi laburretan

Bidaian irten baino lehen —oporretan nahiz lana edo ikasketak direla eta— Europako osasun-txartela eskatu behar diozu gizarte-segurantzari (doakoa da).

Zure txartelarekin osasun publikora jo ahal izango duzu EBko beste herrialde batean zauden bitartean gaixotasunen bat pairatu edo istripu bat izanez gero.

Tratamendu medikoa bertakoen baldintza berberetan jasotzeko, Europako osasun-txartela erakutsi besterik ez duzu medikuarenean, haginlariarenean, ospitalean edo botikan.

Txartela ez badaramazu ere, behar duzun osasun-laguntza jasotzeko eskubidea izaten jarraituko duzu. Zenbait kasutan, zure herrialdeko gaixotasun-aseguruari eskatu ahal izango diozu gastuen itzulketa.

8. Beste herrialde batean ikastea

Europar Batasuneko (EB) herritarra izateagatik, **Europar Batasuneko beste herrialde batean ikasteko eskubidea duzu**, bertakoen baldintza berberetan.

Goi-mailako hezkuntzarako sarbidea

Sarbide-arauak zeharo aldatzen dira unibertsitate eta herrialde batetik bestera. Herrialde batzuetan, baliteke tokiko hizkuntza dakizula frogatu behar izatea, hizkuntza-froga baten bitartez.

Titulu akademikoen onarpena

EBn ez dira titulu akademikoak automatikoki onartzen. EBko beste herrialde batean ikasteko, komenigarria da lehenbizi dagoeneko duzun titulazioa onartzen dizuten begiratzea, bai eta zer mailatan ere.

9. Interneten bidez erostea

Europar Batasuneko (EB) **legediak** Europan **Interneten bidez egindako erosketak babesten** ditu.

- Nahi gabeko artikuluak itzultzea eta zerbitzuak uztea
- Konponketak, aldaketak, diru-itzulketak
- Entregatu gabeko artikuluengatiko ordaina

10. Bidaiari gisa dituzun eskubideak egikaritzea
Hegazkinez, trenez, itsasontziz eta autobusez/autokarrez bidaiatzen baduzu, edo mugikortasun-behar bereziak badituzu, hainbat eskubide dituzu bidaiari gisa.

11. Ordainketak egitea, kredituak eskatzea eta inbertsioak egitea
Europako araudiak zure diruak Europar Batasunean (EB) izango **duen zirkulazioa babesten** du.

12. Zure enpresa sortu edo zabaltzea
Europar Batasuneko (EB) **edozein tokitan egin ditzakezu negozioak**.
- Merkataritza-jarduerak zeure herrialdetik
- Enpresa bat beste herrialde batean sortzea
- Zure jarduerak atzerrian zabaltzeko laguntza

13. Zure enpresa finantzatzea
Enpresari gisa, **askotariko finantzaketa-iturriak eskura** ditzakezu Europar Batasunean (EB).

14. Salgaiak erosi eta saltzea
Ia edozein motatako salgaiak saldu eta eros ditzakezu Europar Batasuneko herrialde orotan, baldintza berezirik edo bestelako oztoporik gabe.

1.4. ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATZEA ETA KONPONKETA LORTZEA

Zer gertatzen da Europar Batasunean (EB) zure eskubideak egikaritzeko unean arazoak izanez gero? Jarraian, **konponbide bila jo dezakezun zerbitzuetako batzuen berri** emango dizugu.

Egoera jakin batean EBk bermatzen dizkizun eskubideen berri izan nahi baduzu, jarri harremanetan **«Zure Europa - Aholkularitza»** zerbitzuarekin. Gai juridikoetan aditua den norbaitek erantzungo dizu astebeteko epearen barruan, eta, beharrezkoa izanez gero, zer instantziatara jo dezakezun iradokiko dizu.
http://europa.eu/youreurope/advice

Beste herrialde bateko herri-administrazioak EBko herritar gisa dituzun eskubideak aintzatesteko eragozpenak jartzen badizkizu, jo ezazu **Solvit** zentro batera. Solvit zentroak administrazio nazionalen zati dira eta zure kasuan bitarteko izango dira 10 asteko epearen barruan konponbide bat aurkitzeko.
http://solvit.eu

EBko beste herrialde batean erositako produktu edo zerbitzu batekin arazoren bat izanez gero, jarri harremanetan dagokion **Kontsumitzailearen Europako Zentroarekin**. Zentroko adituek aholkularitza eta laguntza emango dizute merkatariarekin duzun gatazka ebazteko. Adiskidetasunezko akordioa posible ez bada, zentroak beste aukera batzuk topatzen lagunduko dizu (horietako batzuk online), gatazka auzitegietara jo gabe ebaztearren.
http://ec.europa.eu/consumers/ecc [EN]

Estatu kide batek EBko arauak betetzen ez dituela uste baduzu, salaketa egin dezakezu Europako Batzordearen aurrean. Salaketa aztertu ostean, **Europako Batzordeak** bere legedia aldatzea eska diezaioke delako herrialdeari.
http://ec.europa.eu/atwork/applying-eu-law/ complaints_es.htm

EBri loturiko eta zuzenean eragiten dizun gai bati buruzko eskaera bat aurkez dezakezu Europako Parlamentuan. **Europako Parlamentuak** egoera zuzenean konpontzeko eskumenak ez dituen arren, auziari buruz ohartaraz dezake eta inplikatutako alderdiak bultzatu
https://www.secure.europarl.europa.eu/ aboutparliament/es/petition.html

1.5. OSASUNA

EBko herritarrek doako edo kostu murriztuko osasun-laguntza jaso dezakete bidaiatzean gaixotzen direnean. Europako Osasun Txartelak gauzak errazten ditu alor horretan.

Europako osasun txartela (EOT)

Europako Esparru Ekonomikoan (EEE) edo Suitzan barrena bidaiatzeko asmoa baduzu, ez ahaztu Europako osasun-txartela edo ordezko behin-behineko ziurtagiria eraman behar duzula. **Osasun-laguntza eskuratzeko bidea erraztuko dizute agiri horiek, eta laguntza hori herrialdearen legeriaren arabera eskainiko dizute** (zenbait herrialdetan guztiz doakoa da). Laguntza **doakoa ez bada** eta horrenbestez ordainketarik egin

behar bada, agiri horiek bermatuko dizute etxera itzuli eta berehala **osasun-laguntzan gastatutako dirua itzuliko dizutela**.
https://sede.seg-social.gob.es/Sede_1/ServiciosenLinea/Ciudadanos/index.htm?ssUserText=232000

Bidaia-asegurua

Bidaia-aseguru bat kontratatzea komeni da, **Europar Batasuneko herrialde batzuek bakarrik ordaintzen dutelako osasun-tratamenduaren guztizko zenbatekoa**. Atzerrian gertatutako gaixotasun eta istripuek kostu osagarriak ekar ditzakete berekin bidaiari, ostatuari eta aberriratzeari dagokienez, eta bidaia-aseguru batek horiek guztiak estal ditzake.
Kreditu-txartel gehienek doako bidaia-aseguru bat daramate, banku-entitatearen arabera aldatzen diren zenbait kondizio biltzen dituena. Irten aurretik, egiaztatu zure txartelaren kondizioak.
http://europa.eu/youreurope/citizens/health/unplanned-healthcare/temporary-stays/index_es.htm

Osasuna munduan

Oro har, **EBn barrena bidaiatzeko nahitaezko txertorik ez dago**. Atzerrira bidaiatzeko asmoa baduzu, hobe duzu lehenbailehen informazioa jasotzea zure helmugako gaixotasun ohikoenen eta beharrezko txertoen inguruan.
www.who.int/ith/es/index.html [EN]

Europan barrena bidaiatzeko

Abiatu aurretik, informa zaitez bainatzeko uren kalitatearen edo aireko ozono-mailen inguruan, eta aukeratu eraman behar duzun eguzki-babesa. Erretzeko debekuari buruzko informazioa herrialdez herrialde kontsultatzeko aukera ere baduzu:
http://europa.eu/youreurope/citizens/health/index_es.htm

1.6. ZER EGIN DEZAKE EBk ZURE ALDE?

Europar Batasuna Europako 28 herrialde demokratikoren elkarte ekonomiko eta politikoa da, bidezko mundu seguruagoan 500 milioi herritar baino gehiagorentzako bakea, oparotasuna eta askatasuna erdiestea helburu duena.

Europako gazteentzako ezin konta ahala aukera dakartza. Atal honetan EBk eskaintzen dituen lorpen eta aukera nagusiak deskribatuko ditugu.

Zer emaitza izan ditu orain arte?

Bidaiatzeko eta salerosteko aukera, mugarik gabe; moneta bakarra, euroa, alegia; elikagaien segurtasun handiagoa; ingurumen garbiagoa; bizi-baldintza hobeak eskualde txiroenetan; batasuna delinkuentzia eta terrorismoaren aurkako gatazkan; telefono-dei merkeagoak; atzerrian ikasteko hainbat aukera… eta askoz ere gauza gehiago.

EBren lana

Hori guzti hori posible izan dadin, Europar Batasuneko herrialdeek hura zuzendu eta haren legedia onartzen duten erakundeak dituzte. Hauek dira erakunde nagusiak:

- **Europako Parlamentua:** Europako herritarrak ordezkatzen ditu.
- **Europar Batasuneko Kontseilua:** gobernu nazionalak ordezkatzen ditu.
- **Europako Batzordea:** EBren interes orokorra ordezkatzen du.

Nola entzunaraz dezaket nire burua?

EB ez da perfektua. Etengabe eboluzionatu eta hobetu behar duen proiektua da.

Zure aburuz, zer egin beharko luke EBk eta zer ez? Zure iritzia emateko:

- **Jarri harremanetan ordezkari nazionalekin**: EBren politikak politika nazionalaren zati dira.

- Jarri harremanetan **eurodiputatuekin** eta **bozkatu** Europako Parlamenturako hauteskundeetan: bertan, hain zuzen, onartzen da EBren araudia. (http://www.europarl.europa.eu/).

- Jarri harremanetan **GKEekin** (kontsumo-elkarteak, auzo-elkarteak, ingurumenaren aldeko taldeak, etab.), EBren politiken sorreran parte hartzen baitute.

- EBri buruzko informazio gehiago aurkituko duzu webgunean http://europa.eu/, eta egin zure galderak telefonoz Europe Direct-en doako zenbakira hots eginez: 00 800 6 7 8 9 10 11.

1.7. AUKERAK ETA LORPENAK

1.7. A. Muga gutxiago, aukera gehiago

Ia Europar Batasun osoan barrena bidaiatzeko aukera dugu, **pasaporterik gabe eta mugan kontrolik pasatu beharrik gabe**. Beste herrialde batera joan gaitezke gauza merkeagoak erostera, **murrizketarik gabe eta zerga osagarririk ordaindu beharrik gabe**, betiere gauza horiek norberaren erabilerarako badira. Euroa edo moneta bakarra indarrean dagoen herrialde guztietan prezioak zuzenean alderatzeko aukera ere badugu. Euroguneko herrialdeetan barrena bidaiatzea errazagoa da, dirua aldatu beharrak berekin dakartzan arazoak eta gastuak desagertu direnez geroztik. Mugarik gabeko merkatu bakarraren esparruan sortutako lehiaren eraginez, **kalitateak gora egin** du, eta prezioek, aldiz, behera. Telefono-deiak, Interneterako sarbidea eta hegazkin-bidaiak merkeagoak dira gaur egun. EBren legeriak kontsumitzailea babesten du produktu akastunen edo kalitate txarrekoen aurka, produktu horiek bakoitzaren herrialdean zein beste Estatu kide batean erosi. EBk mailarik handienak dauzka, halaber, elikagaien segurtasunaren alorrean.

EBko herritarrek EBko edozein herrialdetan bizitzeko, lan egiteko, ikasteko eta erretiroa hartzeko eskubidea dute. Hamabi Estatu kide berrienetako langileentzako aldi baterako murrizketak poliki-poliki desagertzen ari dira.

1.7. B. Atzerrian ikasteko

Dagoeneko bi milioi gaztek baino gehiagok bat egin dute Europar Batasuneko programekin, Europako beste herrialde batean ikasteko eta prestatzeko. Horri esker, **mugaz gaindiko lankidetzarako eta hezkuntza-trukerako programak, Erasmus, adibidez**, oso ezagunak dira ikasle eta ikastunen artean.

EBk ez du ikastetxeetan ikasi behar duguna erabakitzeko ahalmenik, baina titulazio akademiko eta profesionalak EBko herrialde guztietan behar bezala onartzea lortu nahi du.

1.7. C. Europa berdeagoa

Ingurumen osasuntsua izatea garrantzi handikoa da Europako herritarrentzat eta gobernuentzat. Horregatik, munduan ingurumena babesteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko abian jartzen diren **ekimenen buruan dago Europar Batasuna**. Kutsadurak ez duenez mugarik, EBko Estatu kideek baterako neurriak hartu dituzte hainbat sektoretan. Horregatik, ez da harritzekoa Europako ibai eta hondartzak

garbiago egotea, ibilgailuek gutxiago kutsatzea eta hondakinen isurketari buruzko arauak zorrotzak izatea. Dagoeneko ezinezkoa da Europako hondakin arriskutsuak herrialde pobreetan botatzea. Bestetik, EBk zenbait arau sortu ditu enpresek erabilitako produktu kimikoek herritarrei eta ingurumenari kalterik eragin ez diezaioten bermatzeko.
EBk lortu nahi du funtsezko zenbait sektore (garraioa, industria, nekazaritza eta turismoa, adibidez) garatzea, baliabide naturalak suntsitu gabe. Horri **garapen iraunkorra** deitzen zaio.

1.7. D. Euroak poltsikoan

Euroa da **(€)**, agian, Europar Batasunaren lorpenik nabarmenena. Hogeita lau herrialdetan dago indarrean euroa, horietako 19 Europar Batasunekoak (2014), eta, horrenbestez, EBko 337.5 milioi biztanleen zati handi batek egunero erabiltzen du euroa. Eta beste batzuek ildo beretik jarraituko dute, ekonomiak horretarako prest dituztenean.
Euroa onartzen den herrialde guztietan erabil daitezke euroko moneta eta billeteak.
Billeteak berdin-berdinak dira herrialde guztietan. Txanponak ez dira berdinak, ordea: alde bat bai, berdina da txanpon guztietan; bestean, aldiz, herrialde jaulkitzailearen enblema ageri da txanpon bakoitzean.
Euroa EBko herrialde hauetan dago indarrean: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Herbehereak eta Portugal.
Gainera, Europako lau mikroestatutan akordioak daude EBrekin, euroa moneta gisa erabiltzeko: Vatikano, Monako, San Marino eta Andorra. Bestetik, Montenegrok eta Kosovok euroa hartu dute monetatzat, alde bateko erabakiz.

1.7. E. Aukera berdintasuna

Gure gizartea bidezkoagoa eta eraginkorragoa da, baldin eta gure kideak beren nazionalitatearengatik, sexuarengatik, arrazarengatik, ezintasunarengatik edo beste zenbait faktorerengatik diskriminatzen ez baditugu. Horregatik, **EBren Zuzenbideak diskriminazioa debekatzen du**.
EBren lehen itunak 1950eko hamarkadan egin ziren, eta itun horietan guztietan jasota dagoen arau batek argi eta garbi adierazten du **gizon eta emakumeek ordainsari bera jaso behar dutela lan bera egiteagatik**. Horrekin, EB aitzindari izan zen emakumeen eskubideen aldeko borrokan, eta gaur egun eskubide horiek EBren politika guztietan daude jasota.

1.7. F. Enplegua eta hazkundea

Urteetan zehar, Europar Batasunak gure oparotasunaren alde jardun du, merkatu bakarra eta moneta bakarra sortuz eta merkataritzarako eta mugikortasunerako beste zenbait oztopo kenduz.

Eta hori lagungarri gertatu da 2008ko munduko finantza-krisiak Europan izan dituen ondorioak arintzeko. EBko zuzendariek elkarlanean jardun dute, Europan bankuak eta bestelako finantza-erakundeak egonkortzeko eta hazkunde ekonomikoa biziberritzeko.

Gaur egungo mundu lehiakorrean, Europak lanpostu berriak eta lan-esku kualifikatua behar ditu. Ikerketak eta garapenak enplegua sorraraz dezakete. EBko zuzendariek aurreikusi dute ikerketarako gastua nabarmen handitzea, 2020rako BPGaren % 3ko helburua ezarriz. Kualifikazio berriak ere behar dira, eta guztiok ere denbora gehiago eman beharko dugu ikasten, bizitza osoan zehar.

EBren aurrekontuaren herena (urteko aurrekontuko 130.000 milioi euro) **eskualde pobretuetan enplegua sortzera eta inbertsioa erakartzera bideratzen da, baita langabeei eta lanbide-trebakuntzarik ez dutenei prestakuntza eskaintzera ere**.

EBren laguntzari esker, zenbait herrialdetako (Irlanda eta Espainia, esaterako) herritarrak hobeto bizi dira gaur egun orain hogeita bost urte baino. Gaur egun, EBko ekialdeko Estatu kide berriak dira hazkunde handienak lortzen ari direnak.

1.7. G. Askatasuna, segurtasuna eta justizia guztiontzat

Nazioarteko terrorismoaren eta delinkuentziaren aurka borrokatzeko, Europar Batasuneko herrialdeek zenbait neurri hartu dituzte **polizia-indarren, aduana-administrazioen, immigrazio-zerbitzuen eta justizia-auzitegien artean erabateko lankidetza ahalbidetzeko**.

Besteak beste, **Europako atxilotze-agindua sortu dute**, atxilotutako ustezko delitugileak atxiloketaren herrialdetik haien bila dabilen herrialdearen esku uzteko bidea errazteko, jarraian azken herrialde horretan galdeketa egiteko edo epaitzeko. Gainera, EBko herrialdeek asilo-politikak koordinatzen dituzte eta kontrolak zorrozten, EBren kanpo-mugetan.

EBko herritarrek Estatu kide guztietan askatasunez bizitzeko eskubidea dutenez, Estatu kide guztietan **justizia eskuratzeko berdintasuna** izan behar dute. Gobernuek ahaleginak egin behar dituzte EBren arauak herrialde guztietan era berean ezar daitezen eta herrialde baten auzitegian emandako epaiak beste herrialde batean betearazteko aukera izan dadin. EBk asko egin du ezkontzarekin, banantzearekin,

dibortzioarekin eta adingabeen zaintzarekin zerikusia duten mugaz gaindiko arazo juridikoen konponbidea errazteko, baita beste zenbait auzi zibilen konponbidea errazteko ere.

1.7. H. Toki bat Europar Batasunean

Orain 50 urte baino gehiago sei kide fundatzaileek sortu zutenez geroztik, EBrekiko atxikimenduak bata bestearen segidan etorri dira, etengabe. 2004tik 2007ra bitarte, EB 15 kide izatetik 27 kide izatera igaro zen, eta horrek kontinentea batu egin zuen, gerra hotzaren ondorioz 45 urtez zatituta egon ondoren.

Europako edozein herrialdek dauka atxikitzeko aukera, baldin eta zuzenbideko Estatua, giza eskubideak eta gutxiengoen babesa bermatzen dituen demokrazia egonkorra baldin bada. Halaber, merkatu-ekonomia eraginkorra eduki behar du, baita EBren legeria aplikatzeko gauza den administrazio publikoa ere.

Kroazia izan da Europar Batasunean sartu den azken herrialdea, 2013ko uztailean. Macedonia, Montenegro, Serbia, Albania eta Turkia dira herrialde hautagaiak une honetan. EBk herrialde hautagaiei laguntza ekonomikoa eta praktikoa eskaintzen die, atxikimendurako prestatzen laguntzeko.

1.7 I. Kontinente oso bat

1952 Alemania, Belgika, Frantzia, Italia, Luxenburgo, Herbehereak
1973 Danimarka, Irlanda, Erresuma Batua
1981 Grezia
1986 Espainia, Portugal
1995 Austria, Finlandia, Suedia
2004 Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Txekiar Errepublika
2007 Bulgaria, Errumania
2013 Kroazia

2 Europar Batasunean Lan egiteko

2.1. Aholku eta iradokizunak lana aurkitzeko **33**
2.1.A. Non aurkitu lana? 33
2.1.B. Zer izan behar dut gogoan lana aurkitzen hasi aurretik? 34
2.1.C. Lan egiteko oinarrizko informazioa 35
2.1.D. Nola aurkitu lana? 36
2.1.E. Nola atzeman iruzurrezko lan-eskaintzak? 37
2.1.F. Aitortza, kualifikazioak eta tituluak 38
2.2. Curriculum Vitaea **39**
2.3. Aurkezpen-gutunak **41**
2.4. Hautespen-frogak eta elkarrizketa **42**
2.5. EURES **45**
2.6. SEPE **48**
2.7. Enplegurako europar programak **49**
2.7.A. Zure lehen EURES lana 49
2.7.B. 'Zure EURES-FSE lana' 50
2.7.C. Gazte-bermea 51
2.7.D. Erasmus gazte ekintzaileentzat 52
2.8. Atariak: lan bila Europan **52**
2.9. Gazteentzako lan-baliabideak **58**
2.10. Baliabideak: enplegu zerbitzu-publikoak herrialdeka **60**
2.11. Baliabideak: lana aurkitzea herrialdeka **62**

LABURPENA

Norberaren herrian lana aurkitzea gaitza da; Europar Batasunean ere ez da lan makala hori, gero. Atal honetan helmuga aukeratzen lagunduko dizugu eta, ahal dela, lana bilatu eta aurkitzeko prestatzen. Nora ezean ibili gabe, egin kasu aholku eta gomendioei. Jarraian proposatutako urratsek artez ibiltzen lagunduko dizute.

- Izan garbi nora zoazen lan bila: herria eta ingurunea, eskatutako baldintzak, bizitza-maila eta zergak. Giltzarri izango dira arrakasta izateko, eta denborarik eta dirurik ez galtzeko.
- Kontu handia izan iruzurrezko lan-eskaintzekin. Atzematen eta bereizten ikasi behar duzu. Zalantzarik baduzu, egin behar beste kontsulta.
- EURES lana aurkitzeko oinarrizko sare bat da. Azter itzazu egiten dituzten eskaintzak eta eskatutako baldintzak. Jo ezazu EURES aholkulariengana eta baliatu sarearen eta web-gunearen ahalmena (My EURES, herrialdez herrialdeko informazioa, txat-zerbitzua…).
- SEPEren langile-hautaketa zerbitzuan alerta ezarri, eta herrialde bakoitzeko informazioa aztertu. Interesgarria da oso herrialdeei begira egin ohi den CV-a.
- Baliatu EBren diru-laguntzak. Beharbada programa batean edo beste batean baduzu zer aukeratu.
- Beste edozein enplegutarako bezalaxe, prestatu ondo curriculuma, aurkezpengutuna eta elkarrizketa. Kontuz, herrialde bakoitzak bere berezitasunak ditu-eta.
- Lana sektorearen, herrialdearen, edo adinaren arabera aurkitzeko baliabide asko eta asko dituzu eskura. Enplegu-zerbitzu publikoetara jotzeko aukera ere hor duzu. Ez ito gero! Zure ezaugarrien araberako bilaketa egin ahalko duzu. Ekin!

2 Europar Batasunean Lan egiteko

2.1. AHOLKU ETA IRADOKIZUNAK LANA AURKITZEKO

2.1. A. Non bila dezaket lana?

Europako Esparru Ekonomikoan (EEE), pertsonen zirkulazio askea oinarrizko eskubide bat da, eta, horrenbestez, **EEEko langileek EEEtik kanpoko herrialde batean lan egin, bizi eta ikas dezakete lan- ez egoitza-baimenik gabe**. Atxikimendu-itunetan ezarritako aldi baterako xedapenen eraginpeko Estatu kide berrietako herritarrei aplikatzen zaie langileen zirkulazio askea.
(http://ec.europa.eu/eures/main.jsp?lang=es&acro=free&step=0).

Beraz, eskubidea duzu Europar Batasuneko edozein herrialdetan lan egiteko, baina Europako hiri, eskualde edo Estatu batean lan bila hasi aurretik, garrantzitsua da hiru kontu argi izatea:

1- Lan-merkatua.
Jardun nahi duzun alorrean zer-nolako eskaintza dagoen jakin behar duzu.

2- Nire lanbideari ekiteko baldintzak.
Baduzu zure lanbidean herrialde batean arazorik gabe aritzerik? Titulazio osagarririk edo eskuratu ez duzun ezagutza berezirik behar duzu?

3- Lan-baldintzak.
Zein herrialdetan dago ondo aitortuta eta ordainduta zure ogibidea? Zein baldintzaren pean egingo duzu behar?

2.1. B. Zer hartu behar duzu kontuan lana bilatu aurretik?

Europako beste herrialde batean bizitzeak eta lan egiteak zenbait arazo ekar ditzake berekin, hala nola:

- **Bestelako kultura bati** egokitzea.
- **Atzerriko hizkuntza** batean lanean jardutea.
- Ezezagunak diren **zerga-araudi eta gizarte-segurantza** darabiltzan ekonomian bizitzen ohitzea.
- **Familia, gizarte eta lan harremanei dagokien egokitzapena**.

Hautatutako herrialdeari buruz ongi informatzea da prestatzeko modurik onena.

Lan-mugikortasunak arrakasta izango badu, faktore hauek eraginkorrak dira:

- Langilearen beraren ekimena.
- Norbanakoaren ezaugarriak.
- Pertsonaren kualifikazioak.
- Atzerriko hizkuntzen jakite-maila.

Zure gaitasun pertsonalak eta zure erabakimena ere kontuan hartzekoak dira, baita, jakina, zure kualifikazioak eta atzerriko hizkuntzei buruz duzun jakintza-maila ere.
Europako lan-merkatuaren sektore batzuek aukera handiak eskain ditzakete zuretzat. EURESen txosten baten arabera, oro har EBn **eskaera handiena lanbide hauen ildokoa da**:

- Industriari begirako ingeniaritzak: aeronautikoa, informatika, mekanikoa eta elektronikoa.
- Osasungintzari loturiko lanbideak: erizaintza, medikuntza eta geriatria-laguntzailea.
- Lanbide heziketa teknikoa: elektrikariak, hotz/bero sistemen instalatzaileak …
- Ostalaritza

Oporraldietako turismo-sektoreari loturiko aldi baterako lanean ere aukerak handiak dira. Gogoan hartu, halaber, lanpostuen eskaintzari dagokionez, alde handiak daudela Europako Esparru Ekonomikoko eskualdeen artean, eta, gainera, egoera oso azkar alda daitekeela.

Behar bezain ondo moldatzen zara herrialdeari dagokion hizkuntzan? Homologa daitezke zure tituluak eta lan-esperientzia herrialde horretan? Ba al dago zure gustuko arloan lana aurkitzeko aukerarik? Galdera horiei guztiei erantzuteko, hona

hemen bi esteka: lehenengoa, Europako Enplegu Atariarena (EURES) eta, bigarrena, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena (SEPE). Esteka horietan informazio eguneratua aurkituko duzu honako gai hauei buruz: bizi-baldintzak eta egoiliarra izateko baldintzak, zergak, lan-merkatua, exijitutako titulazioak eta abar.
https://ec.europa.eu/eures/main.jsp?acro=lw&lang=es&catId=2648&parentId=0
http://www.sepe.es/contenidos/personas/encontrar_empleo/empleo_europa.html

2.1. C. Lan egiteko oinarrizko informazioa

• Zer da langileen zirkulazio askea?
Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan barrena, langileen zirkulazio askea **funtsezko eskubidea da. Eskubide horri esker, EEEko herritarrek edozein herrialde kidetan lan egiteko eta ezartzeko askatasuna dute**, lan egiteko baimenik, herrialde horretako nazionalekiko eskubide-berdintasuna bermaturik. Senitartekoak ere eskubide horren jabe dira.

• Nire tituluarekin, jardun al dezaket Europako beste herrialde batean?
Oro har, **Europako herritar batek EBko beste herrialde batean jardun dezake edozein lanbidetan, nazionalen arau eta muga berberak baino ez dituela**. Zenbait herrialdetan, tituluak, diplomak, ziurtagiriak edo kualifikazio espezifikoak edukitzea eskatzen dute autonomo gisa zein besteren kontura jarduera jakin batzuetan aritzeko. Kasu horietan, horien onarpena eskatu beharko da xede profesionaletarako, harrerako Estatu bakoitzeko eskumeneko erakundeen aurrean.

• Osasun laguntzarik ba al dut EBko beste herrialde batera joaten banaiz?
Osasun-laguntzari dagokionez: **Gizarte Segurantzaren onuradun bazara**, irten aurretik **Europako osasun-txartela lortu** behar duzu. Txartel hori indibiduala da, eta titularraren eskubidea ziurtatzen du ikuspegi mediko batetik beharrezkoak
diren osasun-prestazioak jasotzeari dagokionez, Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan eta Suitzan aldi baterako dagoen bitartean. Gizarte Segurantzan lor daiteke. Osasun-laguntza doakoa da herrialde gehienetan.
Hala eta guztiz ere, herrialde batzuetan kostu osoa edo kostuaren zati bat ordaindu beharko du. Oso garrantzitsua da ordainagiriak eta fakturak gordetzea, ondoren dirua itzul diezazuten.

• Lan bila nagoen bitartean, kobra al dezaket langabezia prestazioa Europako beste herrialde batean?
Langabezia-prestazioak edo subsidioa jasotzen ari bazara, prestazio horiek

esportatzeko aukera duzu lan bat bilatzeko, gehienez, 3 hilabetez. Horretarako honako hauek eskatuko dizkizute: jatorriko herrialdearen Enplegu Zerbitzu Publikoan gutxienez 4 astean erregistratua egotea, zerbitzu horri abiatzen zaren eguna jakinaraztea eta helmugako herrialdeko Enplegu Zerbitzu Publikoan izena ematea 7 eguneko epean.
U2 inprimakia eraman behar duzu zurekin EBn, edo E303 inprimakia Islandia, Lietchestein, Norvegia eta Suitzan , **eskubidea onartu zizun Enplegu Zerbitzuak emango dizuna**. Kontuan hartu zenbait herrialdetan izapideak 2 hilabete ere atzera daitezkeela.
Azkenik, komenigarria da **U1 inprimakia** izatea, EBko herrialde batetik lan egindakoan etxera zatozenerako, eta **E301 inprimaki**a Islandia, Lietchestein, Norvegia edo Suitzatik itzulian abiatzen zarenerako. **Modu horretan, kotizatutako aldiak kontuan hartuko dira geroko prestazioak kalkulatzeko**.

• Non ordaindu behar ditut nire zergak?
Europar Batasunean ez dago berariazko legeriarik zerga-arloari dagokionez, baina kontu handiz ibili behar da, batetik, ezarpen bikoitza saihesteko bi herrialdetan jasotako diru-sarrerak dituzten pertsonen errentetan, eta, bestetik, atzerrikoak nazionalen aldean ez diskriminatzeko. **Normalean egoitza fiskala dagoen herrialdean ordainduko dira zergak.**

2.1. D. Nola aurkitu lana?

Lan egiteko hautatu duzun herrialdean egotea da enplegua aurkitzeko modurik errazena. Horrela, gertuko baliabideak ezagutuko dituzu, paper guztiak behar bezala izango dituzu (ostatua, bankuko kontua, egoitza eta abar), lan-elkarrizketetara bertaratu ahal izango duzu eta abar. Horregatik, honako gomendio hauek egiten dizkizugu:

— Hautatutako herrialdea ondo ezagutu nahi baduzu eta bertan lan bila ibili nahi baduzu, **onena duzu herrialde horretan denboraldi bat ematea praktikak egiten edo lan-formula jakin batekin**. (Praktikak, bekak, AU PAIR, boluntarioak, hizkuntza- eta lan-eskaintzak, opor-sasoietako lanak, eta abar). Agentzia askok horrelako lanak antolatzen dituzte.
—Herrialde askotan oso garrantzizkoa da **kontaktuak** izatea, askotan lehen-lehenik ahoz komunikatzen delako lan-eskaintza bat sortu dela.
— **Bisitatu EURES lan-mugikortasuneko ataria** (hurrengo atalean), eta bertan

hainbat lan-eskaintza aurkituko dituzu, baita bizitza- eta lan-baldintzei buruzko eta lan-merkatuari buruzko informazioa eta beste zenbait informazio baliagarrirekiko loturak ere.

— Estatu kide askotan **agentzia pribatu batzuk daude, aldi baterako lanak aurkitzeaz berariaz arduratzen direnak**. Aldez aurretik, beren zerbitzuengatik kobratzen duten edo ez egiaztatu behar duzu, eta enplegu-kontratuen nondik
norakoak aztertu.

— **Laneratzeko agentzia pribatuak ere badaude**, baina exekutiboentzako enpleguez edo berariazko sektoreetako enpleguez arduratzen dira normalean, hala nola informatika edo finantzak.

— Ikasleentzat, **enplegu-azokek eta lanbide-orientazioko zentroek** oso zeregin garrantzitsua bete dezakete enplegua bilatzean.

— Gero eta ohikoagoa da **enpresetarako hautagaitzak norberaren ekimenez aurkeztea**. Enpresa askok beren kontratazio webguneak dituzte, zenbaitetan eskaera-inprimaki elektronikoa aurkezteko aukera ematen dutenak. Horietara baino ez duzu jo behar.

— **Kontsultatu lan-eskaintzei buruzko iragarkiak harrerako herrialdeko egunkarietan**. Kontuan hartu hainbat aldizkari espezializatuk lanbide espezifikoetarako iragarkiak biltzen dituztela.

— **Jar zaitez harremanetan harrerako herrialdeko enplegu-zerbitzu publikoarekin, hark aholku eman diezazuke-eta**. Eta gogoan hartu beste Estatu kide batean herrialde horretako herritarrek dituzten eskubide berberak dituzula, EEEko herritarra zaren neurrian.

2.1 E. Nola atzeman iruzurrezko lan-eskaintzak?

Lan-eskaintza gehienetara internet bidez jotzen dugu. Horietako asko iruzurrezkoak izan daitezke: lan bila dabilenari maula egin nahi diote. Atal honetan halakoak identifikatzeko zenbait zantzu emango dizkizugu.

1. Benetako enpresen izenak darabiltzate hautagaiak nahasteko asmoz. Egiaztatu enpresa badela: zuzenean deitu edo saiatu email bat bidaltzen giza baliabideen atalari, eskainitako lana egiazkoa den jakiteko.

2. Domeinu jeneralisten email-helbideak baliatzen badituzte, ez fida. Iruzurrezko eskaintzak argitara ematen dituztenek helbide korporatiboak barik, domeinu jeneralisten posta elektronikoko helbideak erabiltzen dituzte (hotmail, gmail, yahoo, eta abar).

3. Telefono mugikorren zenbakiak: Bulegoetakoak ez, mugikorren zenbakiak erabiltzen dituzte.
4. Atzerrian lan egiteko baldintza ezin hobeak. Zuhur jokatu behar duzu. Nahiz eta **soldata izugarriak eta lan-baldintza apartak** eskaini, pentsatu bi aldiz. Merkatuan diren beste eskaintza batzuetatik oso urrun dabiltza.
5. Lanpostua gordetzea: Hautagairi diru-zenbateko bat ordaintzeko eskatzen diote, lanpostua gordetzekotan. Halako eskaintzarik ez da.
6. Informatzeko deiak: Eskaintzaren zehaztasunak eman ez eta ordainketa gehigarria duen telefono-zenbaki batera deitzeko eskatzen dute, ondo informatu nahi baduzu. **Kontuz gero: lan-eskaintza on batek zehaztasun guztiak azaldu behar ditu**.
7. Transferentziak eginaraztea. Dirua erruz lortuko duzula esango dizute, baldin eta banku-transferentziak egiten badituzu. Inoiz ez duzu halakorik onartu behar.
8. Datu pertsonalak: Adi ibili iragarkian datu pertsonalak emateko eskatzen badute. Datu gehiegi eskatzea susmagarria da; iruzur fiskala egiteko erabil ditzakete, edo hirugarren bati eskaini edo saldu. **Hainbat datu, NANa kasu, hautaketa-prozesuaren amaieran baino ez eman.**

INOIZ ERE EGIN BEHAR EZ DUZUNA:
Ez onartu lan-eskaintzarik, dirua aurreratzea baldintzatzat jartzen badute (ez aurreratu dirua inoiz ere). Normalean dirua bidaltzeko erabili ohi diren enpresak Western Union edo Money Gram dira.

Sarrien erabilitako aitzakiak dira:

- Dagokion administrazioan kudeaketa-lanak dirua ordaindu behar izatea.
- Bertaratu baino lehenago diru nahikoa duzula egiaztatzea.
- Ostatua bermatzeko diru-gordailua, enpresak berak ostatua eskaintzen duenean.

2.1. F. Kualifikazioen eta tituluen aintzatespena

Harrerako herrialdean prestakuntzak onartzeko zer egin dezakezun jakitea; horixe da gauza garrantzitsuenetako bat.

! OHARRA: EBn Ikasteari buruzko 4. atalean aurki ditzakezu kualifikazioak eta tituluak onartzeko beharrezko betekizun guztiak

2.2. CURRICULUM VITAEA

Curriculum Vitaea enplegu bat lortzeko **"bisita-txartela"** da. **Nor zaren eta zer lanbide-ibilbide jarraitu duzun eta jarraitu nahi duzun** azaldu behar duzu labur. Europako eredua da curriculuma egituratzeko eredurik egokiena; hala ere, originala izan behar duzu eta zure nortasuna erakutsi, enplegatzaileak paperaren atzean nor dagoen ikus dezan.

Hona hemen Curriculum Vitaea sortzeko zenbait ideia:

• CV Europass

Hobe da Europako CV eredua erabiltzea, Europako Ekonomia Eremuaren (EEE) herrialdeen artean titulazioak eta eskarmentua errazago erkatze aldera. CV formatu hori Europako Ekonomia Eremuaren hizkuntza guztietan dago eskuragarri, eta lanbide-heziketako nahiz unibertsitatean lizentziatutako pertsonentzako balio du. Europass CVak hautagaien gaitasunen eta ezagutzen ikuspegi argia eskaintzen du Europako Ekonomia Eremuaren herrialde orotan. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu «Erlazionaturiko gaiak» ataleko «Europass lotura» EURES web-atarian.

! OHARRA: Europas Curriculum Vitaeari buruzko atal oso bat (10. atala) duzu gida honetan.

• Soiltasuna

Kontratazioen arduradunek CVak gainbegiratu ohi dituzte hautespen bat egin baino lehen. Hortaz, CVak **irakurtzeko erraza** izan behar du; erabili **esaldi laburrak, baiezko esamoldeak** eta, hala badagokio, **termino teknikoak**. Ezabatu informazio errepikakor oro.

• Lorpenak

Nabarmendu eskatutako lanerako interesgarriak izan litezkeen ardurarik garrantzitsuenak, baita eskarmentu txikia baduzu ere. Saiatu **boz aktiboa** erabiltzen, zure lorpenak deskribatzean kausa-efektu erlazioa erakusten eta zure **emaitza neurgarriak beti azpimarratzen.**

• Gertaeretan oinarritua eta sakona

Ziurtatu ematen duzun **informazioa gertaerekin bat** datorrela eta **zehatza eta egokia**

dela (hots, enpresaren beharretara bideratutakoak). Gogoratu zenbait alderdik edo esperientzia pertsonalek balioa erants diezaioketela zure CVari: ikasle zineneko lanak, bekak, boluntario-lanak, oporretako lanak... horiek guztiek zure gaitasun pertsonalak hobetzen lagundu dute, zalantzarik gabe. Horregatik, berebiziko garrantzia du jarduera horiek eta horiei esker erdietsitako gaitasunak laburtzeak.

• Prestakuntza

Azpimarratu zure lorpen akademikoak, bai eta beste gaitasunak ere, batez ere lanbide-eskarmentu txikia baduzu (edo inongo eskarmenturik ez). Egiozu ondorengo galdera zure buruari: "Zerk bereizten du nire hezkuntza-curriculuma herrialde honetako pertsonenetik?"

• CVaren luzera

Saiatu CVa **gehienez bi orri luze** izan dadin (denborak urrea balio du enpresan). **Erantsi aurkezpen-gutun bat** zure CVari, zure burua aurkeztu eta lanpostuarekiko interesa agertzeko. Nabarmendu enpresak eskatzen duen bestelako informazioa emateko prest zaudela.

• Argitasuna

Idatzi zure CVa eta eskatu beste pertsona batek irakur dezala bidali baino lehen.

• Erreferentziak

Herrialde askotan ohikoa da erreferentziak eskaintzea (enpresari eskatzaileari buruzko informazioa eman diezaioketen pertsonen izen eta datuak, alegia). Egiaztatu beti erreferentziak eta eskatu baimena horiek eman baino lehen.

• Zure CVaren moldaketak

Garrantzitsua: moldatu zure CV orokorra interesatzen zaizun lanpostuaren profilera. Horrenbestez, delako lanposturako garrantzizkoak diren kualifikazio, gaitasun, prestakuntza edo esperientzia jakin batzuk azpimarratu beharko dituzu.

• Informazio baliagarria:

Enpresen webguneek beren helburu eta interesei buruzko informazio garrantzitsua eman ohi dute.

CVak ezaugarri ezberdinak ditu herrialde bakoitzean

CVak ezaugarri ezberdinak ditu herrialde bakoitzean. Batzuek argazkia daramate, beste batzuek ez dute izaera pertsonaleko daturik ematen, eta abar. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) Europar Batasuneko herrialde ezberdinetarako Curriculum Vitaea eta aurkezpen-gutuna egiteko jarraibide orokorrak ematen ditu, bai eta CV eta aurkezpen-gutun ereduak ere hainbat hizkuntzatan.
http://www.sepe.es/contenidos/personas/encontrar_empleo/ayudamos_buscar_empleo.html

2.3. AURKEZPEN-GUTUNA

Aurkezpen-gutuna Curriculum Vitaeari eransten zaion "**ongietorri-agiria**" da. Agurretik hasita, hautagaitza jasotzen duenaren interesa piztu behar duzu; **enpresak eskatzen duen profilarekin bat datozen** zure curriculumaren **gaitasun pertsonal eta profesional aipagarrienak azpimarratu** behar dituzu. Aurkezpen-gutunak testu sinple eta zuzena izan behar du, ideiak argi dituen pertsona baten isla, enplegatzailea curriculuma irakurtzera eta, geroago, zu ezagutzera gonbidatzen duena.

Nola idatzi behar dut nire aurkezpen-gutuna?

• Xedea

Lan-eskaintzan kontrakoa adierazi ezean, edo berariazko inprimaki bat behar ez bada, oro har aurkezpen-gutun batek eta CV batek (Europass CVa, ahal izanez gero) osatzen dituzte lan-eskaerak. Aurkezpen-gutuna enpresari **nor zaren esateko eta lanpostu hutsarekiko interesa agertzeko balio duen agiria da.**

• Ezaugarriak

Curriculum Vitaeak bezala, aurkezpen-gutunak ere laburra (orri batekoa) eta argia izan beharko du. Testuak sinplea eta objektiboa izan behar du. Jarri arreta hiru edo lau puntu garrantzitsutan (ikusi jarraian).

• Edukia

Testuak lau bat atal izan beharko ditu, bakoitza gai bati buruzkoa.
Adibidea:

1. Agertu enpleguarekiko interesa eta azaldu nola izan duzun lanpostuaren berri.

2. Azaldu lanpostuarekiko interesaren zioa eta zergatik uste duzun profil egokia duzula.
3. Nabarmendu zure CVtik ateratako lanbide-gaitasun bat edo bi, zure aburuz, eskaerari balioa gehitu diezaioketenak.
4. Gutuna sinatu baino lehen, esan elkarrizketa bat egiteko eta enpresak eskatzen dituen bestelako datu edo agiriak emateko prest zaudela.

• Zer hizkuntzatako bertsioa erabiliko dut?

Lan-eskaintzan kontrakoa adierazi ezean, hobe da **enpresaren hizkuntza nazionala edo lan-eskaintza idatzita dagoen hizkuntza erabiltzea**. Arestian aipatu legez, enplegu transnazionalen kasuan ingelesa onartu ohi da komunikazio-hizkuntza gisa (frantsesa eta alemana atzetik).

Joan nahi duzun herrialdeko hizkuntza ezagutuz gero, hobe da zuk zeuk gutuna eta CVa idaztea. Lanpostuak hizkuntza jakin bat ezagutzea eskatzen badu, horrek aukera emango dizu hizkuntza-ezagutzak elkarrizketaren aurretik erakusteko. Eskatu delako ama-hizkuntza duen pertsona bati zure eskaera zuzendu dezala hura bidali aurretik.

Gutuna atzerriko hizkuntza batean idatziz gero, azaldu hezkuntza- edo prestakuntza-terminologiaren esanahia enpresaren hizkuntzan. Ahal bada, deskribatu erabilitako terminoak enpresa dagoen herrialdeko adibide alderagarriekin. Jarri harremanetan EURES aholkulari batekin argibide gehiago behar izanez gero.

2.4. HAUTESPEN-FROGAK ETA ELKARRIZKETA

• Hautespen-frogak edo lehiaketa ofizialak

Nazioarteko enpresa, korporazio edo erakunde garrantzitsu askok eskatzaileek, elkarrizketa baino lehen, froga edo azterketa psikometrikoak eta teknikoak egin ditzaten eskatzen dute. Horietako askok zerbitzu espezializatuetara ere jotzen dute, izangaiek beren funtzioak benetako bizitzan nola garatuko lituzketen ikusteko.
Presta zaitez hautespen-frogetarako eta bilatu erakunde bakoitzak erabiltzen dituen froga eta ariketa praktikoei buruzko informazioa. Graduatutako pertsonei zuzendutako zenbait webgunek eta argitalpen espezializatuk tresna eta metodo hedatuenak argitaratzen dituzte.

- **Elkarrizketa prestatzea**

- Sakon aztertu

Bildu enpresari buruzko informazio aipagarriena; presta zaitez horren eta lanpostuaren xehetasunen gaineko galderak egin diezazkizuten. Alderatu zure kualifikazioak enpresa ezarrita dagoen herrialdearen kualifikazio baliokideekin. Presta zaitez zure erantzukizunari, gaitasun teknikoei, kudeatzeko trebetasunei, erabakiak hartzeko konpetentziei buruzko galderei eta zure profila lanpostura nola egokitzen den erantzuteko.

- Gaitasun pertsonalak

Baliteke **helmugako herrialdeko hizkuntza zenbateraino menderatzen duzun erakutsi behar izatea**, bai eta zure gaitasun eta ezaugarriak lanpostu hutsera nola moldatzen diren frogatu beharra izatea ere. Helmugako herrialdeko hizkuntza ondo ez badakizu, agertu hura hobetzeko prestutasuna (posible bada, egin hizkuntza-ikastaro bat). Ahalegindu zeure hitzak erabiltzen, gutxi badira ere: Frogatu egiteko gauza zarela eta ez duzula erraz amore ematen!

- Benetako bizitzako gidoiak

Elkarrizketa baino lehen, **saia zaitez gainditu ahal izan dituzun egoera zailen adibideak gogoratzen**; horiei buruzko informazioa zabaldu dezakezu. Prestatu zeure merituen idatzizko bertsioa enpresako langileak bila dabiltzan pertsona zarela konbentzitzeko. Telefono edo Internet bidezko elkarrizketa bada, izan agiri hori prest eta trebatu argudioak argi emateko.

- Ustekabeko galderak

Ez etsi galdera zail edo ezustekoak egiten badizkizute. **Egon lasai, hartu denbora** erantzuteko eta, batez ere, **izan zintzoa**. Erantzuna ez badakizu, esan, baina azaldu nola saiatuko zinatekeen erantzun edo irtenbide bat topatzen.

- Talde-lana

Nabarmendu aurretiko taldeen lorpenetan zuk egindako ekarpenak. Lidergoa, kudeaketa-abileziak edo gizarte-elkarrekintzako trebetasunak ere aipatu beharko lirateke eta horiek adibideekin sostengatu.

- Soldata eta kontratuko baldintzak

Eskuratu delako atzerriko herrialdean antzeko lanbide edo titulazioetan ordaintzen den batez besteko soldatari (gordina edota garbia) buruzko informazioa. Era berean, informa zaitez kontratuko baldintza eta indarrean dagoen legediari buruz.

Kontsultatu EURES web-atariko “Bizimodua eta lana” atala xehetasun gehiago nahi izanez gero.

- **Elkarrizketara eramatea gomendatzen den dokumentazioa**

- CVa

Zure CVaren hainbat ale, enpresaren hizkuntzan eta, ahal bada, baita ingelesez ere.

- Ziurtagiriak

Unibertsitateko, egindako hizkuntza-ikastaroen eta bestelako titulazioen ziurtagiriak.

- Itzulitako diploma(k)

Zenbait lanetarako, sektore publikoan adibidez, baliteke beharrezkoa izatea zure tituluaren zinezko itzulpena izatea, normalean dagokion hezkuntza-erakunde edo ministerioaren kargu. Kontsultatu zure herrialdeko hezkuntza-agintaritza eskudunarekin.

- Nortasun-agiriak

Eraman pasaportea edo nortasun-txartelaren bat eta, ahal izanez gero, baita zure jaiotza-agiria ere.

- Gaixotasun-aseguruaren agiria

Europako Osasun Txartela (edo gaixotasun-aseguru bat duzula frogatzen duen beste edozein agiri, batik bat EBko hiritarrak ez direnen kasuan) erabilgarri izango zaizu atzerrian elkarrizketatzaileak unean bertan lanpostu bat eskaintzen badizu edota aurreikusi gabeko gaixotasun-kostuak ordaintzeko.

- Pasaporte-formatuko argazkiak

Eraman pasaporte-formatuko argazkiak zure CVa hobeto identifikatzeko edo beharrezkoa den beste edozein formalitatetarako.

- Gomendiozko gutunak

Gomendiozko gutunek abantaila eman diezazukete beste hautagaitzen aurrean. Lanbide-eskarmenturik ez baduzu, eraman zure eskolak edo unibertsitateak egindako gomendiozko gutuna.

2.5. EURES

EURES (Enplegurako europar zerbitzuak) mugikortasun profesionalaren ataria da. Gaur egun 31 herrialdek hartzen dute parte. Sarearen bazkide dira enplegu-zerbitzu publikoak, sindikatuak eta ugazaben elkarteak, eta Europar Batzordeak egiten ditu koordinazio lanak. 984 EURES aholkularik osatzen dute giza sarea Europa osoan. Egunean-egunean ia milioi bat lan-eskaintza proposatzen ditu EURESek.

EURES sareak informazioko, aholkularitzako eta kontratazioko/laneratzeko (enplegu-bilaketa) zerbitzuak eskaini nahi dizkie langile eta enpresaburu guztiei, baita Europar Batasuneko pertsonen zirkulazio askea baliatu nahi duten herritar guztiei ere.

• **EURESen zerbitzuak Interneten**
https://ec.europa.eu/eures/public/es/homepage

• **Enplegu-bilaketa**
EURES atarian argitaratutako enplegu-eskaintzak Europako enplegu-zerbitzu publikoetatik jasoak dira. **Enpresek atzerriko pertsonekin bete nahi dituzten lanpostuak bandera urdin batez markatuta ageri dira**, enplegu-eskaintzak ezagutzera ematen dituen EURES tresnan.

Europako lan-merkatuaren gardentasuna handitzeko asmoarekin, Europako enplegu-zerbitzu publikoek iragarritako enplegu guztiak beren web-orrian kontsulta daitezke. Lanpostu horiek ez daramate bandera urdinik, eta ez dira “EURES lanpostuak”. Lanpostu hutsak askotariko lanbideetan ageri dira, urte-sasoian eta modu iraunkorrean lan egiteko aukerak barne. Lanpostu huts bakoitzean, kontaktuko pertsonari eta hautagaitza aurkezteko moduari buruzko informazioa jaso da. **Kontaktua EURES aholkulari baten bitartez** bidera daiteke, eskaera bideratuko duena; beste kasu batzuetan, enpresaburuarekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera dago. Europako enplegu-zerbitzuek **egunero-egunero eguneratzen dute enpleguak bilatzeko EURES datu-basea**, eta lanpostu hutsei buruzko iragarkiek hutsik dauden bitartean bakarrik jarraitzen dute sisteman.

• **Bizitza- eta lan-baldintzak**
EURESek funtsezko datu-base bat eskaintzen du Europako Esparru Ekonomikoaren herrialdeetako lan-merkatuari, lan-baldintzei eta bizitzari buruz. Beste herrialde

batera lanera joan nahi baduzu, funtsezkoa da datu-base hori bisitatzea.

• **Aholku praktikoak**
Enplegu-eskaintza interesgarri bat aurkitzen baduzu, bisitatu atal hau herrialdeko lan- eta bizitza-baldintzak ezagutzeko. Izan ere, litekeena da, aldez aurretik jende askok egin duen bezala, eskaintza bat onartzea soldata zoragarria iruditzen zaizulako, **bizitza-maila handia** dela eta **zergetan** % 40 ordaindu behar dela jakin gabe.

Herrialde jakin batera aldatzeko aukera aintzat hartzerakoan gogoan izan behar diren gai praktiko, juridiko eta administratiboei buruzko ikuspegi orokor laburra eskaintzen du datu-base honek. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, jarraitu Interneteko beste gune batzuekiko loturak, edo, bestela, jo aipatutako harreman-puntu eta erakundeetara.

Herrialde horretan enplegua bilatzeko moduari, lekualdatzeari, lan- eta bizitza-baldintzei, gizarte-segurantzari, aseguruei eta abarri buruzko informazioa eskaintzen du.

• **Nire EURES**
"Nire EURES" doako zerbitzua da, enplegu-eskatzaileentzat zein enpresentzat sortua. **Enplegu-eskatzaileek bilaketa-profilak sortu eta gordetzeko eta posta elektroniko bidezko abisuak jasotzeko aukera dute**, profilera egokitutako lanpostuak izanez gero. EURESen lineako CVa, EBko hizkuntza guztietan eskuragarri dagoenak, curriculuma iragartzeko eta erregistratutako enpresei eta EURES aholkulariei erakusteko aukera eskaintzen du.
"Nire EURES" ataleko erabiltzaile-kontuan enplegu-eskatzaileen curriculumak bilatzen hastean, enpresek bilaketa-profilak sortu eta gorde ditzakete, baita posta elektroniko bidez abisuak jaso ere.
Plataforma nagusietan eskura dago EURESen APPa.

• **Europako gaitasunen pasaportea**
EURESek sustatutako **agiri honek sektore jakin batean eskuratu dituzun gaitasunak ziurtatzeko balio du**. Modu horretan, sektore horretako enpresaburuek erraz eta azkar jo dezakete zugana eta zure gaitasunak zeintzuk diren jakin. Gaur egun jatetxe-arloko, ostalaritza eta turismoko sektoreei begira erabilgarri da.

• EURES kontseilariak edo aholkulariak

Aholkulari-sare batek osatzen du EURES. Enplegu-eskatzaileek eta enpresek eskatutako informazioa ematen dute aholkulari horiek, harreman pertsonal baten bitartez.

Europa osoan 984 EURES aholkulari daude, eta kopuru hori gero eta handiagoa da.

EURES aholkulariak espezialistak dira, eta EURESen oinarrizko hiru zerbitzuak (informazioa, orientazioa eta laneratzea) ematen dizkiete enplegu-eskatzaileei zein Europako lan-merkatuan interesa duten enpresei. Mugikortasun nazionalarekin eta mugaz haraindikoarekin zerikusia duten gai praktiko, juridiko eta administratiboei buruzko espezializazioa lortu dute. Estatu kide bakoitzeko edo EURES sareko kide diren beste erakunde batzuetako enplegu-zerbitzu publikoaren esparruan dihardute.

Honako webgune honetan aurki dezakezu Eures aholkulari hurbilena:
https://ec.europa.eu/eures/eures-apps/um/page/public?lang=es#/adviser/search/list

- Mugikorretarako App -a
https://itunes.apple.com/us/app/eures-your-job-in-europe/id554155163?ls=1&mt=8 (Androiderako ere eskuragarri)
- Facebook: www.facebook.com/EURESjobs
- Twitter: https://twitter.com/euresjob
- LinkedIn: www.linkedin.com/groups?mostPopular=&gid=1884728
- Google+: https://plus.google.com/103780376865975473149/about

2.6. SEPE

SEPE Estatuko Enplegu Publikoaren Zerbitzuak **EBko enpleguari buruzko garrantzizko informazioen bilduma** aurkezten du bere webgunean.
www.sepe.es

Web-orriak garrantzizko informazio hau eskaintzen du:

• Lan-deialdiak: hautaketa-prozesuak Espainiatik
Herrialdez herrialde antolatzen dira. **EBn lan egiteko Espainian egiten diren hautaketa-prozesuak aurkezten dituelako nabarmentzen da** atal hau. Aukera hau oso garrantzitsua da, EBko langileak kontratatze aldera zerbitzu publikoek egiten dituzten eskaintzak baitira. Kasu askotan, aurretiazko hizkuntza-prestakuntza sartzen da.

• CVak eta aurkezpen-gutunak herrialdez herrialde
SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak informazioa eskaintzen du Europar Batasuneko **zenbait herrialdetan aurkezpen-gutuna eta curriculum vitaea lantzeko jarraibide orokorren** inguruan, dagozkien hizkuntzetan. Laguntza handikoak izango dira zuretzat, herrialde bakoitzaren ezaugarri espezifikoen berri ematen dizuten neurrian.

• Europan lan egiteko informazioa eta gida baliagarriak herrialdeen arabera
Atal honetan honako hauek nabarmendu behar dira:
— *"Trabajar en"* **gidak**
Eures sareak argitaratzen ditu gida horiek, eta nahi duzun gida espezifikoa aukera dezakezu lan egiteko aukeratzen duzun **herrialdearen arabera**. Nahiko gida osoak dira, eta hainbat gairi buruzko informazioa biltzen dute: lan-merkatua, kontratuak, Gizarte Segurantza, osasuna eta prestazioak, zergak, ostatua, hezkuntza, kultura, helbide baliagarriak eta abar.
— *"Buscar empleo en"* **liburuxkak**
EBko herrialde bakoitzean enplegua bilatzeko eskuragarri dagoen **informazio praktikoa** laburbiltzen dute liburuxka horiek, enplegua bilatzeko oinarrizko helbideen berri emanez.
— ***"Cuánto cuesta en"***
EBko gainerako herrialdeetan **bizitzak duen kostuari** buruzko datu praktikoak eskaintzen dituzte liburuxka horiek. **Kontuz!** Erreparatu datari, litekeena delako eguneratuta ez egotea.

2.7. ENPLEGURAKO EUROPAR PROGRAMAK

2.7. A. Zure lehen EURES enplegua

• Zer da?

Laneko mugikortasun-ekimena da "Nire lehen EURES enplegua". Bere **helburua gazteei enplegua lortzea erraztea eta enpresei EBko kide diren Estatuetako edozeinetan eta Norvegian eta Islandian langileak aurkitzen laguntzea da**. Finantza-laguntza eta informazioa eskaintzen dizkie lana eskatzen duten edo lanez aldatu nahi duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteei. Horretarako, laguntza eskaintzen du jatorrizko herrialdea ez den EBko beste batean lana bilatzeko eta EBko beste herrialde batzuetako langile gazteak kontratatu nahi dituzten enpresei.

EURES Espainia Italia eta Suediako "Your First EURES Job" proiektuetan bazkide da, eta, hortaz, laguntzak eskatu ahal dira hemen:

- "Your First EURES Job" EURES-Italia. YFEJ 4.0
- "Your First EURES Job" EURES-Suecia.

Prestakuntza-ekintzaren diseinua eta kudeaketa globalaren ardura Europako Batzordearena da.

http://www.sepe.es/contenidos/personas/encontrar_empleo/encontrar_empleo_europa/tu_primer_empleo_eures.html

• Nori dago zuzenduta?

Lana eskatu eta baldintza hauek betetzen dituztenei:

- 18 eta 35 urte bitartekoak izatea. Gazteek parte har dezakete, duten kualifikazio-maila, lan-esperientzia edo aurrekari ekonomiko edo sozialak gorabehera.
- Europako herritartasuna izatea.
- EBko herrialde batean legez bizitzen egotea.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten **enpresei**:

- enpresa EBko herrialde batean legez ezarrita izatea.
- dagokien herrialdean aurkitzen ez duten berariazko profila duten langileak bilatzea.
- gutxienez 6 hileko kontratuak eskaintzea, herrialdeko lan-legeria betetzen duten ordainsariak eta baldintzak dituztenak.

Enpresentzako informazio gehiago:
http://www.sepe.es/contenidos/empresas/ofertas_empleo/encontrar_empleo_europa_empresas.html

• Nolakoak izango dira laguntzak?

Lana eskatzen dutenentzat

Lanpostu huts egokiak bilatzea eta laneratzeko laguntza; lan-elkarrizketa egiteko bidaia ordaintzeko gastuetarako edota lanpostu huts bat betetzeko atzerrira joateko bidaiarako diru-laguntza.

Enpresentzat

Kontratatzeko laguntza. Langile kontratatu berrien prestakuntza-gastuen eta herrialdean bizitzen hasteko laguntzen zati bat ordaintzeko diru-laguntza bat eska dezakete enpresa txiki eta ertainek (250 langilekoak, gehienez ere).

Informazio guztia: http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=993&langId=es

2.7.B. "Zure EURES-FSE lana"

"Zure EURES-FSE lana" jatorrizkoa ez den Europar Batasuneko nahiz Europako Ekonomia Eremuko herrialde batean edo Suitzan **lan-elkarrizketak egitera doazen, lanpostu, ikasketak zein praktikak hastear dauden, edo lanpostu baten beharrei loturiko hizkuntza-ikastaro bat egingo duten langabeei finantza-laguntza** emateko proiektua da.

• Laguntza motak

1. Jatorrizkoa ez den Europar Batasuneko nahiz Europako Ekonomia Eremuko herrialde batean edo Suitzan lanean, praktikak egiten edo ikasten hasteko **elkarrizketa egiteko lekualdaketarako**.

2. Jatorrizkoa ez den Europar Batasuneko nahiz Europako Ekonomia Eremuko herrialde batean edo Suitzan gutxienez sei hilabetez kontratatu zaituzten eta bertan ezartzea berekin dakarten **lanpostuan, praktiketan edo ikasketetan hasteko lekualdatze**-laguntzak.

3. Kontratatu zaituzten lanpostuan, ikasketetan edo praktiketan hasi aurretiko prestakuntza egiteko laguntzak. Prestakuntza hori lanpostuaren beharrei loturiko **hizkuntza-ikastaroa** da zehazki.

Oharrak

Prozesu hauetako guztietan **Espainiako EURES sareak** izan beharko du bitarteko (EURES eskaintzak nahiz beste lanbide-atari bateko eskaintzak izan daitezke; nolanahi ere, EURESeko aholkulari batek *berretsi beharko du* eskaintza eta dagozkion formularioak *sinatu*).

"Zure EURES-FSE lana" delakoari dagokion laguntza-eskaera **jarduera egin baino lehen aurkeztu behar izango da**.

Informazio gehiago hemen:

- Erabiltzaileentzako Laguntza Zentroa (ELZ): 901 11 99 999
- Erantzun pertsonalizatua jasotzeko helbide elektronikoa: tutrabajoeuresfse@sepe.es
- SEPEren webgunea: http://www.sepe.es/contenidos/personas/encontrar_empleo/encontrar_empleo_europa/tu_primer_empleo_eures.html

2.7.C. Gazte Bermea

Gazte Bermea Europan sustatutako ekimen bat da, 25 urtetik beherako gazteek lan-merkatuan leku izan dezaten. Espainian Gazte Ekintzailetza estrategiaren baitan ezarri da.

Gazte Bermearen **helburua da 25 urtetik beherako gazteek lan-, heziketa- edo prestakuntza-eskaintza bat jasotzea ikasketak amaitu edo langabe geratu eta, askoz jota, hurrengo hilabeteetan.**

Xede horrekin, estrategiak 100 neurri biltzen ditu, gazteak lan merkatuan sar daitezen, bai beste baten kontura lan eginez, bai ekintzailetzaren bidez.

- Aurreikusitako neurriak lau ardatzen inguruan gorpuzten dira:
  - Bitartekaritza hobetzea
  - Enplegagarritasuna hobetzea
  - Kontrataziorako pizgarriak
  - Ekintzailetza sustatzea

Gazte Bermearen onuradun izateko ezarritako baldintzak bete behar dira eta Gazte Bermearen Sistemaren fitxategian sartu:
http://www.empleo.gob.es/es/garantiajuvenil/darsealta.html

Informazio gehiago 060 telefonoan eta Gazte Bermearen web-atarian:
http://www.empleo.gob.es/es/garantiajuvenil/home.html

2.7.D. Erasmus gazte ekintzaileentzat

Gazte Ekintzaileentzako Erasmus programa nazioarteko trukeetan oinarritzen da, enpresa bat sortu nahi duten gazte ekintzaile eta pertsonei proposatuta, beste herrialde bateko enpresari zailduekin ikasteko aukera eskainiaz.

Eskarmentua duten enpresetara bertaratuko dira gazte ekintzaileak eta egonaldi horretan esperientzien berri jasoko dute eta beharrezkoak diren trebetasunak eskuratu enpresa txiki edo ertain bat zuzentzeko bestekoak. Zati batean Europar Batasunak diruz laguntzen du programa eta iraupena bi edo hiru aste bitartekoa izaten da.

Zure enpresa sortu berria izan zein eskarmentu luzea izan, programa honek balio erantsi handia eman diezaioke zure negozioari: ezagutzak eta esperientziak trukatzeko aukera ederra da, bai eta Europan zehar harreman-sarea eta erlazio komertzialak sortzekoa ere, edo atzerriko merkatuetara jotzeko bidea.

Informazio gehiago: http://www.erasmus-entrepreneurs.eu/

2.8. ATARIAK: LAN BILA EUROPAN

• **Enplegurako atari orokorrak**
Adibidez, *jobrapido* edo *trovit* bilatzaile pribatuek, bilaketak hainbat herrialdetan egiteko aukera ematen dizute, eta dagokion hizkuntzan. Gehiago ere badira; hona horietako batzuk:
http://www.infojobs.net/jobsearch/jobs-advanced-search/edit.xhtml?canal=0
www.infoempleo.com/trabajo/en_union-europea
www.laboris.net/Buscador.aspx?Idioma=es&Portal=1
http://buscartrabajo.monster.es/
http://www.overseasjobs.com/
http://www.quierounbuentrabajo.com/
https://www.jobandtalent.com/es/ofertas-de-empleo
http://es.trabajar.com/empleo/fuera

• Enplegurako atari berezituak
www.jobtransport.com/ (Garraioa-Frantzia)
www.turijobs.com (Turismo-eskaintzak atzerrian)
www.ticjob.es/ (Informazio eta Teknologiaren alorrean espezializatutako ataria)
http://jobs.newscientist.com/en-gb/ (Zientzia eta teknologia alorreko lanak)
www.hacesfalta.org/oportunidades/remuneradas/buscador/
http://www.hacesfalta.org/ (Enplegua boluntario-lanetan)

• Osasun arloko enplegua / Fisioterapia
http://www.seleuropa.com/index.html
http://agencemobiliteurope.com/
http://www.efisioterapia.net/empleo (Eskaintzak Espainian eta Frantzian)
https://www.mediempleo.com/
http://www.careersinwhite.com/
https://www.healthcareers.nhs.uk/explore-roles/allied-health-professionals/physiotherapist (Erresuma Batua)
https://www.jobs4medical.co.uk/ (Erresuma Batua)
http://www.healthcare-pros.co.uk/ (Erresuma Batua)
http://www.iscp.ie/ (Irlanda)
http://www.hse.ie/eng/staff/jobs (Irlanda)
http://www.iscp.ie/careers-and-professional-development/jobs (Irlanda)
http://www.jobsireland.ie/ (Irlanda)
http://www.pole-emploi.fr/accueil/ (Frantzia)
http://www.empleo.gob.es/es/Mundo/consejerias/francia/webempleo/es/buscar-empleo/index.htm (Frantzia)
http://anabin.kmk.org/ (Alemania)
http://www.empleo.gob.es/es/mundo/consejerias/alemania/trabajar/alemania/alemania.htm (Alemania)
http://www.make-it-in-germany.com/en/for-qualified-professionals/working/demanded-professions/doctors (Alemania)
http://jobboerse.arbeitsagentur.de (Alemania)
https://jobs.kliniken.de/ (Alemania)
http://www.sanojobs.de/ (Alemania)
http://www.enseignement.be/index.php?page=0&navi=2508
http://www.consejo-fisioterapia.org/documentos/trabajobelgica.pdf

• **Hezkuntza**
http://www.teachingabroaddirect.co.uk/
https://profesores.bebee.com/
http://www.learn4good.com/
http://trabajarporelmundo.org/tag/profesores/
https://getintoteaching.education.gov.uk/explore-my-options/university-led-training/undergraduate

• **Komunikazioa/Kazetaritza**
http://www.journalismfund.eu/working-grants-4
http://journajobs.eu/
https://www.journalism.co.uk/ (Erresuma Batua)
http://www.journalism.co.uk/media-reporter-jobs/s64/ (Erresuma Batua)
http://www.gorkanajobs.co.uk/ (Erresuma Batua)
http://www.tmn.co.uk/ (Erresuma Batua)
http://www.holdthefrontpage.co.uk/jobs/ (Erresuma Batua)
http://www.prweekjobs.co.uk/jobs/junior-press-officer/ (Erresuma Batua)
http://www.frankwatching.com/vacature/ (Frantzia)
http://sp-s.ch/accueil/ (Suitza)
http://www.culturactif.ch/ (Sutiza)
http://www.toytowngermany.com/jobs (Alemania)
http://www.jobsinberlin.eu/jobs/press (Alemania)

• **Gizarte gaiak**
http://www.prospects.ac.uk/options_philosophy.htm
http://www.careersportal.ie/mce/plugins/filemanager/files/Degrees/Arts/philosophy.pdf
http://www.indeed.co.uk/Philosophy-Lecturer-jobs
http://www.thecompleteuniversityguide.co.uk/
http://www.nuigalway.ie/administration_services/careers_service/pdfs/careers_philosophy.pdf
http://www.erc.ie/?s=1
http://dcu.ie/herc/index.shtml
http://www.education.ie/en/The-Department/Agencies/Irish-Research-Council.html
http://www.esai.ie/aboutus

• Zuzenbidea

http://ec.europa.eu/civiljustice/legal_prof/legal_prof_gen_es.htm
http://ec.europa.eu/civiljustice/index_es.htm
http://www.ccbe.eu/index.php?id=6
http://www.ecla.org/
http://www.europeanlawyers.org/about.aspx
http://www.abogacia.es/front-internacional/
http://www.sra.org.uk/solicitors/qlts/key-features.page (Erresuma Batua)
https://www.barstandardsboard.org.uk/qualifying-as-a-barrister/transferring-lawyers/qualified-foreign-lawyers/ (Ingalaterra)
http://www.lawsoc-ni.org/joining-the-legal-profession/ (Ipar Irlanda)
http://www.lawscot.org.uk/education-and-careers (Escozia)
http://viewer.zmags.com/publication/f59e92f9#/f59e92f9/1
http://www.prospects.ac.uk/law_sector.htm
http://www.kent.ac.uk/careers/siteslaw.htm
http://www.kent.ac.uk/careers/interviews/lawAppsIVs.htm
http://www.abogacia.es/2014/10/16/una-abogada-espanola-en-reino-unido-vias-y-oportunidades-para-ejercer-en-ese-mercado/

• Ikus-entzunezko sektorea

https://nationalcareersservice.direct.gov.uk/advice/planning/jobprofiles/Pages/tvorfilmcameraoperator.aspx
https://nationalcareersservice.direct.gov.uk/advice/planning/jobprofiles/Pages/BroadcastEngineer.aspx
https://nationalcareersservice.direct.gov.uk/advice/planning/jobprofiles/Pages/livesoundengineer.aspx
https://nationalcareersservice.direct.gov.uk/advice/planning/jobprofiles/Pages/videoeditor.aspx
https://nationalcareersservice.direct.gov.uk/advice/planning/jobprofiles/Pages/tvorfilmproductionmanager.aspx
https://nationalcareersservice.direct.gov.uk/advice/planning/jobprofiles/Pages/tvorfilmproductionassistant.aspx
http://europa.eu/youth/volunteering/project_en
http://www.obs.coe.int/en/home
http://mavise.obs.coe.int/
http://www.cidj.com/etudes-metiers/secteurs-d-activite/numerique-multimedia-audiovisuel (Frantzia)

http://www.letudiant.fr/metiers/secteur/audiovisuel.html (Frantzia)
http://www.le-lab.info/sites/default/files/documents/guideeures_mobilite_eur2012.pdf (Frantzia)
http://www.profilculture.com/annonce/Emplois-Audiovisuel (Frantzia)
http://www.mediajobs.fr/accueil.asp (Frantzia)
http://www.jobculture.fr/emplois-culture/emploi-audiovisuel/ (Frantzia)
http://www.audiovisuel-job.com/ (Frantzia)
http://audiovisuel.enligne-fr.com/ (Frantzia)
http://www.mandy.com/index.php?country=ES (Erresuma Batua)
http://www.broadcastnow.co.uk/ (Erresuma Batua)
http://www.bbc.co.uk/careers/ (Erresuma Batua)
http://www.itvjobs.com/ (Erresuma Batua)
http://www.grapevinejobs.com/home.aspx (Erresuma Batua)
http://www.audiovisualrecruitment.com/ (Erresuma Batua)
http://www.avjobs.co.uk/ (Erresuma Batua)
http://www.audio-visual-recruitment.co.uk/ (Erresuma Batua)
http://www.photographers.co.uk/ (Erresuma Batua)

- **Diseinu grafikoa**

https://nationalcareersservice.direct.gov.uk/advice/planning/jobprofiles/Pages/graphicdesigner.aspx
http://www.prospects.ac.uk/graphic_designer_career_development.htm
http://www.creativebloq.com/career/how-get-design-job-1131750
https://www.csd.org.uk/
http://www.prospects.ac.uk/graduate_job_search.htm
http://creativepool.com/
http://www.creativereview.co.uk/jobs/
https://www.designjobsboard.com/
http://www.brandrepublic.com/jobs/
http://jobs.designweek.co.uk/
https://jobs.theguardian.com/searchjobs/?Keywords=graphic+design&RadialLocation=30&RadialTown=&CountryCode=&Find%20jobs=Find+jobs
http://mad.co.uk/

- **Itzulpengintza eta interpretazioa**

http://www.europelanguagejobs.com/
http://www.prospects.ac.uk/translator_job_description.htm

http://www.pole-emploi.fr/candidat/les-fiches-metiers-@/index.jspz?id=681 (Frantzia)
http://www.recrut.com/metier/Traducteur_2002 (Frantzia)
http://www.onisep.fr/Ressources/Univers-Metier/Metiers/traducteur-interprete-traductrice-interprete (Frantzia)
http://www.orientation-pour-tous.fr/metier/traduction-interpretariat,12230.html (Frantzia)
http://www.orientation-pour-tous.fr/metier/traducteurtrice-interprete,9664.html (Frantzia)
http://aiic.net/resources (Frantzia)
http://www.sft.fr/ (Frantzia)
http://www.atlf.org/ (Frantzia)
https://berufenet.arbeitsagentur.de/berufenet/faces/index?path=null/kurzbeschreibung&dkz=8303 (Alemania)
http://uepo.de/ (Alemania)
http://www.berufsberatung.ch/dyn/27143.aspx
http://www.lavoro-formazione.it/ (Italia)
http://europa.eu/epso/discover/job_profiles/language/index_es.htm

- **Eraikuntza**

http://www.baujob.ch/index.php?section=mediadir&cmd=jobs
http://www.jobs-baugewerbe.ch/
http://observatoriointernacionalizacion.org/index.php?option=com_k2&view=item&id=323:informe-de-icex-sobre-el-mercado-de-la-construccion-en-croacia&lang=es
http://www.make-it-in-germany.com/en/for-qualified-professionals/working/industry-profiles/building-and-construction
http://www.fundacionlaboral.org/microsite/formacion-y-examen-vca
http://www.cscs.uk.com/news/cscs-cards-help-mcgees-desire-to-revolutionize-systems/
http://www.empleo.gob.es/es/mundo/consejerias/reinounido/portalempleo/es/faq/Soy/Construcion/Construcion_Servicios.htm

2.9. ENPLEGU-BALIABIDEAK GAZTEENTZAT

• Eures DROP'PIN
http://www.redbullgraduateprogramme.eu/

- CASTORAMA
http://www.emploi.castorama.fr/

- DECATHLON
http://trabajaconnosotros.decathlon.es/

- LIDL
http://www.lidl.es/es/trabaja-con-nosotros.htm

- IKEA
http://www.ikea.com/ms/es_ES/about-the-ikea-group/available-jobs/index.html

- OCPGROUPE
http://www.nouveau.ocp.fr/irj/point/public/espace_edudiants_presentation

- REWEHANDELSGRUPPE
https://karriere.rewe.de/

- THE BOOTS COMPANY
https://www.boots.jobs/graduate-schemes/

- NOBLE GROUP
http://www.thisisnoble.com/trainee-and-internship-programmes.html

- TESCO
http://www.tesco-earlycareers.com/

- DAIRYGOLD
http://www.dairygold.ie/Graduate-Programme

5.5.H. Informatika, elektronika eta teknologia

- AT&T- LDP
http://att.jobs/careers/college/

- LAGARDERE
http://www.lagardere.com/ressources-humaines/nous-rejoindre-191.html

- SIEMENS
http://www.siemens.com/jobs/en/programs-entries/sgp.htm

- TAG HEUER
http://human-resources.tagheuer.com/en/our-company/interns-and-young-graduate.html

- ILL- Institute Laue-Langevin
http://www.ill.eu/careers/work-placements/

- AAAS - The American Association for the Advancement of Science
http://www.aaas.org/page/internship-opportunities

- H&P HEWLETT PACKARD
http://www8.hp.com/us/en/jobs/students.html

- MICROSOFT
https://careers.microsoft.com/students#programs

- BT Graduate Programmes
http://www.btgraduates.com

- CSC
http://www.csc.com/graduatesuk

5.5.I. Komunikazioa eta telekomunikazioak

- BERTELLSMAN
http://createyourowncareer.com/Graduates-and-Programs/Programs.html

- THOMSON REUTERS
http://thomsonreuters.com/en/careers/recent-graduates-interns/recent-graduates-business-finance.html

- TF1 GROUP
http://www.groupe-tf1.fr/fr/carri%C3%A8res/notre-culture-rh/vous-%C3%AAtes-%C3%A9tudiants

- ALCATEL-LUCENT
https://www.alcatel-lucent.com/careers

- AMENA - ORANGE - FRANCE TELECOM
http://orange.jobs/site/en-students-graduates/index.htm

- GROUPE NUMERICABLE
http://numericable-sfr.com/carrieres/espace-etudiants

- ERICSSON
http://www.ericsson.com/careers/student-young-professionals

- MICROSOFT
https://careers.microsoft.com/students#programs

- NOKIA
http://company.nokia.com/en/about-us/careers

- SAGEM
https://sagemcom.mua.hrdepartment.com/hr/ats/JobSearch/index?change_user_language=1

- SWISSCOM
https://www.swisscom.ch/en/about/jobs/first-jobbers.html

- BT GROUP
http://www.btgraduates.com/

- TELEFÓNICA
http://www.telefonicaando2careers.com/ie/explore-our-opportunities/european-graduate-programme/

- VODAFONE
http://www.vodafone.es/conocenos/es/vodafone-espana/trabaja-con-nosotros/talento-joven/

5.5.J. Energia

- ABB
http://new.abb.com/careers/opportunities/students
https://www.pgs.com/careers/careers-in-pgs2/

- BP. BRITISH PETROLEUM Programa para graduados e investigadores
http://www.bp.com/es_es/spain/carrera-en-bp.html

- CEA. Energia Atomikoaren Komisariotza
http://portail.cea.fr/emploi/Pages/stages/les-stages.aspx

- ÉLECTRICITÉ DE FRANCE EDFren mugikortasun programak (EN)
https://www.edf.fr/edf-recrute/travailler-chez-edf/etudiants/stages-theses-et-vie

- SHELL
http://www.shell.com/careers/students-and-graduates.html#vanity-aHR0cDovL3d3dy5zaGVsbC5jb20vZ2xvYmFsL2Fib3V0c2hlbGwvY2FyZWVycy9zdHVkZW50cy1hbmQtZ3JhZHVhdGVzLmh0bWw

- ENI
http://www.eni.com/en_IT/work-with-us/eni-university/eni-university.shtml

- ENGIE
http://www.engie.com/en/candidates/young-talents/join-us/

- E.ON- RUHRGAS
http://www.eon.com/en/careers/students-and-graduates.html

- STATOIL
http://www.statoil.com/en/careers/students/pages/default.aspx

- TOTAL FINAL ELF
http://careers.total.com/fr

- RWE AG
http://www.rwe.com/web/cms/en/1246082/rwe/career/entry-level/

- A.P. MOLLER/MAERSK
http://www.maersk.com/en/the-maersk-group/career

- SKANSKA
https://www.skanskaearlycareers.co.uk/programmes/graduates/

- REPSOL YPF
http://www.repsol.com/es_es/corporacion/empleo/te-buscamos/estudiantes/default.aspx

- VESTAS
http://www.vestas.com/en/career

- FUGRO
http://www.fugro.com/careers/opportunities-for-all/interns-and-graduates

- EUFORES. European Forum for Renewable Energy Sources
http://www.eufores.org/index.php?id=105

- AZTI- TECNALIA
http://www.azti.es/es/becas-y-practicas/

5.5.K. Garraioa, aisia eta turismoa

- AIR FRANCE
http://corporate.airfrance.com/fr/emploi/informations-recrutement/stages/

- DISNEYLAND PARIS
http://disneylandparis-casting.com/en/content/view/full/252

- LUFTHANSA
https://www.be-lufthansa.com/en/jobs-und-ausbildung/apprenticeship/

- TfL: Transport for London
http://www.tfl.gov.uk/corporate/careers/graduate-scheme

- STARWOOD HOTELS
http://www.starwoodhotels.com/corporate/careers/recruiting/index.html
http://www.starwoodvitafutura.com/

- NH HOTEL GROUP
https://corporate.nh-hoteles.es/en/job/internships-and-fellowships

- HILTON WORLDWIDE
http://jobs.hiltonworldwide.com/universities/europe.php

- FOUR SEASONS HOTELS AND RESORTS
http://jobs.fourseasons.com/home/students/internships/

- MELIÁ
http://www.meliahotelsinternational.com/en/employment/opportunities

5.5.L. Ingurumena

- EUROPARC FEDERATION
http://www.europarc.org/get-involved/join-us/

- EFI. European Forest Institute
http://www.efi.int/portal/careers/students/

- IFLA. International Federation for Landscape Architecture
http://iflaonline.org/job-adverts/

- FOOD & WATER EUROPE
http://act.foodandwaterwatch.org/site/Survey?ACTION_REQUIRED=URI_ACTION_USER_REQUESTS&SURVEY_ID=2028

- GREENPEACE EUROPEAN UNIT
http://www.greenpeace.org/eu-unit/about/internships-at-the-european-unit

- IEEP. Institute for European Environmental Policy
http://www.ieep.eu/work-with-us/

- IOSH. INSTITUTION OF OCCUPATIONAL SAFETY & HEALTH
http://www.iosh.co.uk/About-us/Be-part-of-IOSH/Volunteer-opportunities.aspx

- UNITED NATIONS ENVIRONMENT PROGRAMME, Regional Office for Europe
http://www.unep.org/vacancies/default.asp?vac_level=Interns

- AIT-UNEP Regional Resource Centre for Asia and the Pacific
http://www.rrcap.ait.asia/

- WWF. World Wide Fund for Nature
http://www.wwf.es/colabora/participa/hazte_voluntario/voluntariado_en_parques_nacionales.cfm

- EFSA. European Food Safety Authority
http://www.efsa.europa.eu/en/jobs/traineeship

- IES. Institute for Environment & Sustainability, European Commission
https://ec.europa.eu/jrc/en/institutes/ies

- VEOLIA WATER. PANGEO Graduate Programme
http://www.veolia.com/fr/groupe/carrieres/pangeo/le-programme

- WWOOF World Wide Opportunities on Organic Farms
http://www.wwoof.net/

5.6. NAZIOARTEKO PRAKTIKETARAKO BEKAK

Hainbat erakundek beka eta praktikak eskaintzen dituzte, EBn zein EBtik kanpo. Zuentzat interesgarri izan daitezkeen batzuen berri emango dizuegu jarraian, zerrenda batean bilduta.

• FARO-GLOBAL bekak
Programa honek, Valladolideko Unibertsitateko Fundazio Orokorrak kudeatuta, aukera ematen die Espainiako 1.000 bat ikasleri urtero praktikaldiak eskatzeko ia mundu osoko enpresetan. Beste deialdi baten zain.
http://www.becasfaro.es/pages/cont/index.php?id=27

• ARGO bekak
Argo Global Hezkuntza Ministerioak sustatutako mugikortasun-programa da. Horren helburua da Espainiako unibertsitate guztietako tituludunen prestakuntza osagarria bultzatzea, atzerriko praktiken bidez. Programa noiz arte: 2016ra arte.
http://becasargo.es

• AECID bekak
Kanpo Gaietako eta Lankidetzako Ministerioaren AECID beken hainbat programaren urteroko deialdia garrantzi handiko tresna da Espainiako Estatuak garapenerako laguntza ofizialak jasotzen dituzten herrialdeekiko lankidetza-politikan. Gaur egun hiru programa-mota garatzen dira: **kultura eta hezkuntzarako bekak, Erromako Espainiako Akademiarako bekak eta lektoreen programa**.
http://www.aecid.es/ES/la-aecid/anuncios/becas-y-lectorados

• Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bi programa eskaintzen ditu: **“Borondatezko Lankide Profesionalentzako laguntzak”**, borondatezko euskal lankideen prestakuntza hobetzera eta horien parte-hartzea bultzatzera bideratuak; eta **“Nazio Batuen Erakundearen bekak”**, herrialde pobretuetan garapen-proiektuetan lan egiten duten lankide boluntarioei zuzenduak.
http://www.elankidetza.euskadi.eus/x63-homev7/eu

• BEGT - Global Training bekak

Unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-prestakuntzako titulazioa duten gazteentzat dira, **atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egiteko**. EAEko gazteen nazioz haraindiko mugikortasuna bultzatzeko jomuga dute, gazte horiek beren ikasketa- eta lanbide-profilarekin lotutako jarduerak eta proiektuak egin ditzaten atzerriko herrialdeetako enpresetan eta erakundeetan, aldez aurretik planifikatutako prestakuntza praktikoko plan batekin. **(2016ko deialdia itxita).**

http://www.global-go.net/Corporativa/Default.aspx?Xqp5O3l6Vf3ypmSB3ixoUg90785678d90785678d

• CONFEBASK

Confebaskek, Europar beken proiektuaren bidez, Europako enpresetan egonaldiak egiteko aukera ematen dizu Lanbide Heziketako ikaslea bazara, unibertsitateko ikaslea edo unibertsitateko tituluduna.

http://formacion.confebask.es/Corporativa/Default.aspx?Xqp5O3l6Vf1Sa7PFypLm5w90785678d90785678d

• Lehen Aukera bekak

Lehen Aukera unibertsitateetan titulazioa lortu dutenei **bideratutako** deialdia da. Modulu teorikoa eta atzerriko enpresetan trebatzeko hiru hilabeteko praktikaldia biltzen ditu.

http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/lehen-aukera/
http://www.ehu.eus/es/web/sarrera-acceso/bekak

• Alemanian ikastaro trinkoak egiteko bekak

DAAD —**Alemaniako Truke Akademikoetarako Zerbitzuak**— hainbat beka-programa eskaintzen ditu, batzuetan instituzioekin batera, Alemanian ikasteko eta ikerketak egiteko. Webgune honetan beka-mota desberdinei buruzko informazioa aurkituko duzu.

www.daad.es

• SEPI fundazioa

Esperientziarik gabeko tituludun gazteentzako prestakuntza praktikorako beka-programak sustatzen ditu, mota askotako instituzio eta enpresekin elkarlanean (Iberia, Deloitte, Telefónica, CASA, EADS eta abar). Bereziki egokiak ingeniaritzen eta enpresa-administrazioaren edo enpresa-zientzien alorretarako. Beka horietarako, urteroko deialdia egiten da.

http://www.fundacionsepi.es/becas/presentacion.asp

• IES-Consulting

IES-Consulting Espainiara praktikak egitera etorri nahi duten **europar ikasleentzako** programa da. Espainiako zenbait enpresatan praktikak egiteko aukera eskaintzen du, eta, bereziki, turismo-sektorean lan egiteko aukera.
www.ies-consulting.es

• Vulcanus bekak. Vulcanus in Japan

Programa honi esker, EBko ikasleek Japonian industria-praktikak egiteko aukera dute, Japoniako industria-enpresa batean jardunez eta aldi berean japoniera ikasiz.
Irailean hasten da eta hurrengo urteko abuztuan amaitzen, EBko estatu kideetako ikasturte akademikoarekin bat egiteko. Ikasleek astebeteko **mintegia** eta 4 hilabeteko **japoniera-ikastaro trinkoa** egiten dute Japonian, eta, jarraian, 8 hilabeteko praktikaldia Japoniako enpresa batean.
www.eu-japan.eu/vulcanus-japan-0 [EN]

• ICEX bekak

1975. urteaz geroztik, **enpresa-nazioartekotzeko zerbitzuak** ematean espezializatutako profesional gazteen prestakuntza sustatzen dute.
http://becas.icex.es/icex/cda/controller/page/0,2956,35582_10219_3088388_0_,00.html

• Fundación Universidad Empresaren programak – FUE

Fundación Universidad-Empresa – FUEk laneratzeko hainbat programa ditu, tartean, **beka duten OPTIMUS, CITIUS, UNIVEM, PASARELA eta GAIA programak**.
www.fue.es/

• Fulbright Batzordearen bekak Espainian

Fulbright Batzordeak zenbait beka ezarri ditu Espainian, **zenbait diziplinatarako eta maila akademikotarako**. Beka guztiek **goi-mailako titulazioak** dituzte xede. Web-orrian, AEBetako zentro eta unibertsitateetan goi-mailako titulazioetarako ikasketak zabaltzeko aukera ematen duten Fulbright beken zerrenda aurkituko duzu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu Fulbright Batzordearen orria.
www.fulbright.es

• Europar praktikaldiak PROCTER & GAMBLEn

Urte osoan, eta udan ere bai, konpainia honek prestakuntzaldiak eskaintzen ditu Europa osoan, ikasketen **azken edo azkenaurreko urtea egiten ari diren** hainbat diziplina eta prestakuntzatako **ikasleentzat**.
http://we.experiencepg.com/ [EN]

• European Movement Ireland
European Movement Ireland erakunde independentea da, irabazi asmorik gabekoa, Irlanda eta Europaren arteko zubia sortzen saiazten dena.
http://www.europeanmovement.ie/category/jobs-and-internships/

• Europe Internships
Europe Internships online plataforma bat da, abokatuen laguntzaileentzako praktikaldiak antolatzen dituena, europako ikasleei begira.
http://www.europe-internship.com/

5.7. PRAKTIKAK KUDEATZEN DITUZTEN BILATZAILEAK ETA WEBGUNEAK

Jarraian beka eta praktiketarako **berariazko bilatzaile** batzuen zerrenda aurkeztuko dizuegu.

• Bekak 2016
Oso zaila da ikasketak finantzatzen lagunduko dizun beka bat aurkitzea, eta Interneten agertzen den informazioa batzuetan oso sakabanatuta dago, edo oso nahasia da. Hori dela-eta, atari honetan 2015ean ikasketak egiteko beka- eta laguntza-kopururik handiena ahalik eta modurik ordenatuen eta eskuragarrienean eskaintzeko.
http://www.becas2016.com

• EUROGRADUATE. The European graduate career guide 2014
Europako gazteentzako **enplegu-eskaintzei, praktikei eta enplegagarritasunari buruzko informazioa** ematen du EUROGRADUATEk. Izena eman dezakezu, euren Newsletterra posta elektronikoz jasotzeko.
www.eurograduate.com

• Doktoretza eta doktoratu ondoko europar ikerketarako bekak
Europako programetan parte hartu nahi duten ikertzaile gazteentzako informazio baliagarria. Informa zaitez europar ikerketa-beketarako diru-laguntza eta beken inguruan.
http://cordis.europa.eu/home_es.html

• Lehen enpleguko bekak eta praktikak
Beka eta praktiken bilatzailea.
www.primerempleo.com

• Unibertsitate-bekak
Atzerriko espainiar **irakasle, eta ikasleentzako ikertzaile bekei buruzko datu-basea**.
http://www.universidad.es/

• EURODYSEE
Europako Eskualdeen Asanbladarekin du harremana erakunde honek. **Programan parte hartzeko eskualdeetako batean bizi behar duzu** (dena den, nahikoa da erroldatze agiria aurkeztea). Lotura batek zein eskualdek hartzen duten parte adierazten digu.
http://www.eurodyssee.eu/es/que-es-eurodisea.html

• IAGORA
Europa osoko enpresekin mota guztietako okupazioetan lan egiteko aukerak eta praktikak eskaintzen ditu. Enpresen izenak eta enpresa bakoitzaren deskribapen txiki bat ikus daitezke, baina ez harremanetarako datuak. Orria bitartekari soila da.
www.iagora.com/index.html [EN]

• EUROPLACEMENT
Mundu osoko **lan-eskaintzak** biltzen ditu, baita bitartekotza pertsonalari buruzko atal bat ere. **Praktiken** hautaketan, **ostatu**-bilaketan eta herrialdean bizitzeko baimenari dagozkion arazoen konponketan laguntzen dute. Zenbait herrialdetako bizimoduari buruzko gida batzuk proposatzen dituzte, eta zenbait aholku ematen dituzte aurkezpen-gutuna, curriculuma eta hautaketa-elkarrizketa egiteko moduaren inguruan..
http://www.europlacement.com/ [EN]

• EUROBRUSSELS
Praktikaldiak Europan. Europako hainbat enpresa, elkarte eta GKEren praktika-eskaintzei buruzko datu-basea da.
www.eurobrussels.com/jobs/internship [EN]

• CAPCAMPUS
Ikasketak amaitu aurretik egokitzat jotzen baduzu lanbide-esperientzia baliagarri bat edukitzea, webgune honek **informazioa eskaintzen dizu Frantziako praktikaldien eta Europako eta atzerriko truke- eta enplegu-programen inguruan**. Zenbait aholku ere aurki ditzakezu bertan, hautagaitza aurkeztu aurretik aurkezpen-gutuna eta CVa prestatzeko zer egin behar duzun argituko dizutenak.
http://www.capcampus.com/ [FR]

• GOABROAD
Atzerriko praktikaldiei buruzko informazio-gunea. Ordaindutako eta borondatezko praktika akademiko edo profesionalen eta lanbide-heziketako programen eskaintza mundu osoan. Oso zehatza eskaintza bakoitzaren deskribapenean. **Lanbide-profil guztiak biltzen ditu**.
www.goabroad.com/intern-abroad [EN]

• INTERNSHIPUSA
Estatu Batuetan lanbide-esperientzia jaso nahi al duzu? AEBetako enpresa baten prestakuntza-programa batean parte har dezakezu, zure diziplinarekin zerikusia duen lanpostu batean. Webgune honek aukera eskaintzen dizu zure jarduera-sektoreko enpresak bilatzeko, zergei, osasun-laguntzari eta segurtasunari buruzko informazioa jasotzeko eta CV bat estilo amerikarrari jarraiki idazteko aholku batzuk ikasteko. Ezagutu dagoeneko programetan parte hartu duten beste zenbait pertsonaren iritzia.
www.ciee.org/trainee/ [EN]

• UNIVERSIA
Universia **Iberoamerikako unibertsitate-lankidetzarako sare nagusia da**, Iberoamerikako 23 herrialdetako 1.216 unibertsitate bazkide biltzen dituena (unibertsitateko 14 milioi ikasle eta irakasleren ordezkari dira). Garrantzizko zerrenda eta informazioa eskaintzen du Europako instituzioetan eta nazioarteko beste erakunde batzuetan praktikak aurkitzeko.
http://www.universia.es/practicas-extranjero/verano-extranjero/at/1133305

• GAZTEAUKERA
Euskadiko gazteriaren atariak bekei eta praktikei buruzko informazioa eskaintzen duen zerbitzu eguneratua du.
http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-19019/eu/

• GazteBizHitza: gazteentzako online aholkularitza
GazteBizHitza onlineko **orientazio eta aholkularitza** zerbitzua da, Euskadiko gazteei eskainia. Atarian informazio gaurkotu eta kalitatezkoa ageri da. **Ikasketak, Lana eta Etxebizitza** dira informazioaren ardatzak. Erabiltzaileei **email, telefono eta whatsapp** bidezko arreta pertsonalizatua ematen diete.
http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-gbh006/eu/contenidos/informacion/gbh_ikasketak_bekak/eu_def/index.shtml

• EURACTIV Jobsite
Europako 15 hiribururen arteko sarea du Euractivek. Praktikak egiteko hainbat eskaintza aurkituko duzu bertan.
http://jobs.euractiv.com/ [EN]

• Recruiting Erasmus
Proiektu berritzailea da Recruiting Erasmus. **Proiektuko kide diren enpresen eta atzerrian unibertsitate-ikasketak egiten ari diren edo amaitu berri dituzten ikasleen arteko kontaktua erraztea du helburu**, bai Erasmus beka baten bitartez, bai nazioarteko antzeko programa baten bitartez.
http://www.recruitingerasmus.com/

• IHIPO
iHipori esker, erabiltzaileek (ikasle eta graduatuek) atzerriko programak, bekak, praktikak eta egonaldiak aurkitu ahal izango dituzte. Elkarrizketak eta CVak egiteko laguntza ematen duen atal interesgarria du.
http://www.ihipo.com/ [EN]

• Oportunidadeuropa
Hainbat aukera eskaintzen ditu atzerrian lana, praktikak, bekak, boluntario-lana eta kultura-trukeak aurkitzeko.
http://oportunidadeuropa.com/

• Fábrica Cultural
Fábrica Cultural (Kultur Fabrika) egitasmoaren helburua da ikasleei, profesionalei eta kultur sektoreko erakundeei kulturaren inguruko aukerak ezagutaraztea. **Kultura-enplegua, bekak, diru-laguntzak, sariak**... horiei buruzko informazioa lantzen dute. Horretaz gain, Espainiako kultur alorreko lehen gizarte-sarea egituratu dute.
http://www.fabricacultural.com/

• Erasmus Intern
ErasmusIntern.org atariak leku egiten dien enpresei eta erakundeei praktikak egiteko eskaintzak argitaratzeko eta hautagaiak bilatzeko. Bestetik, ikasleek euren profilak sortu eta azaleratu ahal dituzte bertan, praktikak aztertu eta praktika-saioak eskatu.
http://erasmusintern.org/

• Graduate Land
Graduatuei begirako ataria da Graduate Land: **lanpostuak, praktikak eta graduondoko programak** dituzte eskura.
https://graduateland.com/

• European Interships
Aukeratu interesgarri begitandu zaizun eskaintza. Hainbat sektoretan jarduteko aukera duzu: **hezkuntza, komunikabideak, hizkuntzen irakaskuntza, osasuna, ingurumen-zientziak, psikologia**.
http://www.europeaninternships.com/

• Talentoteca
Portal honetan 3000 baino eskaintza gehiago topa ditzakezu bekak eta praktikak egiteko.
https://www.talentoteca.es/

5.8. PRAKTIKALDIAK ESKAITZEN DITUZTEN EUROPAR ELKARTEAK

• AIESEC (Association Internationale des Etudiants en Sciences Economiques et Commerciales)
http://aiesec.org/students/intern-abroad/ [EN]

• ELSA (European Law Students' Association)
http://elsaspain.es/sobre-elsa/

• IBA (International Bar Association)
http://www.ibanet.org/Education_and_Internships/Legal_Internship_Programme.aspx [EN]

• IAESTE (The International Association for the Exchange of Students for Technical Experience)
http://www.iaeste.org/students/ [EN]

• EIA (European Intermodal Association)
http://www.iro.hr/en/infoservice/academic-infoservice/job-openings-and-internships/view-info-341/ [EN]

• AEDH (European Association for the Defence of Human rights)
http://www.aedh.eu/-Work-for-aedh-.html [EN]

• GAAEC (Greek association for atlantic and european cooperation)
http://www.gaaec.org/en/involved/internship [EN]

• Animus Association Foundation
http://www.animusassociation.org/?lang=en [EN]

• AER (Association of European Radios)
http://www.aereurope.org/opportunity-intership-offer/ [EN]

• ENPA (European Newspaper Publishers' Association)
http://www.enpa.be/en/news/enpa-is-seeking-for-an-intern-for-his-secretariat-office-based-in-brussels_54.aspx [EN]

• EADI (European Association of Development Research and training Institutes)
http://www.eadi.org/jobs-internships/ [EN]

• CIMO – Nazioarteko Mugikortasunerako Zentroa. Finlandia
http://www.cimo.fi/programmes/cimo_scholarships [EN]

• Espainiako Merkataritza Ganbara Erresuma Batuan
http://www.spanishchamber.co.uk/es/content/Programa-Graduate-European

6 Erasmus+

6.1. Egitasmoa **178**
6.2. Helburuak **179**
6.3. Erasmus+ egitasmoaren egitura **180**
6.4. Nork har dezake parte? **181**
6.5. Egitasmoan parte hartzen duten herrialdeak **181**
6.6. Ekintzen deskribapena **182**
6.6.A. 1. Ekintza: Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta 182
a. 1. Ekintza. Gazteen trukeak 182
b. 1. Ekintza. Gazteen dinamizatzaileen mugikortasuna: prestakuntza eta sareko lana 183
c. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS) 184
d. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzuaren eskala handiko ekitaldiak (EVS LS) 185
6.6.B. 2. Ekintza: Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana 186
a. 2. Ekintza. Elkarketa estrategikoak 186
b. 2. Ekintza. Gaitasunak indartzeko proiektuak 188
6.6.C. 3. Ekintza. Erreforma politikoei laguntzea 189
a. 3. Ekintza. Elkarrizketa egituratua: topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artea 190
6.7. Erasmus+ hizkuntzak ikasteko laguntza **190**

LABURPENA

Europar batasunaren programa bikaina da ERASMUS+. ERASMUS bekei esker 2.000.000 gaztek baino gehiagok ikasi dute atzerrian. Horrek ezagun bihurtu du. Hainbat dira azpimarrazteko ezaugarriak.

- Atal honetan ERASMUS + programak gazteei begira zer-nolako inplikazio dituen aztertuko dugu eta gazteentzat proposatzen dituen ekintzak.
- Europako boluntario zerbitzura jotzea da gazte batek "bere kasa" egin dezakeen ekintza bakarra. Gazteak bilatzen du interesgarritzat duen proiektua, erakundera jotzen du eta eskabidea egiten du.
- Gazte-trukeak eta elkarketa estrategikoak gazteek hain ezagunak ez dituzten dinamikak dira, nahiz eta euren ahalmen handia izan, hainbat herrialdetako gazteen arteko lankidetza eta trukea garatu baitaiteke.

6 Erasmus+

6.1. PROGRAMA

ERASMUS+ Europar Batasunaren hezkuntza-, prestakuntza-, gazteria- eta kirol-egitasmo berria da, 2014ko urtarrilaren 1etik **2020ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo dena.**

ERASMUS+ egitasmoak **bere baitan hartzen ditu** aurreko **"Etengabeko Prestakuntza** (Erasmus, Leonardo da Vinci, Comenius eta Grundtvig)", **"Gazteak Ekinean", "Erasmus Mundus", Alfa III, Tempus eta Edulink** egitasmoak.

ERASMUS+ egitasmoak 14.774.524 milioi euroko aurrekontua izango du 2014-2020 epealdian, eta horietatik % 10 gazteria-proiektuetara bideratuko da (2016erako aurrekontua: 173,5 milioi €).

Honako hauek dira egitasmoaren bereizgarriak:

- Gaitasunen eta kualifikazioen aintzatespena eta balidazioa
- Nazioarteko dimentsioa
- Hizkuntza-aniztasuna
- Berdintasuna eta inklusioa
- Parte-hartzaileen babesa eta segurtasuna

Egitasmoa indarraldiaren lehen urtean dago, eta, horrenbestez, hainbat gauza aldatuz joan daitezke. Gida honetan egitasmo osoa deskribatuko dugu, baina gazteei gehien bideratzen zaizkien ekintzetan jarriko dugu arreta, gazteak baitira gidaren helburu.

• Egitasmoaren gida

Europako Batzordeak Erasmus+ egitasmoari buruz prestatutako webgunean aurkituko duzu egitasmoari buruzko informazio guztia. Webguneak eta edukiak eguneratu ahala, informazio gehiago aurkituko duzu, bai Gazteaukeraren eta Injuveren webguneetan.
http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/index_es.htm
http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/documents/erasmus-plus-programme-guide_es.pdf
http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-5072/eu/contenidos/noticia/juv_accion/eu_16408/ekinean.html

6.2. Helburuak

Honako hauek dira ERASMUS+ egitasmoaren **helburuak**, gazteriaren arloari dagokionez:

- Gazteen oinarrizko gaitasunen maila hobetzea.
- Gazteen parte-hartzea sustatzea Europako bizitza demokratikoan eta lan-merkatuan.
- Herritartasun aktiboa, kulturen arteko elkarrizketa eta gizarte-integrazioa sustatzea.
- Gazteriaren arloaren eta lan-merkatuaren arteko loturak indartzea.
- Lan-merkatuan hobekuntzak sustatzea, gazteriaren arloko erakundeen eta beste alderdi interesatu batzuen arteko elkarlana areagotuta.
- Toki-mailako, eskualde-mailako eta nazio-mailako politiken erreformak osatzea.
- Ezagutzan eta esperientzian oinarritutako gazte-politikaren garapena babestea.

- Ikaskuntza ez formalaren eta informalaren aintzatespena.
- Gazteen jardueren nazioarteko dimentsioa indartzea.
- Gazteriaren arloko langileek eta erakundeek duten egitekoa indartzea, gazteentzako laguntza-egitura gisa.

6.3. ERASMUS+ EGITASMOAREN EGITURA

Egitasmoak bere baitan hartzen ditu gazteriaren, hezkuntzaren eta kirolaren arloko programak, baina hiru ekintza gakotan egituratuta. Ekintza gako horietan bai ekintza berriak, bai aurretik ezagutzen genituen ekintzak eta programak sartzen dira.

- Egitasmoak bere baitan hartzen ditu gazteriaren, hezkuntzaren eta kirolaren arloko programak, baina hiru ekintza gakotan egituratuta. Ekintza gako horietan bai ekintza berriak, bai aurretik ezagutzen genituen ekintzak eta programak sartzen dira.
- Gazteria. Gazteak Ekinean egitasmoa (trukeak, Europako Boluntario Zerbitzua eta abar).
- Kirolak. EBko kirol-egitasmoa.

Honako hauek dira hiru ekintza gakoak:

1. **Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta.**
2. **Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana.**
3. **Erreforma politikoei laguntzea.**

Gazteriaren esparruan:

1. Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta:

- Gazteen mugikortasuna: gazteen trukeak, Europako Boluntario Zerbitzua eta ekintza berritzaileak.
- Gazteriaren arloan lan egiten dutenen mugikortasuna.

2. Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana:

- Garapenerako, gaitasunak indartzeko eta ezagutzak trukatzeko laguntza, erakundeen arteko elkarte-akordioen bitartez.

3. Erreforma politikoei laguntzea:

- Gazteriaren arloko Europar Batasuneko agenda politikoaren aplikazioa.
- Kualifikazioak garatzeko tresnen aplikazioa (Youthpass).
- Europako eremuko sareentzako eta GKEentzako laguntza.
- Elkarrizketa politikoa Europa- eta nazioarte-mailan eta elkarrizketa egituratua gazteekin (topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artean).

6.4. NORK HAR DEZAKE PARTE?

Norbanakoak: ikasleak, irakasleak, hezitzaileak, lan-praktikak egin dituzten edo helduen heziketako prometan parte hartzen duten pertsonak, boluntarioak, gazteak —13 eta 30 urte bitartekoak, ekintzen arabera—, eta hezkuntzan, prestakuntzan eta gazterian jardunean dauden erakundeetan lan egiten duten pertsonak.

Erakundeak: pertsonen parte-hartzea Erasmus+ egitasmoan erakunde publiko nahiz pribatuen edo pertsonen taldeen bidez gauzatzen da beti.

6.5. EGITASMOAN PARTE HARTZEN DUTEN HERRIALDEAK

- **Europar Batasuneko kide diren 28 Estatuak.**
- **Europar Batasunetik kanpoko herrialdeak:**

Mazedoniako Yugoslaviar Errepublika / Liechtenstein / Suitza / Norvegia / Turkia / Islandia.

- **Auzo-herrialde elkartuak:**

Mendebaldeko Balkanak (1. eskualdea):	**Ekialdeko Elkarteko herrialdeak (2. eskualdea):**	**Hego Mediterraneoko herrialdeak (3. eskualdea):**	**Errusiako Federazioa (4. eskualdea):**
Albania Bosnia-Herzegovina Kosovo Montenegro, Serbia	Armenia Azerbaijan Bielorrusia Georgia Moldavia, Nazioarteko Zuzenbideak aintzatetsitako Errusiako lurraldea	Aljeria Egipto Israel Jordania Libano Libia Maroko Palestina Siria Tunisia	Nazioarteko Zuzenbideak aintzatetsitako Ukrainako lurraldea

6.6. EKINTZEN DESKRIBAPENA

6.6.A. EKINTZA 1: Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta

Ikaskuntzagatiko pertsonen mugikortasunak honako gai hauetan **lagunduko** du:

• Egitasmoan parte hartzen duten herrialdeen artean **ikaskuntza ez formaleko eta informaleko jarduerak** egin nahi dituzten gazteen mugikortasuna.
- Gazteen trukeak eta boluntario-lana, Europako Boluntario Zerbitzuaren bitartez.
- Mugikortasunari buruzko xedapenetan jasota ez dauden ekintza berritzaileak.

• **Gazteen begirale gisa edo gazteen erakundeetan lan egiten duten pertsonen mugikortasuna**, bai eta agintari gazteena ere. Mugikortasun-modu honek prestakuntzako eta sareko laneko jardueren forma har dezake.

• Gazteen begirale gisa edo gazteen erakundeetan lan egiten duten pertsonen mugikortasuna, bai eta agintari gazteena ere, **herrialde elkartuetara** eta herrialde elkartuetatik, bereziki, auzo-herrialdeetatik. .

Egitasmoaren finantziazioari dagokionez, berritasun nagusia joan-etorrien kostuen kalkuluarekin lotuta dago. Joan-etorri bakoitza joan-etorriaren distantzian oinarritutako kuota jakin batzuen bitartez finantzatuta dago. Laguntza eta barne har daitezkeen kostu guztiak egitasmoaren gida, Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoaren webgunean www.oapee.es/oapee/inicio/sepie.html.

a. 1. EKINTZA. Gazteen trukeak

Gazteen trukeei esker, herrialde desberdinetako gazteek elkar ezagutzeko eta elkarrekin bizitzeko aukera izango dute, 5 egunetik 21 egunera. Trukeak dirauen artean, parte-hartzaileek programa bat garatuko dute (tailerren, ariketen, eztabaiden, simulazioen aire zabaleko jardueren eta abarren nahasketa), parte-hartzaileek eurek trukearen aurretik diseinatua eta planifikatua.

Gazteen trukeei esker, gazteek gaitasunak garatzen dituzte, gizarte-gaien inguruan kontzientziatu; kultura eta bizimodu berriak ezagutu, batez ere parekoen arteko ikaskuntzaren bitartez; eta elkartasuna, demokrazia eta antzeko balioak bultzatu.

Ikaskuntza **hezkuntza ez formaleko metodoen bidez gauzatzen da**.

Trukeak Europar Batasunaren barruko eta kanpoko bi erakunderen edo gehiagoren arteko elkarlan transnazionalean oinarrituta daude.

Jarraian zerrendatzen diren jarduerak **EZIN dira Europar Truke gisa diruz lagunduak izateko hautagaiak izan**:

- Ikasketa-bidaia akademikoak
- trukeak, onura ekonomikoa lortze aldera
- turismotzat har daitezkeen truke-jarduerak
- jaialdiak
- opor-bidaiak
- ikuskizunen birak

Jardueraren iraupena	5 egunetik 21 egunera, bidaietarako egunak kanpo
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	Irteerako eta harrerako herrialdeetako 13 eta 30 urte bitarteko gazteak
Parte-hartzaile kopurua eta talde nazionalen osaera	Gutxienez, 16 parte-hartzaile; gehienez, 60 (taldeetako buruak kanpo) Gutxienez, 4 parte-hartzaile taldeko (taldeetako buruak kanpo) Talde nazional bakoitzak taldeko buru bat izan behar du, gutxienez (gazteen trukean gazteei lagun egingo dien heldua, ikaskuntza eraginkorra, babesa eta segurtasuna bermatuko dituena).

b. 1. EKINTZA. Gazteen dinamizatzaileen mugikortasuna: prestakuntza eta sareko lana

Jarduera hau gazteen dinamizatzaileen garapen profesionalerako lagungarria da, honakoen bitartez:

- Gazteen dinamizatzaileen parte-hartzea mintegietan, prestakuntza-ikastaroetan, elkarte-jardueretan eta ikasketa-bisitetan.
- Atzerrian gazteriaren arloan jardunean dagoen erakunde baten jarduera profesionalak behatzea.

Jardueraren iraupena	2 egunetik 2 hilera, bidaietarako egunak kanpo
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	Adin-mugarik gabe. Parte-hartzaileak irteerako nahiz harrerako erakundearen herrialdekoak izan behar dira.
Parte-hartzaile kopurua	50 parte-hartzaile, gehienez ere (hezitzaileak eta bideratzaileak barne), proiektuaren jarduera bakoitzean.

c. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS)

EVSk aukera ematen die 17 eta 30 urte bitarteko gazteei borondatezko zerbitzu batean engaiamendu pertsonala adierazteko, 12 hilabetera arte, egoitzako herrialdea ez den beste batean. **Boluntario-lana ez da ordaintzen, irabazi-asmorik gabekoa da, eta jardunaldi osokoa.**

Jardueraren iraupena	2 hiletik 12 hilera (jarduera hilaren lehen zazpi egunetan hasi behar da) 2 astetik 12 hilera 10 boluntarioko taldeentzat edo aukera murriztuak dituzten gazteentzat
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileaks	17 eta 30 urte bitarteko gazteak, irteerako erakundearen herrialdekoak. Boluntarioek EVS proiektu bakarrean parte har dezakete. **Salbuespena:** gehienez ere 2 hilabete iraun duen EVS proiektu batean parte hartu duten boluntarioek beste EVS proiektu batean parte hartu ahal izango dute.
Parte-hartzaile kopurua	Boluntario 1, gutxienez, eta 30, gehienez ere.

OHARRA: Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzeko informazio gehiago duzu 9. Atalean (Boluntario-lana).

d. 1. EKINTZA. Europako Boluntario Zerbitzuaren eskala handiko ekitaldiak (EVS LS)

Ekintza honek EVSren eskala handiko ekitaldiak **(gutxienez 30 boluntariokoak)** laguntzea du helburu, gazteriaren, kulturaren eta kirolaren arloko Europa- edo mundu-mailako ekitaldien baitan (adibidez, Gazteen Munduko Goi Bilera, Europako Kulturaren Hiriburua, Europako Gazteen Hiriburua, Europako kirol-txapelketak).

Zer jarduerarako da lagungarri ekintza hau?

• EVS: konpromisoa **ordaindu gabeko eta jardunaldi osoko** boluntario-lanaren bitartez adierazteko beta ematen die 17 eta 30 urte bitarteko gazteei, atzerrian eta, gehienez ere, 2 hilabetez. Boluntarioei aukera ematen zaie **Europa- edo nazioarte-mailako ekitaldi baten baitan antolatzen diren jardueretan parte har dezaten**.

• **Jarduera osagarriak:** hitzaldiak, mintegiak eta tailerrak ekitaldia burutu bitartean, boluntario-lana eta, nagusiki, EVS sustatzera bideratuak.

Jardueraren iraupena	14 egunetik 2 hilera, bidaietarako egunak kanpo.
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	Egitasmoko herrialde bateko (proiektua egiten den herrialdea ez dena) edo elkartutako herrialde auzo bateko 17 eta 30 urte bitarteko gazteak. Boluntario bakoitzak EVS LS proiektu bakarrean har dezake parte Erasmus+ egitasmoaren indarraldian.
Parte-hartzaile kopurua	Gutxienez, 30 boluntario.

6.6.B. B 2. EKINTZA: Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana

Ekintza hau honetarako izango da lagungarri:
1. Elkarte estrategikoak, ekimen bateratuak garatu eta abiarazteko, **gazteen ekimenak eta herritartasun aktiboa, gizarte-berrikuntza**, bizitza demokratikoan **parte-hartzea** eta enpresa-izpiritua sustatzen duten proiektuak barne, parekoen arteko ikaskuntzaren eta esperientzien trukearen bitartez.

2. Honako alderdi hauek bultzatuko dituzten plataforma informatiko laguntzaileak:
- parekoen arteko ikaskuntza,
- alderdi hauetan oinarritutako gazteriaren arloko lana:
  - ezagutzan
  - mugikortasun birtualean, eta
  - praktika egokien trukean.

3. Gaitasunen garapena eta indarketa eta ezagutzen trukea, **nagusiki parekoen arteko ikaskuntzaren bidez, egitasmoko herrialdeetako eta elkartutako herrialdeetako erakundeen artean elkarte-akordioak sinatuta.**

a. 2. EKINTZA. Elkarketa estrategikoak

Elkarte estrategikoak (**Strategic Partnership** delakoak) **elkarlanean aritzeko** aukera ematen die hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren arloetan jardunean dabiltzan erakundeei, **enpresei, administrazio publikoei** eta hainbat sektore sozioekonomikotan jardunean dauden **gizarte zibileko erakundeei** elkarlanean aritzeko, honako helburu hauek lortze aldera:
- Irakaskuntzaren, prestakuntzaren, ikaskuntzaren eta gazteen dinamizazioaren arloetan kalitate-maila altuak lortzeko praktika berritzaileak ezartzea.
- Instituzioak modernizatzea.
- Berrikuntza soziala sustatzea.

Gazteriaren arloan gauza daitezkeen jardueren tipologia:

- Gazteen dinamizazioaren arloko elkarlan-jarduerak
- Gaitasunen aintzatespena eta balidazioa
- Gazteriaren arloko ekimen transnazionalak

Elkarte estrategikoetan diruz lagunduko diren prestakuntza-, ikaskuntza- eta irakaskuntza-jarduketak:

- Ikasleen, hezitzaileen, ikasle helduen eta gazteen mugikortasun mistoa (mugikortasun fisikoa: 5 egunetik 2 hilera)

Mugikortasun fisikorako tarte txiki bat edo batzuk (guztira, 2 hilabete, gehienez ere) eta **mugikortasun birtuala konbinatzen dituzten jarduerak** (adibidez, informazio- eta komunikazio-teknologiak elkarlanerako gune gisa erabiltzea, bideokonferentziak, gizarte-komunikabideak eta abar, mugikortasun fisikoaren emaitzak osatze edo luzatze aldera).

- Gazteen dinamizatzaileen mugikortasuna (2 hiletik 12 hilera)

Gazteen dinamizazio-lana beste herrialde batzuetan nola gauzatzen den jakiteko aukera ematen die dinamizatzaileei. Hartara, gaitasun profesional, pertsonal eta interkulturalak indartzen dira.

Gazte-eragileek atzerrian lan egiteko aukera dute 2 hiletik 12 hilera, harrerako erakundearen eguneroko lanean aktiboki parte hartuta eta, aldi berean, **profila aberastu egiten dute**, landa-laneko profesional gisa.

- Gazteen ekimen transnazionalak

Elkarte Estrategikoen bidez Gazteen Ekimen Transnazionalak laguntzen dira, programako herrialde desberdinetako gazteen **bi taldek edo gehiagok garatuak eta gizarte-konpromisoa eta ekintzaile-sena sustatzera bideratuak**.

Gazteek hasi, diseinatu eta gauzatutako proiektuak dira gazteen ekimenak. Horrela, aukera ematen zaie euren ideiak probatzeko, **proiektuen plangintzan eta ezarpenean zuzenean eta aktiboki parte hartzeko beta** emango dieten ekimenen bitartez. Gazteen ekimen batean parte hartzeak ikaskuntza ez formalerako esperientzia garrantzitsua dakar.

Ekimen transnazionala gauzatzen duten gazteek **begirale** baten —gazteekin lanean esperientzia duen pertsona baten— laguntza izan dezakete.

Begiraleak ez du ekimenean parte hartuko, baina gazteen taldeari lagunduko dio ekimena prestatzen, burutzen eta ebaluatzen, eta ikaskuntza-prozesua bultzatuko du.

Parte-hartzaile kopurua	Gutxienez egitasmoko 2 herrialdeetako 2 erakunde (gazteria)
Jardueraren iraupena	6 hiletik 2 urtera. Aparteko kasuetan, Elkarte Estrategiko baten iraupena 3 urtera arte luza daiteke, onuradunak hala eskatzen badu eta eskumena duen Agentzia Nazionalaren oniritzi. Kasuotan, diru-laguntzaren zenbateko osoa ez da aldatuko.

b. 2. EKINTZA. Gaitasunak indartzeko proiektuak

Elkarlan-proiektu transnazionalak dira, programako herrialdeetan eta munduko beste herrialde elkartuetan gazteriaren arloan jardunean dauden erakundeen arteko **alde anitzeko elkarteetan oinarrituak**. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloetako eta bestelako sektore sozioekonomikoetako erakundeek ere parte har dezakete.

Proiektuaren iraupena	9 hiletik 2 urtera.

Jarduerak:

- Elkarrizketa politikoa, elkarlana, sareko lana eta gazteriaren arloko praktiketako trukeak sustatzea: mintegiak, konferentziak, tailerrak eta topaketak.
- Gazteriaren arloko eskala handiko ekitaldiak.
- Informazio- eta kontzientziazio-kanpainak.
- Gazteen dinamizazioa komunikatzeko (hedatzeko) forma berriak sortzea, bereziki honakoen bitartez: ikaskuntza-material ireki eta malguak, elkarlan birtuala eta hezkuntza-baliabide irekiak.

- Informazioa, komunikazioa eta media direlakoetako tresnak garatzea.
- Gazteen dinamizaziorako metodo, material eta tresna berriak garatzea, bai eta curriculum-materialak gazteen dinamizaziorako, prestakuntza-moduluak eta Youthpassen moduko agiri gisako tresnak.

6.6. C 3. EKINTZA. Erreforma politikoei laguntzea

Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	• GKEak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, elkarteak • Toki-mailako erakunde publikoak • Europa-mailako gazteen GKEak, egitasmoaren herrialdeetako batean kokatuta daudenak. Elkartutako herrialde auzoetako erakundeen parte har dezakete, baina ezin dute eskaririk aurkeztu.

Jarduerak:

- Europar Batasunak gazteriaren arloan duen agenda politikoa aplikatzea, Koordinazio Metodo Irekia baliatuta.
- Egitasmoko herrialdeetan, kualifikazioen aintzatespenerako eta gardentasunerako EBko tresnak aplikatzea, bereziki, Youthpass.
- Europar Batasunaren mailako sareei eta Europako gazteen esparruko GKEei laguntzea.
- Elkarrizketa politikoa Europako alderdi interesatuekin eta elkarrizketa egituratua gazteekin.
- Europako Gazteen Foroa, gazteriaren arloko lana garatzeko baliabideen zentroak eta Eurodesk sarea.
- Herrialde elkartuekin eta nazioarteko erakundeekin politikei buruzko elkarrizketak egiteko laguntza.

a. 3. EKINTZA. Elkarrizketa egituratua: topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artean

- Gazteen eta arduradun politikoen arteko topaketa nazionalak eta mintegi transnazionalak, elkarrizketa egituratuaren edo Gazteriaren Estrategi Europarraren alderdi garrantzitsuei buruz.
- Europar Batasunaren lehendakaritza duen Estatu kidean seihileko bakoitzean antolatzen diren Youth Conference direlakoak prestatzeko topaketa nazionalak eta mintegi transnazionalak.
- Europako Gazteriaren Astean antolatzen diren jarduerekin lotuta dauden gazte-politikei buruzko eztabaidak eta informazioa sustatzen duten ekitaldiak.
- Gazteei kontsultak egitea (sareko kontsultak, iritzi-inkestak), gazteek bizitza demokratikoan parte hartzeari lotutako premiak ezagutze aldera.
- Gazteen eta arduradun politikoen arteko topaketak eta mintegiak, informazio-ekitaldiak edo eztabaidak, gazteek bizitza demokratikoan parte hartzeari buruz.
- Instituzio demokratikoen funtzionamendua eta politikariek instituzio horietan betetzen duten papera simulatzen duten ekitaldiak.

6.7. ERASMUS+ HIZKUNTZA IKASTEKO LAGUNTZA

Hizkuntzak online ikasteko laguntzak (Online Linguistic Support – OLS) Erasmus+ mugikortasun-programaren parte hartzaileei hizkuntzak ikasten laguntzen die. **OLS** delakoak Erasmus+ epe luzerako mugikortasunean (1. ekintza nagusia) parte hartzen duten pertsonei aukera ematen die atzerrian ikasteko, lan egiteko edo boluntario-lanak burutzeko erabiliko dituzten atzerriko hizkuntza-gaitasunak balioztatzeko. Horrez gain, hizkuntza-ikastaro bat egin ahal izango dute online beren gaitasunak hobetze aldera.

OLS ondorengo hizkuntzetan dago erabilgarri: alemana, ingelesa, gaztelania, frantsesa, italiera eta nederlandera.

- OLS http://erasmusplusols.eu/es/
- Maila-frogak: http://erasmusplusols.eu/es/prueba-de-nivel-2/
- Hizkuntza-ikastaroak: http://erasmusplusols.eu/es/cursos-de-idiomas/

7 Hizkuntzak

7.1. Hizkuntzak ikasteko **193**
7.1.A. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua 194
7.1.B. Ingelesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 196
7.1.C. Frantsesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 199
7.1.D. Alemana. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 201
7.1.E. Italiera. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 203
7.1.F. Portugesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 204
7.1.G. Europako erreferentzia-esparruko baliokidetasun-taula 205
7.2. Baliabideak **207**
7.2.A. Online hiztegiak eta itzultzaileak 207
7.2.B. Maila-testa 208
7.2.C. Aurrez aurreko ikastaroak: hemen eta atzerrian 209
7.2.D. Txatak eta hizkuntza-trukeak 211
7.2.E. Online ikasteko tresnak eta ikastaroak 212
7.2.F. Gizarte sareak 216
7.2.G. Online irakasleak 217
7.2.H. App-ak, smartphone-ak eta tablet-ak 218
7.2.I. Podcast-ak 221
7.2. J. Beste dispositibo batzuk: telebista, irratia, kontsolak 222
7.2.K. Hizkuntzak filmen, telesailen eta bideoen (youtube) bidez ikastea 223
7. 2.L. Hizkuntzak musikaren bidez ikastea 225
7. 2.M. Bekak eta dirulaguntzak 226
7. 2.N. ERASMUS+ Hizkuntzak online ikasteko laguntza 227

7.3. Hizkuntzak eta enplegua **228**
7.3.A. Atzerrian gaztelania irakastea 228
7.3.B. Lanean nabilen bitartean hizkuntzak ikasteko 230
7.3.C. Eskaintzen adibideak 231
7.4. Agentziak: hizkuntzak eta gehiago **233**

LABURPENA

Europako lan-merkatuan sartzeko funtsezkoa da hizkuntzak jakitea. Gero eta ugariagoak dira eskura ditugun aukerak eta baliabideak, gero eta gehiago ikasteko modu askotarikoak: zure kasa jardutea, akademietan, trukeen bitartez, prozesu alternatiboei ekinda edo atzerrian eskainitako ikastaroetara bertaratuta. Hona aukera horiei begira aurki ditzakegun baliabideak:

- Zure lanbidean egokiro jarduteko maila aproposa lortzea funtsezkoa da. Aztertu ondo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua eta hizkuntza bakoitzean proposatutako ziurtagiri baliokideak zeintzuk diren. Erabaki zein den eskuratu nahi duzun maila eta zeinek ziurtatzea nahi duzun.
- Bai ikastaro bat egiteko asmotan bazabiltza, bai zure curriculumaren osatze-lanetan badiharduzu, zure jakite-maila zertan den zehaztu behar duzu. Egizu autoebaluazio-proba bat.
- Milaka dira hizkuntzak ikasteko aukerak; hortaz, aitzakiarik ez. Aukerok zure gustuei, zure bizimoduari, zure mailari eta zure ahalmen ekonomikoari egokitzen dira. Trukeak, gizarte-sareak, abestien eta jolasen lanketan oinarritutako ikastaroak, edozein ordutegitan irakasteko prest dauden irakasleak… horiek guztiak txertatu ditugu proposamen-zerrendan. Hautatu gustukoen duzun sistema eta eutsi!
- Zalantza barik, ikasteko modurik onena beste herrialde batean aritzea da. Atzerrian zure beharretara egokitutako ikastaroak antolatzen dituzten agentzien zerrenda luzea eskainiko dizugu.
- Ez dago denon esku atzerrira hizkuntzak ikastera joatea, diru-kontuak direla eta. Eman begiratu bat Beka eta laguntzei dagokien pasarteari, eta kontu egin ezarritako epeei.
- Hizkuntzak eta enplegua atala garrantzi handikoa da, baldin eta buruan badarabilzu lanean jardutea zure egonaldia diruz laguntzeko. Baliabide gomendagarria da.
- Gaztelania bigarren hizkuntza gisa irakastea lan-aukera interesgarria da eta eskari handia du atzerrian.

7 Hizkuntzak

7.1. HIZKUNTZAK IKASTEKO

Hizkuntzak pertsona guztientzat dira baliagarri, adina eta bakoitzak hizkuntzak ikasteko dituen arrazoiak edozein izanik ere. Oztopo pertsonalak eta nazionalak gainditzen laguntzen dute hizkuntzek, eta europarrei elkarren artean komunikatzeko aukera ematen diete, baita lankidetzan aritzeko, lan egiteko, ikasteko eta bidaiatzeko aukera ere.
Europar Batasunak Europako beste hizkuntza batzuk ikastera animatu nahi ditu Europako herritarrak, merkatu bakarraren barruan mugikortasun profesionala eta pertsonala errazteko eta kulturen arteko harremanak eta elkar ulertzea ahalbidetzeko.

Espainia da –eta ostetik Hungaria eta Bulgaria baino ez daude- 25 eta 64 urte bitartean EBn atzerriko hizkuntza bat bederen hitz egiten dakitela adierazten duten heldu gutxien duen herrialdeetako bat. % 51k baino ez daki beste hizkuntza bat, Europako batez bestekotik oso urrun (%66), Eurostat estatistika-bulegoak 2014an argitara emandako datuen arabera. Ingelesa da Espainian gehien erabiltzen den atzerriko hizkuntza, EBko herrialdeetan gertatu bezala, Baltikoko herrietan (errusiera), Eslovakian (txekiera) eta Luxenburgon (alemana) izan ezik.

Espainian ingelesa hitz egiten dutenen artean, % 40k dio haien maila ertaina dela, % 42k ontzat dauka eta bakarrik % 19k irizten dio bikain.

Lana eskuratzeko hizkuntzak jakitearen garrantzia funtsezkoa da. ADDECOk egindako azken ikerketaren arabera, Espainian atzerriko hizkuntza bat jakiteak bide ematen du eskainitako lanpostuen heren bat eskuratzeko. Lan eskaintzen % 90ek ingelesa jakitea galdegiten dute; alemanaren kasuan, berriz, % 7,2 da eskakizun-maila.

Nola ikasi

Hizkuntzak ikasteko esperientzia atsegina eta oso esker onekoa izan daiteke. Bakoitzaren premietara eta eskuragarri duen denborara egokitutako metodoa aurkitzea da garrantzizkoena.

Aukera bat baino gehiago daude:
1. Ikasi zure erritmoan: hainbat hizkuntza bakarka ikasteko ikastaroak daude, askotariko ikus-entzunezko euskarri eta testu-liburu biltzen dituztenak.

2. Irratia eta telebista: kate askok hizkuntza-ikastaroak eskaintzen dituzte.

3. Internet bidez: gero eta gehiago dira hizkuntza-eskolak eskaintzen dituzten webguneak, txatak, gizarte-sareak, aplikazioak eta abar, askotan soinu, irudi eta guzti.

4. Irakasle batekin: ikasle talde baten barruan eskolak jasotzeak baditu alde on batzuk; besteak beste, ikasleak elkarren artean animatzen dira, eta irakasleak gidatu egiten ditu beren premia zehatzen arabera.

5. Lanean: gero eta enpresa gehiagok onartzen dute hizkuntzak funtsezkoak direla negozioen arrakasta bermatzeko, eta enpresa handi askok doako edo diruz lagundutako ikastaroak eskaintzen dituzte.

6. Binaka: binaka ikasteko, jatorrizko bi hiztunek, hizkuntza bakoitzeko banak, komunikatu behar dute elkarren artean, posta elektronikoz, telefonoz eta abar.

7.1. A. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua: ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa (HEEEB) Europako Kontseiluak garatutako esparru estandarra da, hizkuntza bateko ulermen-, idazmen- eta mintzamen-mailak neurtzeko nazioarteko eredua izatea lortu nahi da.

Mailak

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua **maila berberak** ezartzen ditu hizkuntza guztietarako, eta, horiei esker, errazago erka edo homologa daitezke erakunde ziurtatzaileek emandako tituluak.



Iturria: Red de plurilingüismo de Sevilla. www.cepcastilleja.org

Garatu behar diren gaitasunak

Maila bakoitzean, ulermenari, mintzamenari eta idazmenari dagokienez, ikasleak gainditu behar dituen gaitasunak zehazten ditu Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak.

Ulermenean entzumena eta irakurmena hartzen dira barne; mintzamenean, aldiz, ahozko interakzioa eta ahozko adierazmena; azkenik, idazmenari dagokion kategorian idatzizko adierazmenerako trebetasuna neurtzen da.

7.1.B. Ingelesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

Ingeleseko ziurtagiriak ematen dituen erakunde ugari dago.

• Espainian gehien ezagutzen denetako bat **Cambridgeko Unibertsitatea** da http://www.cam.ac.uk/ Cambridge ESOL Exams direlakoak antolatzen dituena. Sei ziurtagiri daude, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratukoen parekoak, oinarrizko mailatik (A1) altuenera (C2) doazenak. Ziurtagiri horrek aintzatespen zabala du nazioartean, unibertsitateetan, negozio- eskoletan eta enpresetan.

Azterketa egin nahi baduzu, Espainian hainbat zentro dago horretarako. Horietako batzuetan matrikula zaitezke, aldez aurretik inolako prestakuntzarik egin beharrik gabe. Gainerakoak akademiak eta hizkuntza-eskolak dira, aldez aurreko azterketak antolatzen dituztenak, gero ikasleei azterketak egiteko. Tasak 60 eurotik (mailarik apalena) 200 eurora (mailarik aurreratuena) doaz.

• **Cambridge Young Learners (YLE)** delakoa 7 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago, eta hiru mailatan banatuta dago: Starters, Movers eta Flyers. Mailetako bakoitzean irakurmen-, idazmen, entzumen- eta mintzamen-ariketak daude. Azterketa horiei Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan dagozkien mailak A1 eta A2 dira. Mahai gaineko ordenagailurako, ordenagailu eramangarrirako eta zenbait tabletetarako bertsioa erabilgarri.

• **Key Englisth Test (KET)** delakoa A2 mailaren parekoa da eta Preliminary English Test (PET) delakoa, B1 mailaren parekoa. First Certificate in English (FCE) izenekoa ere B1 mailari dagokio.

• **Certificate in Advanced English (CAE)** titulua C1 mailarekin datorbat. Ingelesaren ezagutzan maila altua adierazten du ziurtagiri honek; ikasleak arrakastaz lortzen du eguneroko bizitzako egoera gehienetan komunikatzea. Enpresak eta unibertsitateak ziurtagiria onartzen hasita daude.

• **Certificate of Proficiency in English (CPE)** delakoa, azkenik, C2 mailaren parekoa da, eta eskala profesional altuagoetan garatu nahi dutenei zuzendurik dago.

Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen http://www.cambridgeenglish.org/es/exams-and-qualifications/proficiency/exam-dates/

Beste ziurtagiri batzuk ere badaude:

- **BEC (Business English Certificates),** interesatuak negozioen testuinguruan duen trebetasuna balioesteko hiru azterketa (Preliminary Vantage eta Higher).

- **ILEC (International Legal English Certificate)**, abokatuei eta Zuzenbideko ikasleei zuzendua.

- **ICFE (International Certificate in Financial English)**, kontulariei eta finantzaren arloko profesionalei zuzendua.

- **IELTS (International English Language Testing System)**, ingelesez ikasi edo lan egiteko.

- **CELTA (Certificate in English Language Teaching to Adults)**, beste hizkuntza batzuetako hizlariei ingelesa irakasteko.

- **DELTA (Diploma in Teaching English to Speakers of other Languages)**, aurrekoaren xede bera duena.

- **TOEFL (Test of English as Foreign Language)** delakoaren bitartez ingelesa unibertsitate- mailan erabili eta ulertzeko gaitasuna neurtzen du. Ziurtagiri hori ingelesez mintzatzen den unibertsitate askotan eskatzen da. IELTS Ameriketako ingelesera bideratuta dago; TOEFL Britainia Handiko ingelesera.



Iturria: www.aprendemas.com



Iturria: www.cambridgeenglish.org/

7.1. C. Frantsesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

Frantzian aintzatetsitako **diploma- eta ziurtagiri-aukera zabala** dago gaur egun. Hori dela-eta, horietako bat hautatzeko garaian, kontuan hartu beharko ditugu gure egungo eta geroko premiak.

DILF, DELF eta DALF diplomak Frantziako Hezkuntza Ministerioak aintzatesten ditu, atzerritarrek frantsesez duten trebetasuna justifikatzeko. Centre International d'Études Pédagogiques erakundeak (www.ciep.fr) prestatzen ditu ziurtagiri hori eskuratzeko azterketak, Frantzian nahiz Espainian egin daitezkeenak.

- El Diplôme initial de langue française **(DILF)** oinarrizko mailaren ikaskuntza-ziurtagiria da, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 mailari dagokiona.

• El **Diplôme d'Études en Langue Française (DELF)** hainbat mailatan bereizten da, A1etik B2ra, beheko koadroan ikus daitekeen bezala.

CECRL	DELF	Utilisateur
A1	DELF A1	élémentaire
A2	DELF A2	
B1	DELF B1	indépendant
B2	DELF B2	

Iturria: www.ciep.fr/

• El **Diplôme Approfondi de Langue Française (DALF)** ostera, diploma aurreratua da, unibertsitateetarako sarbidea ematen duena.

Gainera, **Test de Connaisance du Français (TCF)** Frantziako Hezkuntza Ministerioaren azterketa ofiziala da, atzerritarrak frantsesez duen trebetasuna aintzatesten duena. Komunikazio profesionalerako edo pertsonalerako erabiltzen den hizkuntzaren ebaluazio orokorra da. Kalifikazioek Europako Kontseiluak zehaztutako sei mailako eskalako pareko balioa ematen dute. Oinarrizko azterketak 80 galdera ditu, hautazko hiru atalekin. Galdera horiei esker, ahozko, idatzizko nahiz egiturazko trebetasunak ebaluatzen dira.

Edonor aurkez daiteke nahi duen azterketara, bai eta, saio berean, **diploma bat baino gehiagotara aurkeztea ere**.

Izen-ematea zuzenean egiten da azterketa-tokietan, bai Frantzian, bai Espainian. Ordaindu beharreko diru-zenbatekoa tokian-tokian aldatzen da.

Bestalde, Parisko Merkataritza eta Industria Ganberak antolaturiko azterketak egin eta gero, Français des Affaires et des Professions erakundeak ematen dituen zenbait ziurtagiri eta diploma hartzen dira barne. Negozioetara eta turismoarekin, ostalaritzarekin, zientziarekin, teknologiarekin edo legeekin lotutako lanbideetara bideratuta daude, Negozioetarako hiru diploma daude eta lau espezializatu.

Hona hemen Hezkuntza Ministerioak aintzatetsi eta Frantziako unibertsitateek onartutako beste diploma batzuk: **Certificat Pratique de Langue Française (CPLF)**, **Diplôme d'Études Françaises (DEF) eta Diplôme Supérieur d'Études Françaises (DSEF)**. Era berean, Alliance Françaisek (http://www.alliancefr.org/es) emandako

CEFP1, CEFP2, DL eta DSLCF diplomak Europako Kontseiluaren mailekin parekatuta daude eta mundu osoan aintzatetsita.

Azkenik, **Business Language Testing Service (BULATS)** azterketen zerbitzua da, sei mailatan banatuak. Ordenagailuz zein idatziz egin daitezke probak, eta ikasleak negozioetako hizkuntzan dituen trebetasunak neurtzen ditu. Ez dago Frantzian erabat aintzatetsita, baina mundu osoan onartzen da.

7.1. D. Alemana. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

Alemaneko titulazio ofizialak bat datoz Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratukoenekin, hasiberrien A1 mailatik maila gorenera, C2ra, alegia.

- **ESD1 o Start Deutsch 1 (A1)** delakoan 60 ikastordutik 150era hartzen dira barne. Azterketa hori gainditzeak zera esan nahi du: eguneroko egoeretako galdera, argibide eta mezu soilak ulertzen direla.
- **SD2 o Start Deutsch 2 (A2)** delakoan 150 ikastordutik 260ra hartzen dira barne, eta ikasleak eguneroko elkarrizketetako informaziorik garrantzizkoena ulertzen duela, galdetegiak bete ditzakeela edo elkarrizketa bateko alderdiren bat eztabaida dezakeela ziurtatzen du.
- **ZD o Zertifikat Deutsch (B1)** delakoan 260 ikastordutik 490era hartzen dira barne. Azterketa gainditu gero, ikaslea gai da kazetaritza-testuak ulertzeko, zerbaiti buruzko informazioa emateko, zerbait proposatzeko edo adosteko.
- **Goethe-Zertifikat (B2)** delakoaren bitartez, zera adierazten da: ikaslea gai dela gai zehatzen eta abstraktuen ideia nagusiak ulertzeko, testu-aukera zabal bat ulertzeko eta idatziz argiro eta egitura bati jarraituta adierazteko.
- **TestDaf o Test Deutsch als Fremdsprache (Alemana Atzerriko Hizkuntzatzat dutenentzako Ziurtagiria B2-C1)** delakoa aurkituko dugu. Hizkuntza ikasteko 525 eta 750 ordu eman izana hartzen du barne. Ziurtagiriak honako hau adierazten du: ikaslea gai dela informazio garrantzitsua ateratzeko, mezu osoak ulertzeko eta elkarrizketak edo diskurtso zientifikoak konprenitzeko. Gainditzeko, berariazko ikastaro trinkoa egitea gomendatzen da.
- **Goethe Zertifikat (C1)** cdelakoak alemana 600 eta 750 ikasi izana hartzen du barne. Zera egiaztatzen du: ikaslea gai dela testu espezializatuak ahaleginik gabe uler ditzakeela. Era berean, gai dela ahoz bat-batean eta erraztasunez adierazteko eta pentsamenduak eta iritziak zehaztasunez emateko.

• **ZOP o Zentrale Oberstufenprüfung (C2)** delakoak honako hau adierazten du: 750 eta 900 bitarteko ordu-kopurua eman dela alemana ikasten. Ikasleak alemanez irakurtzen eta entzuten duen guztia esfortzurik gabe ulertzen duela egiaztatzen du.

• **KDS o Kleines Deutsches Sprachdiplom** delakoak ZOP-ren baldintza berberak ditu, baina bideratuago dago literaturara. Azterketa hauek maiatzean eta azaroan izan ohi dira.

• **GDS o Grobes Deutsches Sprachdiplom** sdelakoak alemaneko 900 ikastordu hartzen ditu barne. Ziurtagiri honen bitartez, zera egiaztatzen da: ikasleak ezagutza bikainak dituela alemanez eta gai dela testu literarioak eta zientifikoak aztertzeko.

• Goethe-Institut-eko hizkuntza ikastaroak eta azterketen mailak

MCER* maila	Gazteak		Unibertsitate ikasketak	Iana
A1	SD1	Fit 1		BULATS
A2	SD2	Fit 2		BULATS
B1	B1	B1		BULATS
B2	B2		TestDaF	BULATS
C1	C1		TestDaF	BULATS
C2	C2: GDS		C2: GDS	BULATS

Iturria: https://www.goethe.de/en/index.html

Alemaniako unibertsitate batean ikasteko, **Unibertsitatean sartzeko Alemaneko Azterketa (DSH)** egitea eskatzen da. Ziurtagiri hori eskuratzeko probek ahozko atala eta idatzizkoa dute. Idatzizko atalak zati hauek ditu: entzumena, idatzizko ulermena eta testu bat idaztea. Unibertsitate bakoitzak bere DSH azterketa prestatzen du, baina Alemania osorako arauen mende daude denak.

Azterketa hori gainditzeko, ahozko eta idatzizko probaren bi heren gainditu behar dira. Ikasle bakoitzak bi bider baino ezin du azterketa hau egin, beraz, gomendagarria da Alemaniako goi-mailako irakaskuntza-erakundeek antolatutako prestakuntza-ikastaroa egitea. Ikastaro hori doakoa da ia, ikasleak izena emateko kuota txiki bat baino ez baitu ordaintzen.

7.1. E. Italiera. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

Hainbat dira italieraren ziurtagiriak ematen dituzten **erakundeak:**

- **Dante Alighieri italiar hizkuntzaren proiektua (PLIDA)**
  1889an sortu zen **Dante Alighieri erakundea**. Berak ematen du PLIDA ziurtagiria (Progetto Lingua Italiana Dante Alighieri), italiar hizkuntzaren gaitasuna egiaztatzeko titulu ofiziala. PLIDA ziurtagiria Lan eta Gizarte Politiken Ministerioak onartuta dago. Europako Kontseiluak ezarritako sei mailen eskalari egokitzen zaio ziurtagiri hau, italieraren gaitasuna atzerriko hizkuntza gisa egiaztatzen duena. PLIDAren A1 maila bat dator Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 mailarekin. Eta mailaz mailako baliokidetasunak ezartzen dira: gorena PLIDA C2 da, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C2ri dagokiona.
  Horretaz gainea, PLIDAk bi ziurtagiri berezi ematen ditu:
  - **PLIDA JUNIORES**, deritzona, 13 eta 18 urte bitarteko gazteei begirakoa. Gazteek eurek ezagunak dituzten testuingurutan oinarrituta dago (eskola, kirola, aisia, eta abar). A1etik C1era.
  - **PLIDA COMMERCIALE**, merkataritza-gaien inguruan italiera darabilenari egokitutakoa. Esparru Bateratuan aurreikusitako hiru mailen gaitasuna dago aurreikusita: B1, B2 eta C1.

Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen http://plida.it/

- **Perugiako Unibertsitateko azterketak (CELI)**
  Universita per Stranieri di Perugia erakundeak atzerritarrei zenbait test eta azterketa-mota eskaintzen dizkie, ikastea eta lana ezaugarritzat dauzkan testuinguru bateko hautagaien italieraren gaitasuna ziurtatzen duena. Ministero della Pubblica Istruzione erakundeak onartuta daude ziurtagiri hauetako batzuk, eta Italiako unibertsitateetan sarrera egiteko balio dute (CELI 3), edo italiera irakasteko estatuaren mendeko eskola eta institutuetan (CELI 5).
  Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan oinarritzen dira, eta bost mailek badute parekotasuna: CELI 1ek A2rekikoa, CELI 2k B1ekikoa, CELI 3k B2rekikoa, CELI 4k C1ekikoa eta CELI 5ek C2rekikoa.

Merkataritza arloko Italieraren ezagutza-ziurtagiriak (CIC). Hauek ere Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan dute oinarria, eta langai dute enpresen eta negozioen testuingurua. Bi maila bereizten dira CIC ziurtagirietan: CIC1 (B1) eta CIC2 (C1).
Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen: www.cvcl.it

- **Italiako Hizkuntza Akademiaren azterketak**
  Italiako Hizkuntza Akademia (AIL) elkargo profesionala da, italiera atzerriko hizkuntza gisa, eskola, erakunde eta irakaskuntzako adituak biltzen dituena.
  Hona hemen banatzen dituzten diplomak:
  - **DELI** edo **Diploma Elementare di Lingua Italiana** Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan A2.
  - **DILI** edo **Diploma Intermedio di Lingua Italiana** Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan B1 eta B2.
  - **DALI** edo **Diploma Avanzado di Lingua Italiana** Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan C1 eta C2.
  - **DILC** eta **DALC** edo **Diploma Commerciale di Lingua Italiana** Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan B1 eta C1

Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen:
www.acad.it.

7.1. F. Portugesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

1999an ezarri zen Portugesa Atzerritar Hizkuntzatzat kalifikatzeko sistema (PLE). Camões Institutuaren, Portugalgo Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren eta Lisboako Unibertsitatearen akordioaren ondorengoa izan zen. Sistema horrek ahalbidetzen du PLE delakoak ezarritako bost mailak garatzea, aintzatestea eta kudeatzea.

- **CIPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatzat: Hasierako Ziurtagiria, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan A2.
- **DEPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatzat: Oinarrizko Diploma, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan B1.
- **DIPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatzat: Diploma Ertaina, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan B2.
- **DAPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatzat: Diploma Aurreratua, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan C1
- **DUPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatzat: Unibertsitate Diploma, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan C2.

Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen:
http://www.letras.ulisboa.pt/pt/

7.1. G. Europako erreferentzia-esparruko baliokidetasun-taula

EQUIVALENCIAS MARCO DE REFERENCIA EUROPEO						
	A1	**A2**	**B1**	**B2**	**C1**	**C2**
Alemán	Start Deutsch 1, Fit in Deusch 1	Start Deutsch 2, Fit in Deusch 2	Zertifikat Deutsch (ZD), Zertifikat Deutsch für Jugendliche (ZDj)	TestDaF, Zertifikat Deutsch für den Beruf (ZDfB)	TestDaF	Großes Deutsches Sprachdiplom (GDS)>
Catalán		Certificat de nivell bàsic de català	Certificat de nivell elemental de català	Certificat de nivell intermedi de català	Certificat de nivell suficiència de català	Certificat de nivell superior de català
Francés	DILF, DELF A1	DELF A2	DELF B1	DELF B2	DALF C1	DALF C2
Danés		Prøve i Dansk 1	Prøve i Dansk 2	Prøve i Dansk 3	Studieprøven	
Español			Diploma de Español (Nivel Inicial)	Diploma de Español (Nivel Intermedio)		Diploma de Español (Nivel Superior)
Euskera			PL1 - IVAP y Osakidetza, Lehenengo maila/Nivel 1 HABE Intermedio	PL2 - IVAP y Osakidetza PL- Ertzaintza, Bigarren maila/Nivel 2 HABE Avanzado	Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), PL3 -IVAP y Osakidetza, PL 2- Ertzaintza, Hirugarren maila/Nivel 3 HABE	Laugarren maila/Nivel 4 HABE
Finés		Suomen kieli perustaso 1	Suomen kieli perustaso 2-3, keskitaso 3	Suomen kieli perustaso 4-5, ylintaso 5	Suomen kieli ylintaso 6	Suomen kieli ylintaso 7-8
Gallego		Certificado de lingua galega (Celga) 1	Certificado de lingua galega (Celga) 2	Certificado de lingua galega (Celga) 3	Certificado de lingua galega (Celga) 4	Certificado de lingua galega (Celga) 5
Griego			Bebaevsh Ellhnomaqeiai (Veveosi Elinomathias)	Elinomathias Epipedo Eparkias		

EQUIVALENCIAS MARCO DE REFERENCIA EUROPEO						
	A1	**A2**	**B1**	**B2**	**C1**	**C2**
Inglés	PET, GESE 2	KET, YLE, BULATS 1, ISE 0, GESE 3 y 4	PET, BEC 1, BULATS 2, ISE I, GESE 5 y 6	FCE, BEC 2, BULATS 3, ILEC, ISE II, GESE 7,8 y 9	CAE, BEC 3, BULATS 4, ILEC, ISE III, GESE 10 y 11	CPE, BULATS 5, ISE IV, GESE 12
Italiano	DELI, PLIDA A1	CELI 1, PLIDA A2	DILI, CELI 2	DALI, CELI 3, PLIDA B2	DALC, CELI 4, PLIDA C1	CELI 5, PLIDA C2
Luxem-burgués		Zertifikat Lëtzebuergesch als Friemsprooch (XLaF)	Éischten Diplom Lëtzebuergesch als Friemsprooch (1DLaF)	Zweten Diplom Lëtzebuergesch als Friemsprooch (2DLaF)		Leweschten Diplom Lëtzebuergesch
Neerlandés		Profiel Toeristiche en Informele Taalvaardigheid (PTIT)	Profiel Maatschapplijke Taalvaardigheid (PMT)	Staatsexamen Nederlands als Tweede Taal Examen I (NT2-I), Profiel Professionele Taalvaardigheid (PPT)	Staatsexamen Nederlands als Tweede Taal Examen II (NT2-II), Profiel Academische Taalvaardigheid (PAT)	
Noruego			Språkprøven i norsk for voksne innvandrere		Test i norsk for fremmed-språklige Høyere nivå	
Ruso		Test of Russian as a Foreign Language (TORFL/TPKN B) Basico/ Bazoviy	Test of Russian as a Foreign Language (TORFL/TPKN I) Primero/ Perviy	Test of Russian as a Foreign Language (TORFL/TPKN II) Segundo/ Vtoroy	Test of Russian as a Foreign Language (TORFL/TPKN III) Tercero/ Tretii	Test of Russian as a Foreign Language (TORFL/TPKN IV) Cuarto/ Chetvertiy
Sueco			Sfi-provet		Test in Swedich for University Studies (TISUS)	
Valenciano		Certificat de coneixements orals de valencià	Certificat elemental de coneixements de valencià		Certificat mijtà de coneixements de valencià	Certificat superior de coneixements de valencià

Fuente: www.infoidiomas.com

7.2. BALIABIDEAK

7.2. A. Online hiztegiak eta itzultzaileak

- **Word Reference**

WordReferencek doako online hiztegiak eskaintzen ditu. Gaztelaniarako honako hiztegi hauek ditu: hiztegi elebakarra, gaztelaniatik ingeleserako, frantseserako eta portugeserako hiztegiak, eta sinonimo eta antonimoen hiztegia. Nabarmentzekoa da argota, esaerak eta abar itzultzeko foroak ere eskaintzen dituela.
www.wordreference.com

- **Yourdictionary.Com**

Zenbait diziplinatako hiztegiekiko ezinbesteko lotura. Besteak beste, gramatika bat eta itzultzeko zenbait tresna aurkituko dituzu, balio handikoak.
www.yourdictionary.com/ [EN]

- **Free Translator**

Sarean eskuragarri dauden doako hiztegi-ikastaroen, itzultzeko tresnen eta hiztegien aukera. Erraz erabiltzen da, eta 40 hizkuntza baino gehiago biltzen ditu.
www.free-translator.com [EN]

- **Reverso**

Aditz-jokagailua, itzultzailea, hiztegia eta gramatika-nozioak.
http://www.reverso.net/text_translation.aspx?lang=EN

- **Linguee**

Hizkuntza anitzeko hiztegia eta beste pertsona batzuek egindako milioika itzulpenetarako sarbidea duen bilatzailea. Hizkuntzak: gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemana eta portugesa.
http://www.linguee.es/

- **Visual dictionary online**

Ikuspegi ezberdina duen hiztegia. Hiztegia irudien bitartez aurkezten du gaika, kontzeptuak barneratzeko errazagoa izan dadin.
http://visual.merriam-webster.com/index.php

- **Verbix**

100 hizkuntza baino gehiagoren aditz guztiak jokatuta eta mundu zabalean hitz egiten diren hizkuntzen gaineko informazio baliagarria.
www.verbix.com [EN]

• **Microsoft Office**
Microsoft Office 2003 aplikazioak eta ondorengo bertsioek eskaintzen dituzte, batetik, itzulpen-zerbitzuak, tokiko edo lineako hiztegi elebidunak erabiltzen dituztenak, eta, bestetik, itzulpen automatikoa webgunearen bitartez. Erreferentzia ezaugarri berriari jarraiki, sakatu ALT eta klik egin dokumentuaren hitz batean, eta itzulpena berehala ageriko da "Erreferentzia" izeneko zeregin-panelean.

• **Google Translate**
Googlek itzultzeko doako aplikazioak biltzen ditu: Google Translate testu laburrak itzultzeko, itzulpen automatikoa Gmail mezuetarako. Google Chrome nabigatzaileak itzulpen automatikoa biltzen du; Google barrak hitzez hitzeko itzulpena eskaintzen du; mugikorretarako Android aplikazioak, berriz, elkarrizketarako eta bidaiarako gidak ditu.
https://translate.google.es/

• **Worldlingo**
Webgune honek, esaldiak eta testuak itzultzeaz aparte, webguneak eta dokumentuak ere itzultzen ditu, kalitate onez.
www.worldlingo.com

7.2. B. Maila-testa

• **APTIS, British Council-ek diseinaturiko maila-testa**
Ingeles-mailaren balioespen praktiko eta zehatza egiteko diseinatuta; egokia da ingeles-ezagutzak ziurtatu nahi dituztenentzat edota hizkuntza horren gaitasuna ebaluatu behar duten enpresa eta erakundeentzat. Halaber, hainbat erakunde publikok onartu dute ofizialki eta, behar izanez gero, ingeles-mailaren ziurtagiria eskuratu dezakezu 48 ordutan.
https://www.britishcouncil.es/examenes/aptis

• **CUID. Urrutiko Hizkuntzen Unibertsitate Zentroa (DIALANG)**
DIALANG hizkuntza-ebaluazioko sistema nagusia da, Europako Kontseiluaren "Europako erreferentziazko esparru komunean" oinarritua. Europako garrantzizko 20 erakundek baino gehiagok garatu dute, Europako Batzordearen babesarekin.
DIALANG sistemak zenbait hizkuntza-gaitasunen testak eskaintzen ditu, ongi

diseinatuak eta balidatuak, dakizuna hobetzeko aholku espezializatu eta iruzkin (feedback) ugarirekin batera. Zer maila duzun eta ondoen eta okerren non zabiltzan jakiteko aukera ematen dizu horrek, hizkuntza menderatzeko bidean hartu beharreko erabakiak erraztuko dizkizuna.
http://portal.uned.es/portal/page?_pageid=93,27246256&_dad=portal&_schema=PORTAL

• **Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak (HEO)**
Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko zentro publikoak dira, helduei hizkuntzak irakasten jarduten dutenak. Proba bat egin dezakezu zer mailatan matrikulatu behar duzun jakiteko.
www.eoieuskadi.net/

• **EFSET**
Test **osoa eta luzea** da, zehaztasun handikoa, eta aplikazio interesgarria du; izan ere, **datuak Linkedin-era bidal** daitezke.
https://www.efset.org/es/

• **Gaitasun probak online**
Hainbat hizkuntzari dagozkion gaitasun-probak. Horretaz gain hizkuntzak ikasteko baliabideak, erreferentziazko lan-gaiak, kulturari buruzko informazioa, jolasak eta txapelketak.
http://www.transparent.com/language-resources/tests.html [EN]

7.2. C. Aurrez aurreko ikastaroak: hemen eta atzerrian

• **Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak**
Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak ikastegi publikoak dira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendekoak, helduentzako hizkuntza-irakaskuntzara bideratuak.
http://eoieuskadi.net/

• **Infoidiomas**
Infoidiomas webguneak ikastaroei buruzko datu-base zabala eskaintzen du: probintziaren arabera, atzerrian, hizkuntzak online, udako ikastaroak eta abar.

Gainera, bidaia-gida interesgarri batzuk biltzen ditu. Ikastaro guztiak hemen aurkituko dituzu, herriz herri.
www.infoidiomas.com/

- **ASEPROCE**

Atzerrian hizkuntza-ikastaroak eskaintzen dituzten 71 enpresa biltzen ditu ASEPROCE elkarteak. Bere mendekoa da AECAE, atzerrian ikasturtea egiteko aukera ematen duten zentroak biltzen dituena.
www.aseproce.org/

- **Iberlingva**

Bilbon egoitza duten hizkuntza-zerbitzuak, atzerritarrentzako gaztelania-programak eta munduko hainbat herrialdetan hizkuntza-ikastaroak eskaintzen dituztenak.
www.iberlingva.com.es/

- **Oise Idiomas**

Erresuma Batuko hizkuntza-ikastaroen enpresa, profesional, heldu, ikasle eta gazteentzako ikastaro trinkoak eskaintzen dituena betiere filosofia berberari jarraiki: baldintza ezin hobeak + lan gogorra = emaitzak.
www.oise.es/

- **Course Finders**

90 herrialdetako 6.500 hizkuntza-eskolek kudeatutako ikastaroen, jardueren eta ostatu hartzeko erraztasunen gaineko informazioa. Horretaz gain, aukeratutako hizkuntzan zure gaitasuna neurtzeko azterketei buruzko informazioa jasoko duzu.
http://coursefinders.com/es/

- **Lexicool**

Hizkuntza-trebetasunak funtsezkoak badira zure etorkizuneko lanbidean, sartu webgune honetan. Europako, Kanadako eta AEBetako itzulpengintza- eta interpretazio-ikastaroen direktorio zabala eskaintzen du.
www.lexicool.com/courses.asp

- **Easy Idiomas**

Hizkuntza bat atzerrian ikasi nahi duten ikasleei zuzendua, bai eta ikasi bitartean lan egin nahi dutenei ere.
www.easyidiomas.com/

7.2. D. Txatak eta hizkuntza-trukeak

Hizkuntzen trukea honetan datza: bi hizkuntzatan hitz egiten duten bi lagun elkartzean, bi hizkuntzak praktikatze aldera. Horrela, erraztasunez eta ondo pasatuz hizkuntzen ezagutza hobe daiteke.

Interneterako konexiorik ez izatea ere ez da aitzakia hizkuntza bat ez ikasteko. Amahizkuntza ez den hizkuntza bat mintzatzeko erakunde publikoek nahiz pribatuek bultzatzen dituzten kultura-eskaintzak edo partikularrek sustatzen dituzten ekimenak ugariak dira. Alemanezko zinema-ziklo batera joan zaitezke, edo ingeles- talde batekin elkartu trago bat hartzeko. **Motibazioa baino ez da behar**. Denak balio du atzerriko hizkuntza baten ikaskuntza osoan hobetzeko eta aurrera egiteko. Baina ezin da ahaztu edozein hizkuntzaren zokondoak ezagutzeko, gomendagarria dela irakaskuntza arautuari ekitea.

• **Languageforexchange**
Webgune honen bitartez, hizkuntza-truke ezberdinak egin daitezke: posta elektroniko bidezko trukeak, Skype bidezkoak...
www.languageforexchange.com/

• **Chatroulette**
Hainbat hizkuntzatan mintzo egiteko txata.
http://chatroulette.com/

• **Mylanguage Exchange**
Aurki ezazu lagun bat online eta praktika ezazu ikasten ari zaren hizkuntza natibo batekin, zure hizkuntza ikasten ari den natibo batekin. Beheko estekak praktikatzen lagunduko dizu, **bertako ikasketa-planei, txat guneei**, **online hiztegiari, iragarkien taulari eta argota eta espresioak trukatzeko hiztegi-jokoei esker.**
www.mylanguageexchange.com

• **Myngle**
Edozein hizkuntzatako irakasleak bilatzeko eta eskolak Internet bidez (Skype bidez edo beste nolabait) jasotzeko merkatu birtuala. Edozeinek eman dezake izena irakasle gisa, baina aldez aurretik duzun esperientzia adierazi behar duzu. Ikasleek komentarioak utz ditzakete irakasle baten web-orrian, irakasle horrekin klase bat jaso eta gero. Ordaindu behar da, baina prezioa irakaslearekin adosten da, aldez aurretik.
www.myngle.com/ [EN]

• **Conversationexchange.com**
Web honetan hiru hizkuntza-harreman mota sor ditzakezu: aurrez aurreko hizketaldiak adostea, postaz bidezkoa, edo ahotsa eta testua txat bidez partekatzea. http://conversationexchange.com

• **Language Exchange Esp**
Beste hizkuntza bat pertsonalki praktikatzeko pertsona bat bilatzeko aukera ematen du, zeure herrian edo probintzian edo, areago, zeure adinaren edo interesen arabera. www.languageexchangeesp.com

• **Zuiop™ international intercambio de idiomas**
Hizkuntza-truke (language exchange) bila dabiltzanentzako webgunea. Hizkuntza-trukean, bi hizkuntzatan mintzatzen diren bi lagun elkartu egiten dira, eta batak bestea ikasten ari den hizkuntza du ama-hizkuntza.
www.zuiop.com

• **Hizkuntza-tabernak**
Hizkuntza-tabernetan elkarrizketan aritu zaitezke hainbat hizkuntzatako jatorrizko mintzatzaileekin. Burunda Café daukazu Donostian.
Hona horrelakoen zerrenda oso bat:
http://www.infoidiomas.com/noticia/4729/todos-los-bares-linguisticos-de-espana/

7.2. E. Online ikasteko tresnak eta ikastaroak

• **E-Lea programa**
e-LEA programak ingelesa, frantsesa, alemana eta italiera ikasteko aukera eskaintzen du multimedia sistemen bidez, etengabe ikasteko atariaren bitartez.
www.hiru.com/e-ikasi

• **Idiomas Gratis**
Hizkuntza ikasleen doako komunitatea, hainbat hizkuntza online ikasteko doako eta askotariko baliabideak eskaintzen dituena, denak ere erabiltzaileek gomendatuak.
http://www.idiomasgratis.net/

• **BBC hasiberrientzat**
Atzerrira joan zara eta ez zara gauza helmugako herrialdeko hizkuntzan tutik ere esateko? BBC kateak hasiberrientzako online ikastaro bikainak eskaintzen ditu, doan.

Hainbat CD eta bideo eskuragarri. 40 hizkuntza baino gehiago.
www.bbc.co.uk/languages/index.shtml [EN]

• **Lingual Media Player**
Hizkuntzak ikasteko doako softwarea, filmez eta Youtubeko bideo azpitituludunez lagunduta. Hizkuntza bat ikasten ari diren pertsonen entzumen-gaitasunak hobetzen laguntzea da bere helburua.
http://lingualmediaplayer.com/en/

• **E.L.Easton**
Hizkuntzak irakasteko eta ikasteko material interesgarrien —gramatika-ikasgaiak, testak, lehiaketak, hiztegiak eta abar— iturria. Webgune aproposa beren hizkuntza-trebetasunak egiaztatu nahi dituzten ikasle eta irakasleentzat.
http://eleaston.com/ [EN]

• **Lingu@Net-WORLDWIDE**
Mundu osoan hizkuntzak ikasteko baliabideak. Hautatu menutik hizkuntza ikasteko eta irakasteko materialak, eta jarraian hautatu ikasi beharreko hizkuntza: neerlandera, ingelesa, frantsesa, alemana, italiera, gaztelania edo beste bat.
http://www.linguanet-worldwide.org/lnetrest/#/

• **Phrasebase**
Phrasebase hizkuntzak ikasteko baliabideak eskaintzen dituen komunitate librea da. Sartu datu-base erraldoian eta hainbat hitz arrunt aurkituko dituzu, baita 90 hizkuntza baino gehiagotara itzulitako esaldi ugari ere. Erregistratu doan, eta parte hartu mundu osoan bere hizkuntza irakasteko interesa duen jendearekin.
www.phrasebase.com/english/

• **Beste hainbat online ikastaro doan**

INGELESA:
English Central http://es.englishcentral.com/videos#
Aba English http://www.abaenglish.com/es/
Aprende inglés www.lingolex.com/espan.htm
Business English Courses www.businessenglishuk.org.uk/
Curso inglés www.curso-ingles.com/
Dave's ESL Café www.eslcafe.com/

English on line www.eleaston.com/
Escuela American Accent www.americanaccent.com/
Gramática 'online' www.edufind.com/
I love languages www.ilovelanguages.com/
Inglés Aula Fácil http://www.aulafacil.com/cursos/c90/idiomas/ingles
Inglés Mundial http://www.inglesmundial.com/
La mansión del inglés www.mansioningles.com/
Learn English as a second language www.english-at-home.com/
Página de inglés www.englishpage.com/
Practice for learners of English http://www.englishlearner.com/
Word 2 Word www.word2word.com/
Guía Gramática y Ortografía http://grammar.ccc.commnet.edu/grammar/
Wlingua http://www.wlingua.com/
Vocabulary http://www.vocabulary.com/

ALEMANA:
Curso de Alemán http://www.aulafacil.com/cursos/c85/idiomas/aleman
Academia de Alemán: www.deutschakademie.de/online-deutschkurs/spanisch/
Language Gauge - German
www.curso-de-aleman.de/grammatik/inhaltsangabe/spanisch_deutsch_inhaltsverzeichnis.htm
Deutsch Plus www.bbc.co.uk/languages/german/dplus/index.shtml
Alemanadas: http://www.alemanadas.com/
Ejercicios de alemán www.vokabel.com/german.html

ITALIERA:
Language Gauge - Italian
http://www.bbc.co.uk/languages/italian/issimo/index.shtml
CyberItalian www.cyberitalian.com/
Aula Facil: http://www.aulafacil.com/cursos/t2898/idiomas/italiano/italiano
Langmaster: www.langmaster.com/comes/italian/home.htm
Free Italian Course for Beginners
http://www.italyheritage.com/learn-italian/course/
Saber italiano http://www.saberitaliano.com.ar/

PORTUGESA:
Cursos Gratis de idiomas: www.cursosgratisidiomas.com/portugues-online
Curso de Portugués www.portuguesweb.com/
BBC portugués www.bbc.co.uk/languages/portuguese/

SUEDIERA:
SSE - Introduction to Swedish http://www2.hhs.se/isa/swedish/
Online Swedish: www.onlineswedish.com/Spanish
ALLYSATIS http://www.allysatis.org/ficheeleve/eleve.php?lang=84&langaff=2

FRANTSESA:
Aula fácil http://www.aulafacil.com/cursos/c89/idiomas/frances
Course de Français sur Internet : http://pages.infinit.net/jaser2/
Francés on line: www.frances-online.de
French-Spanish: http://www.frenchspanishonline.com
Dictionnaires http://artfl-project.uchicago.edu/
Cafe.umontreal www.cafe.umontreal.ca/
www.bbc.co.uk/languages/french/gauge/index.shtml
Ikasi frantsesez TV5Mondekin. http://apprendre.tv5monde.com/
Travlang
http://travlang.com/languages/cgi-bin/langchoice.cgi?page=main&lang1=english&lang2=french

DANIERA:
BBC Danish www.bbc.co.uk/languages/other/quickfix/danish.shtml
Speak Danish www.speakdanish.dk
Nola esaten da Danieraz? http://www.como-se-dice.com/aprender-danes/

TXEKIERA:
The Little Czech Primer www.czechprimer.org/

NEERLANDERA:
Learn Dutch via the Internet www.learndutch.org/

GAELIKOA:
Elementary Course of Gaelic www.smo.uhi.ac.uk/gaidhlig/ionnsachadh/ECG/
Irish Gaelic Handout http://english.glendale.cc.ca.us/gaelic.html

GREKOA:
Modern Greek www.theology.edu/greek01.htm
Learn to Read Greek www.ukindia.com/zip/zgk1.htm

7.2. F. Gizarte sareak

Gaur egun, oso modan dago gizarte-sareetan parte hartzea. Facebook, Twitter edo Instagram bezalako gizarte-sareek izandako goraldiak hizkuntzak ikasteko gizarte-sareen belaunaldi "berria" ekarri du berekin. Hizkuntza-trukeak burutu, txateatu, kontsultak egin eta hango pertsonekin zure ezagutzak hobetzeko ikastaroak eskaintzen dituzte plataforma horiek Gizarte-sareok doakoak badira ere, plataforman izena ematea eta ikastaroa bera normalean ez dira musu-truk izaten. Hizkuntza berri bat ikasteko gogoa duen eta zurekin hizkuntzaren bat praktikatzeko irrikan egongo den jendea ezagutzeko aukera izango duzu.

Horiei esker, ikaskuntza askoz malguagoa izango da, erabiltzaileen denbora- eta toki-premiei egokitzen baita. Bestalde, ariketak egin eta materialetara online sartu ahal izango zara, bai eta zu ikasten ari zaren hizkuntza dakiten edo ikasten ari diren beste pertsona batzuen laguntza jaso ere. Badira, halaber, partaideek mezuak trukatzeko sareak, ariketak zuzentzeko, zalantzak argitzeko, aholkuak emateko edo, besterik gabe, hizkuntza testuinguru informaletan praktikatzeko xedearekin.

Hizkuntzak ikasteko gizarte-sareak **bi motatan** sailka daitezke: hizkuntza bat mintzatu eta praktikatu nahi duten **pertsonak harremanetan jartzen dituena**, batetik, eta, bestetik, beste hizkuntza batzuetan hitz egiten duten pertsonen **kontaktua errazteaz aparte, ikasteko materiala ere eskaintzen dutenak.**

- **Livemocha.Com**
  Denetan erabiliena da eta hizkuntzak ikasteko munduan dagoen komunitaterik handiena. Aldizkari teknologiko batzuek "ikaskuntzaren facebook" deitzen dute. Doako 30 ikastaro eskaintzen ditu. Ingelesa, errusiera, mandarina, hebreera edo arabiera ikas daitezke.
  http://livemocha.com/

- **Busuu**
Busuu hizkuntzak online ikasteko gizarte-sarea da. Horretarako, 150 unitate didaktiko erabiltzen ditu. Guztira, 12 hizkuntza ikas daitezke doan: espainiera, frantsesa, alemana, italiera, japoniera, ingelesa, portugesa, errusiera, poloniera, turkiera, arabiera eta txinera.
www.busuu.com/es

- **Lang-8**
Atzerriko Hizkuntza batean idazmena praktikatzeko webgunea da. Erabiltzaileek egunerokoa idazten dute ikasten ari diren hizkuntzan eta beste parte-hartzaile batzuek zuzendu egiten dute. http://lang-8.com/

- **Myhappyplanet**
Hizkuntzak dohainik, modu dinamikoan eta dibertigarrian ikasi nahi dituzten ikasleen online komunitatea da My Happy Planet. Hainbat hizkuntzatako bideoen liburutegia eta erabiltzaileek sartutako ikastunitateak ditu.
www.myhappyplanet.com/

- **PHRASEBASE**
Hizkuntza trukerako komunitatea da, beste hizkuntza baten ikaskuntzan elkarri laguntzeko prest dauden pertsonek osatua. Dagokion hizkuntzan gehien erabiltzen diren hitzak eta esaldiak memorizatu egiten ditu.
http://www.phrasebase.com/english/

- **Besteak:**
Babelyou: www.babelyou.com/es/
Lingq: www.lingq.com/
Lingualia: http://www.lingualia.com/es/
Soziety: www.soziety.com
Penpals: www.interpals.net/
Babelium: http://babeliumproject.com/

7.2. G. Online irakasleak

Edonoiz eta edonon eskolak jasotzeko online ikasleak aurkitzea. Aukera interesgarria da akademia batera joateko denbora asko ez dagoenean.

Verbling https://www.verbling.com/
Italki.com www.italki.com/
Language direct https://www.languagedirect.com/spa/
Tus clases particulares http://www.tusclasesparticulares.com/online/
Telephone teacher http://www.telephoneteacher.com/
Classgap https://www.classgap.com/es
Iboux http://iboux.es/

7.2. H. App-ak, smartphone-ak eta tablet-ak

Enpresa askok aukera handia ikusi dute app direlakoen merkatuetan, eta, hartara, deskarga daitezkeen doako aplikazioen eskaintza nabarmen handitu da azken urteotan.

- **Aba English.Com** (iOS, y Android) benetako bizitzarako metodoa, filmak ikusteko gozamenean oinarritutakoa.
  http://www.abaenglish.com/es/

- **Ahoskera-aplikazioak.** Bestelako aplikazioak ere badaude: testuak itzultzen dituztenak, adibidez. Hiztegiak bezalakoak dira, eta hitz bat audio bidez itzultzeaz aparte, ahoskera zuzena ematen dute. Horien adibide, Vaughan aplikazioa (iOS eta Android). iOS zein Android sistemek badituzte aplikazioak aukeratu duzun hizkuntza zuzen eta artez ikas dezazun. App horien artean dira: Colour Trick (iOS eta Android) , Forvo (iOS), Speak It (iOS y Android) o Aprende a hablar idiomas (Android).

- **Ikasi alemana doan**, Bravolol-en app-a da, (iOS eta Android). Ez dago internetera zertan konektatu. Aplikazioak 800 esaldi eta berba biltzen ditu, benetako ahoskera eredugarria: grabaketak egin ahal dituzu eta zure ahoskera eskainitakoarekin alderatu. Gainera esaldiak gorde ahal dituzu edo hiztegian bilaketak egin.

- **Ikasi alemana hitz eginez** (Android). Aplikazio honen bitartez hizkuntzan trebatzen hasiko zara edo hiztegia aberastu berba, elkarrizketa eta dialogoak adituz.

- **Ikasi italiera 3.400 hitz aplikazioa erabiliz**, (iOS eta Android). Internetera konektatu gabe erabilgarri.

- **Ikasi portugesa 6.000 berbaren bitartez: Fun Easy Learn** (iOS eta Android). Aplikazio honek irudiak, transkripzio fonetikoak eta jatorrizko hiztunen grabaketak biltzen ditu.

• **Babbel** (iOS eta Android). Atzerriko hizkuntzak ikasteko webgunea ez ezik, ingelesa, alemaniera, nerrelandera edo turkiera ikasteko aplikazioak ere sortu ditu iPhonerako eta Androiderako.
http://es.babbel.com/

• **British Council** (iOS, Android eta Windows Phone). Askotariko baliabideen aplikazioa ere badu.

• **Busuu** (iOS, Android) enpresak sakelako telefonoetarako aplikazio bat sortu du hamar bat hizkuntzatan. Android Market/Google Playn edo Appleren App Store guneetan eskura daiteke. "Aprende inglés con Busuu" deitzen da. Haurrentzako nahiz helduentzako aplikazioa deskarga dezakezu.
https://www.busuu.com/es/

• **Duolingon** (iOS, Android eta Windows Phone) ingelesa, frantsesa, alemana eta portugesa ikasi ahal izango dituzu; ikasgai hauekin, gainera, hitzen ahoskera ere landuko duzu. Zure maila aukeratu ahal izango duzu, bai eta hizkuntza ikasteari dagokionez zeure buruari ezarri nahi dizkiozun helburuak zehaztu ere.

• **Italiera ikasteko hiztegi-entrenatzailea** (iOS). Jatorrizko hiztunek ekoiztutako hitz eta esaldiak entzun ahal izango dituzu zure telefono mugikorrean; bai eta idatzizko eta ulermenezko gaitasunak hobetu ere.

• **Frantastique, frantses-ikastaroak**. (iOS eta Android). Egunerokoa eta zuretzat egokituta. Audio, bideo eta idatzizko edukiak uztartzen ditu, eta ahoskerari arreta berezia jarrita. 15 minutuko iraupena du, eta berehalako zuzenketa eta erantzun pertsonalizatuak eskaintzen ditu.

• **HelloTalk** (iOS eta Android), hizkuntza-aplikazio honetan, jatorrizko hiztunak dira irakasleak, mundu osokoak. Ikasi nahi duzun hizkuntza hautatu —100 baino gehiago daude aukeran— eta ia berehala hizkuntza horren jatorrizko hiztunekin egongo zara harremanetan.
http://www.hellotalk.com/#sp

• **iTalk** (Android). Italieraren ahoskera lantzeko. Jatorrizko hiztun trebatu-profesionalen ahotik sortutako audioak. Gainera zure ahotsa grabatzeko aukera, erkaketak egin eta zure aurrerapena ebaluatu.

• **Learn English by Listening** (iOS) audio-fitxategi eta horien transkripzioetan oinarritutako ikastaro bikaina hasiberrientzat. Sei zailtasun-maila ditu.

• **Learn English Grammar** (iOS, Android eta Windows Phone), gramatika lantzeko eta ezagutzak finkatzeko; 1.000 galdera eta azterketa baino gehiagorekin.

• **Lingualia**, iOS eta Android. Norbanakoari egokitutako ingeles-ikastaroak. Zure mailari egokitzen zaizkion ikasgaiak, online lantzeko jarduerak eta zuri zeuri aholkua emango dizuten irakasle "adimentsuak".

• **ListeningDrill** (iOS eta Android), TED.com webgunetik bideoak deskargatzeko eta horiek bi hizkuntzatako azpitituluekin aldi berean ikusteko aukera ematen duen programa da.

• **Mondly Languages** (iOS). App honen bitartez **alemana ikasi ahal izango duzu elkarrekintzazko ikasgai arinen bidez** eta oinarrizko eta egunero erabiltzen diren elkarrizketetan trebatu. Ez da beharrezkoa internetera konektatzea.

• **Mosalingua** aplikazioak (iOS eta Android) frantseseko, italierako, ingeleseko eta espainierako ezagutzak hobetzeko bidea ematen du. Ingelesezko aplikazioak, adibidez, zera dio: "bi hilabetez hamar minutu ematen badira hiztegia berrikusten, 600 hitz eta esaldi garrantzitsu ikas daitezke".
www.mosalingua.com/es/

• **Language Immersion for Chrome**, nabigatu ahala, ikasten ari garen hizkuntza gutxika sartzen duen luzapena. Murgilketa-maila hauta daiteke.

• **Rosetta Stonek** (iOS eta Android), eskaintzen dituen 24 hizkuntzetako bat ikasten lagunduko dizu, irakasle pertsonal bat izango bazenu bezala. Gramatikaz eta hiztegiaz gain, ikasitako ezagutzak elkarrizketa batean erabiltzen ikasiko duzu.

• **Sing&Learn English**, Sony ATV Publishingen eskutik. Askok dio hizkuntzak ikasteko metodorik eraginkorrenetako bat dela abestiak kantatzea. Gainera, gramatika, hiztegia eta Cool English atala ditu. Bere abantailetako bat audioa eta testua konbinatzea da.

• **SpeakingPal** (iOS eta Android). Pertsonaia birtual batekin hitz egiteko aukera ematen digu dohainik, ingelesez hobeto ahoskatzen ikas dezagun. Doakoa da.

• **Speakit TV**, (iOS eta Android. Bertan paratutako bideoei esker ingelesa, portugesa, frantsesa, italiera, txinera, alemana, arabiera, errusiera edo japoniera lantzeko aukera izango duzu, 20 ikastaroren bitartez; berauek eguneroko egoerak lantzen dituzte, azpitituluen baliabidea lagun.

• **The iRegular Project** aplikazioak hitzen eta aditzen ilustrazioen bitartez ingelesa

ikasten lagunduko digu, hartara, ikaskuntza asko erraztuta.
http://theiregularproject.com/es/

- **Très Bien**. Baliabide honek ere frantsesa ikasteko aukera ematen du: iOS eta Android.

- **Voxy** iPhonerako eta Androiderako aplikazioa da (iOS eta Android). Ahoskera lantzeko ariketak, testak eta albisteak eskaintzeaz aparte, objektu bati argazkia atera eta ingelesez nola deitzen den esaten du. Era berean, zure kokapena GPS bidez antzemanda, leku horretarako ikasgai aproposak eskaini diezazkizuke.

- **50 hizkuntza (50 languages)**, (iOS eta Android). Audio-fitxategiak eta 1.600 hizkuntza-konbinaketa baino gehiago –ingelesetik gaztelerara, gazteleratik txinerara, besteak beste. Hasierako urratsak eman ahal izango dituzu hizkuntza hauetan: bulgariera, korearra, txinera, greziera, mazedoniera, thailandiera eta beste 44 hizkuntza.

7.2. I. Podcasts

Beste aukera bat podcast-ak dira, saretik deskarga daitezkeen audioko artxiboak, ordenagailuan nahiz MP3an entzun ahal izateko. Hizkuntzak podcast bidez ikasteko adibide batzuk:

- **Learn English** (http://learnenglish.britishcouncil.org/en/) British Councilen aplikazio honek audioen podcast-en bitartez azpitituluak dituzten ingelesezko elkarrizketak entzuteko aukera ematen du.

- **Business English Pod** (www.businessenglishpod.com) negozioetarako ingelesa ikasteko.

- **Deutsche Welle**. Ikasi alemana bidaian zoazela, web honek eskaintzen dituen doako podcast-en bitartez.
http://www.dw.de/deutsche-welle-podcasts-im-%C3%BCberblick/a-2341353

- **Learn French with Alexa** (http://learnfrenchwithalexa.com/) hasiberrientzako frantses-ikastaroa.

- **LearnItalianPod.com** (www.learnitalianpod.com/) italiera ikastea buruan badarabilzu.

- **IVOOX** (www.ivoox.com/) "Audio-kiosko" honetan hizkuntza asko lantzeko podcast-ak dituzu eskura, hainbat mailatan sailkatuta eta iraupena aukeran.
- **Elllo.org:** Hemen mundu osoko podcast-ak topatuko dituzu, askotariko gaiei buruzkoak. Hizkuntza zuzenean, hainbat inpresio eta azalpenekin (dena ingelesez). http://www.elllo.org/

7.2. J. Beste dispositibo batzuetan: telebista, irratia, kontsolak

Hizkuntzak ikasteko baliabideen zerrenda ordenagailutik edo sakelakotik askoz harago doa. **"Aprende inglés TV"** online ikus daiteke. **"Curso Vaughan Inglés 4.0"** ordu erdiko eskolak dira, mota guztietako ikusleei zuzendutako edukiak dituztenak: hasiberrientzat nahiz ezagutzak sakondu nahi dituztenentzat. **"The Verb Circus"** aditzak eta aditz-formak ikastera bideratuta dago; **"Common Mistakes"**, ahoskeran dauden akats ohikoenen inguruko zalantzak argitzera; edo **"Culture Ventures"**, ingelesa musikaren, literaturaren edo ekonomiaren bidez ikasteko.

Beste aukera bat **atzerriko telebista-kateak sintonizatzea da** (www.canalesparabolica.com/) telebista-saioak, serieak eta filmak bertsio originalean ikusteko, **YouTube** webgunera jotzea, denetariko hizkuntzetako ikasgaiak dituzten milaka online bideo eskaintzen dituena.
Hizkuntzak ikasteko beste aukera bat (http://es.englishyappr.com/welcome/HomePage.action) da ahoskera hobetzeko itzulita dakartzan bideoak dituena.

Vaughanek ingelesa ikasteko irrati-emisora dauka, **Vaughan Radio** izenekoa (http://vaughanradio.com/reproductor), Cloverdale's Corner, The Salad (maila aurreratua) edo Square One (hasiberrientzat) bezalako saioak dituena. 24 orduz ingelesezko elkarrizketak entzuteko, 92.0 bilatu irratiko dialean, Bilbon. Beste hiri batzuetarako, kontsultatu dialak webgunean.

Alemana ikasi nahi baduzu irratirik garrantzitsuenetako bat **Deutsche Welle** da (http://www.dw.de). Azken urteotan atzerritarrei alemana irakasten jarri du arreta.

Eta, jakina, PCrako eta kontsoletarako jokoak ere badaude. **"Mi experto en Inglés"** jokoa Nintendo DSrako da (https://www.ubisoft.com/es-ES/), eta hiztegia, gramatika

eta kaligrafia lantzeko aukera ematen du. Antzekoak dira alemana edo frantsesa ikasteko nahiz hiztegia handitzeko “Mi experto” jokoak.

Hizkuntzak ikasteko bestelako jokoak ere baditu Nintendo DSk: English Training (www.nintendo.es/Juegos/Nintendo-DS/English-Training-Disfruta-y-mejora-tu-ingles-270682.html) edo **Practice English!** (www.nintendo.es/Juegos/Nintendo-DS/Practise-English-Ingles-para-el-dia-a-dia-272519.html), kasu. Playstationek PSPrako Play Englisheskaintzendu(http://es.playstation.com/psp/games/detail/item275177/PlayEnglish%E2%84%A2/). Jokoaren sortzaileen arabera, jokoaren oinarrian dagoen ikaskuntza-metodoa ingeleseko 300 ikastorduren parekoa da.

7.2.K. Hizkuntzak filmen, telesailen eta bideoen (youtube) bidez ikastea

• **Ororo.tv.** Filmak eta telesailak itzultzaile eta guzti. Ingelesa ikasten ari diren zinemazale amorratuentzako aurkikuntza aparta.
http://ororo.tv/

• **Film-english.** Ikasi hizkuntza film laburren bitartez. Orriak bideo anitz ditu: oporrak Bartzelonan, Britainia Handiko nekazaritza-arazoak, etab.
http://film-english.com/

• **Ingelesa ikasteko youtube kanalak**
VideoBlog de Misterduncan: http://www.youtube.com/user/duncaninchina
BBC Learinging English: http://www.youtube.com/user/bbclearningenglish
Twominute English: http://www.youtube.com/user/twominenglish
MinooAngloLink: https://www.youtube.com/user/MinooAngloLink
Dailydictation: https://www.youtube.com/user/dailydictation
Duncaninchina: https://www.youtube.com/user/duncaninchina
EnglishLessons4U: https://www.youtube.com/user/EnglishLessons4U
Learn English with Ronnie:
https://www.youtube.com/user/EnglishLessons4U/featured
English with Jennifer: https://www.youtube.com/profile?user=JenniferESL
Rachel’s English: https://www.youtube.com/user/rachelsenglish
Anglo-Link: https://www.youtube.com/channel/UCaRMivfyupj3ucUyJbZbCNg
EnglishClass101: https://www.youtube.com/user/ENGLISHCLASS101
Learn English with Steve Ford:
https://www.youtube.com/profile?user=PrivateEnglishPortal

AlexESLvid's Free English Lessons:
https://www.youtube.com/user/AlexESLvid/featured
Learn English with Let's Talk:
https://www.youtube.com/user/learnexmumbai/featured
Engvid: http://www.engvid.com/teachers/

- **Frantsesa ikasteko youtube kanalak**

OhLaLa Lingua:
https://www.youtube.com/playlist?list=PLwCTC0X9-w57x2yM_Pn0hDaU2a16R8zC2
FrechPod101: http://www.youtube.com/user/frenchpod101
Canciones preescolares: Comptines:
https://www.youtube.com/playlist?list=PL5QGtj2SZ-E5U3pp7xfUS5kjWuMPlUXdF
Lecciones gratis de francés:
https://www.youtube.com/user/LeccionFrancesFacil/videos
Curso De francés: https://www.youtube.com/playlist?list=PL3EB4F17D44A0F078
Aprende francés con Vincent:
https://www.youtube.com/user/FrancesEnLinea/videos
Aprenda Francés con Pascal https://www.youtube.com/user/FrancesEnLinea/videos
Clases de Francés Fácil con Nelson:
https://www.youtube.com/user/ClasesFrancesFacil/videos

- **Alemana ikasteko youtube kanalak**

Curso de alemán para hispanohablantes UNED:
https://www.youtube.com/playlist?list=PL6o9WSGs9uhXfrxNU2N-dBoNZ8cSXtc-v
Learn German HD Audio:
https://www.youtube.com/user/LerneDeutschLearnGer/videos
DaF Spanien: https://www.youtube.com/user/DaFSpanien/videos
Cibermatex:
https://www.youtube.com/playlist?list=PL1k5I8U2UJr7appXKLeMu1T-Bfe8oNJ0u

- **Italiera ikasteko youtube kanalak**

Learn Italian with ItalianPod101:
https://www.youtube.com/user/italianpod101/videos
Oneworlditaliano: https://www.youtube.com/user/Oneworlditaliano/videos

Aprende italiano con Ernesto Cinquenove:
https://www.youtube.com/user/erne59/videos

- **Portugesa ikasteko youtube kanalak**

Tus clases de portugués:
https://www.youtube.com/user/tusclasesdeportugues/playlists
Falamos portugués: https://www.youtube.com/watch?v=KCjl3nAZWc4

7.2.L. Hizkuntzak musikaren bidez ikastea

Beste hizkuntza batzuetan dauden abestiak entzutea baliabide dibertigarria da hizkuntza-konpetentziak praktikatzeko. Hizkuntza bat ikastea oso astuna eta aspergarria gerta daiteke, ikasleak motibatuko dituzten irakaskuntza-tresnak erabiltzen ez badira. Musika eta abestiak aliatu perfektua dira atzerriko hizkuntza bat modu praktiko eta dibertigarrian lantzeko.

Musika-baliabideen bidez, funtsezko alderdi didaktikoak hobe daitezke, testuinguru errealean: **hiztegia zabaldu, intonazioa eta ahoskera indartu eta gramatika birpasatu.**

- **Lyricstraining**

Metodo erraz eta dibertigarria beste hizkuntza batzuetan gaitasunak eskuratu eta hobetzeko, bideo musikalen eta zure kantarik gogokoenen letrez baliatuta. Lyricstrainingek hitz eta espresio berriak ikasten lagunduko dizu, bai eta gramatika kontzeptuak indartzen ere, **falta diren hitzak idazteko ariketei esker**.
http://lyricstraining.com/

- **Subingles.com**

Webgune honetan 3 000 abesti inguru daude ingelesez eta azpitituluekin, hizkuntza horretako ezagutzak probatzeko. Bideoaren azpian abestiaren letra ageri da, bete beharreko hutsuneekin.
www.subingles.com/

- **Aprendiendo inglés con canciones**

Hizkuntzak musikaren bidez praktikatzeko 49 lezio dituen blog-a. Horietako bakoitzean kanta batekin egiten da lan. Bideoa eta letra hizkuntza originalean aurkituko dituzu, bai eta gaztelaniarako itzulpena ere
http://aprendiendoinglesconcanciones.blogspot.com.es/

- **Enseñar con canciones**
Ingelesezko abestien zerrenda bat du. Ikasgai bakoitzarekin batera, abestia ematen du, bideoan edo audio-formatuan, bai eta lotutako ariketa-multzoa ere.
www.isabelperez.com/songs.htm

- **Mama Lisa's world**
Gazteenei hizkuntzak irakasteko modu dibertigarri eta eraginkorra. Webgune honetan mundu osoko haur-kantak biltzen dira, hainbat hizkuntzatan. Abesti bakoitzarekin, letra, nahi den hizkuntzarako itzulpena eta kanta entzuteko edo bideoan ikusteko behar diren artxiboak daude, eskuragarri badaude.
www.mamalisa.com/?t=sc&p=790&c=116

- **Tuneintoenglish**
Ingelesa musikaren bidez lantzea da bere proposamena. Abestien hitzen diktaketa egin, karaoke-formatuan abestu, hitzetarako ariketak topatu eta, diagrama ezberdinetan oinarrituz, abestia zein den asmatu ahal izango duzu hemen.
http://www.tuneintoenglish.com/

7.2.M. Bekak eta laguntzak

- **Eusko Jaurlaritza. Atzerriko hizkuntza ikastaroetarako bekak**
  - Eusko Jaurlaritzaren bekak euskal unibertsitateetan goi-mailako edo unibertsitateko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat
  www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib2/eu_2033/b2_e.html
  - Eusko Jaurlaritzaren bekak unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat
  www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib1/eu_2032/cursos_extranjero_e.html

- **Espainiako Gobernua. Hezkuntza Ministerioa**
http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/educacion.html

Unibertsitate askok euren bekak eskaintzen dituzte atzerrian hizkuntzak ikasteko, bai eta laguntza osagarriak ere, atzerrian ikastaro edo master bat egiten duten ikasle edo tituludunentzat.

• **DAAD – Alemaniako Truke Akademikoetarako Zerbitzua**
Hainbat beka-programa eskaintzen ditu, batzuetan instituzioekin batera, Alemaniako unibertsitateetan eta goi-mailako ikastetxeetan ikasteko eta ikerketak egiteko. Beketako batzuk Alemaniako unibertsitate eta goi-mailako ikastetxeetan gradu-ondoko ikasketak laguntzeko dira; beste zenbait Alemaniako hizkuntza-institutuetan ikastaro trinkoak egitekoak dira; eta badira iraupen laburreko bekak ere, doktoretzako ikasleentzat edo ikertzaile gazteentzat.
Informazio gehiago www.daad.es

• **Campus Bourses – Frantsesa ikasteko bekak**
Frantziako enbaxadak CampusBourses beka-bilatzailearen bidez ematen du ikasleentzako diru-laguntzen berri. Goi-mailako heziketa Frantzian ikasi nahi duten atzerriko ikasleen artean bultzatzea du helburu. Erakunde, enpresa, fundazio, unibertsitate eta eskolen deialdiak hartzen ditu barne.
Informazio gehiago:
http://campusbourses.campusfrance.org/fria/bourse/#/catalog?lang=fr

7.2.N. ERASMUS + Hizkuntzak online ikasteko laguntza

Europako Batzordeak **"Online Linguistic Support" (OLS) izeneko tresna sortu du. Helburua da Erasmus + programan parte hartzen dutenei laguntza eskaintzea, daukaten hizkuntza-maila ebaluatzea eta berori indartzea alegia.**

Tresna berri honek mugikortasun-ekintza batean parte hartuko dutenei eskainiko die laguntza, ERASMUS + programaren bitartez ikastea, prestatzea, lanean trebatzea edo boluntario jardutea helburu badute. Hizkuntza hauetan dago eskuragarri: gazteleraz, ingelesez, frantsesez, italieraz, alemanez eta nederlanderaz. Hizkuntzok ERASMUS + programaren baitan egiten diren trukeetan % 90ean dute isla.

Mailaketa-probaren emaitzen arabera, (http://erasmusplusols.eu/es/prueba-de-nivel-2/) lparte hartzen dutenek online ikastaro bat egiteko aukera izango dute, eta helmuga duten herrialdean bertako hizkuntza ikasteko aholkularitza jasoko dute. Era berean, plataformak foroa du eta aurretik ERASMUS + programan ibilitakoen lekukotasunak biltzen ditu.

Batzordeak egitasmoaren berri ematen duen bideoa egin du: jo lotura honetara. http://erasmusplusols.eu/es/

7.3. HIZKUNTZAK ETA ENPLEGUA

7.3. A. Atzerrian gaztelania irakastea

Gaztelania jatorrizko hizkuntza duen pertsona oro gaztelania-irakasle aritu daiteke atzerrira bidaiatzerakoan, besteak beste. Zalantzarik gabe, hori da **atzerrian lan egiteko aukerarik onenetarikoa**; izan ere, gaztelania da, txineraren atzetik, jatorrizko hizkuntza gisa gehien erabiltzen dena. Sasoika planetako bazter ezberdinetan zehar ibiltzeko aukera paregabea, baita atzerriko herrialde batean ezartzeko ere, bertan lan- zen bizi-baldintza onak topatu izanez gero.

Normalean, gaztelania irakasteko, zenbait ezagutza behar dira. **Gaztelania Atzerriko Hizkuntza gisa (ELE) irakasteko berariazko titulaziorik ez badago** ere, ikastaroak badira. Hortaz, horiek eskaintzen dituzten erakundeek beren ziurtagiriak eman ohi dituzte. **Cervantes Institutuaren ziurtagiriak** dira nazioarte-mailan **ezagunenak** http://dele.cervantes.es/; halere, badira mundu osoan onartzen diren ziurtagiriak ematen dituzten **ELE prestakuntza-ikastaroak eskaintzen dituzten beste erakunde akademiko ospetsu** batzuk ere. Ikastaroak aurrez aurrekoak nahiz urrutikoak (Internet bidez) izan daitezke eta beren iraupena 80 ordutik aurrerakoa izan ohi da. Beraz, ahaleginduz gero, hiru bat astetan amaitu ahal izango duzu.

Titulua eskuratutakoan askoz errazago izango zaizu munduko edozein tokitan gaztelania-irakasle lana topatzea.

ELE irakasle gisa prestatzeko eta lan egiteko ikastaroak

- **Cervantes Institutua**

Cervantes Institutua Espainiak 1991n sortutako erakunde publiko bat da, gaztelania eta hizkuntza koofizialak sustatu eta irakasteaz gain, espainiar zein hispanoamerikar kultura zabaltzea ere helburu dituena. Lehenago ere esan dugun bezala, erakundeak DELE diplomak ematen ditu, nazioartean ezagutuenak.
http://diplomas.cervantes.es/

• **ELE sarea**
Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakasteko berariazko baliabideei buruzko Hezkuntza Ministerioaren webgunea: irakasleen prestakuntza Espainian zein atzerrian, ministerioaren kanpoko sarearen argitalpenak, estekak Baliabide Zentroen sarera, etab.
http://www.mecd.gob.es/redele/

• **Lacunza**
Donostian kokaturiko hizkuntza-prestakuntzako nazioarteko zentroa, gaztelania-irakasle prestakuntza-ikastaroak eskaintzen dituena.
http://www.lacunza.com/espanol/curso/de-formacion-de-profesores-de-espanol

• **Profesoresdeele.org:**
ELE irakasleentzako orria, sektoreari buruzko berri, prestatzeko baliabide eta atzerrian gaztelania-irakasle ibiltzeko lan-eskaintzak.
http://profesoresdeele.org/

• **Hispanismoaren ataria**
Munduko espainiar ikasketei buruzko informazio eguneratua ematen dute. Estekak zuzenean zaramatza ELE irakasleriarentzako lan-eskaintzen atalera.
http://hispanismo.cervantes.es/empleos.asp#empleo

• **Todoele.net:**
Eguneratutako lan-eskaintza ugari argitaratzen dituzte gaztelania-irakasleentzat. Horrez gain, ELE irakasleentzako baliabideak, materialak eta informazioa ere ematen dituzte.
http://www.todoele.net/trabofer/TrabajoOf_list.asp

• **Educaspain**
Gaztelania irakasteko (ELE) nazioarteko sarea, lan-eskaintzak, berriak, bekak, prestakuntza, ekitaldiak, itzulpenak, baliabideak eta materialak.
http://www.educaspain.com/

• **Beste baliabide eta lan-aukera batzuk**
http://recursosele.com/
http://cvc.cervantes.es/foros/tablones/tablon_did.htm#ofertas
http://www.cervantes.es/sobre_instituto_cervantes/plazas_trabajo.htm
http://www.aselered.org/
http://www.fiape.info/

http://todoelecomunidad.ning.com/
https://www.facebook.com/profesoresdeele
http://www.edustaff.co.uk/

7.3. B. Lanean edo beste jardun batean nabilen bitartean hizkuntzak ikasteko

"Europar Batasuneko beste herrialde batean lan egiteko prest nago, baina ez dut maila egokirik beste hizkuntza batzuetan". Hainbat pertsonak, eta bereziki gazteek, oztopo horri egin behar izaten diote aurre; izan ere, beren herrialdetik kanpo etorkizuna bilatzeko prest badaude ere, hizkuntza dela-eta, zailtasunak dituzte helmugako herrialdeko nazionalekin lehiatzeko.

Gidaren atal honetan, ordaindutako lan bat (prestakuntza txikikoa normalean, areago, hizkuntza-maila txikia izaki) eta hizkuntza-ikastaro bat aurkitzeko eskaintza eta aukera batzuk erakutsi nahi dizkizugu, horrela bidaiarako eta integraziorako erraztasunak eduki ditzazun.

AUKERAK:

- **Praktika profesionalak**

  Parte-hartzaile bakoitzaren **interes profesionalei loturiko** praktikak. Programa horiek diseinatu dira nazioarteko ikasleei oinarrizko **lan-esperientzia errazteko**, eta, horrela, egungo lan merkatuan abantaila lehiakor bat irabaz dezaten. Aldez aurretik eta praktikak egin bitartean **hizkuntza-ikastaroak egiteko aukera** eskaintzen dute normalean.

- **Ordaindutako lanak**

  Programa honetan parte hartzen dutenek zenbait lan egin ditzakete ostatua ordaintzeko, **gastu pertsonaletarako asteko edo hileko ordainsaria** jasotzeaz gain.
  Lanak hoteletan, jatetxeetan, gazte-egoitzetan, kanpamentuetan eta abar.
  Enpresa askok lanean hasi aurretik hizkuntza-ikastaroak egiteko aukera eskaintzen dute, eta, zenbait programatan, ikastaroak eta lana aldi berean egin daitezke.

• ***Au Pair* Programak**

Parte-hartzailea (gizon gutxiagok hartu ohi dute parte) jatorrizko familia batekin bizi da, haurrak zainduz, eta, aldi berean, etxeko zeregin arinetan lagunduz. Trukean ostatua, mantenua eta ordainsari bat jasotzen du astean, bere gastu pertsonaletarako. Egonaldi horiek hizkuntza-ikastaroekin uztartzen dira, normalean.

Lana eta ikasketak uztartzeko aukera: hizkuntza ikastaroak (12-20 ordu astean) eta etxeko eta haur-zainketako lanak (15-20 ordu astean) uztartzen dira.

OHARRA: 8. atalean au pair programei buruzko informazio gehiago daukazu eta 5. atalean bekei eta praktikei dagokiena.

7.3. C. Eskaintzen adibideak

Jarraian, agentzia baten eskaintza jakin bat aztertuko dugu. Ez dugu agentziaren izena aipatuko, faboritismorik egon ez dadin.
Agentziaren eskaintza Estudia y Trabaja en Hoteles del Reino Unido deitzen da. Bertan ingelesa ikasten eta lanean hiru hilabete ematea da gure helburua. Suposatuko dugu gure ingeles-maila apala dela.

Eskaintzak honako alderdi hauek hartzen ditu barne:
Ingeles-maila zehazteko elkarrizketa
Telefono bidezko Job Leading ikastaroa, Oxford University Pressen akreditazioa duena.
Zure Ingalaterrako bizimodu berria prestatzeko aholkularitza (telefonoz eta posta elektronikoz).
Erresuma Batuko hotelen datu-basean zure CVa zabaltzea.
Hotelarekin Skype bidezko elkarrizketak izapidetzea, bai eta enpresaren gonbidapengutuna zure lanpostu berrira helaraztea.
Jarraipena Erresuma Batuan ematen duzun lehen hilean.

Hauek dira eskaintzen duten lanaren baldintzak:
Lana: 5 edo 6 egun astean, 35 eta 55 ordu bitartean
Soldata: 800 eta 1.000 libera esterlina hilean
Ostatu hartzeko gastuak: 40 libera astean

Mantenua: hotelaren kargu, gehienetan
Ostatua hotelak langileentzat dituen logeletan

Gutxi gorabeherako kalkulua
Datu hauek izanda eta gutxi gorabeherako gastuak kontuan hartuta, honako gastu hauek egin ditugu. Diru-sarrerak 800-1000 liberakoak (eskupekoak aparte). Erdibideko soldata kalkulatuko dugu: 900 libera hilean (garbiak), bider 3 hil: 2700 libera (3375 euro).
Libera 1 = 1,25 euro.

	LIBERATAN	EUROTAN
Pakete osoaren kostua	612	€ 765
Ostatuaren kostua (40 libera astean) Jatorduak barne	480	€ 600
Joan-etorrien eta hegazkinaren kostua (joan-etorria)	400	€ 500
Beste gastu batzuk	320	€ 400
Ikastaroaren kostua, gutxi gorabehera (5 ordu astean, hiru hilez)	752	€ 940
Guztira	**2.564 Libera**	**€ 3.205**

Kontuan hartuta diru-sarrerak, gutxi gorabehera, 3.375 eurokoak izango direla eta hiru hiletan 3.205 euro gastatu behar izango ditugula, argi dago aukera hau ez dagoela dirua irabazteko egina. Areago, erne ez bagabiltza, dirua galtzen ere atera gaitezke. Baina, bestetik, atzerrian hiru hilabetez hizkuntza ikasten eta hori ordaintzeko aldi berean lanean egon izanari balioa eman behar zaio.

7.4. AGENTZIAK: HIZKUNTZAK ETA GEHIAGO

Zerrenda honetan hainbat agentzia eta enpresa bildu dira, honako hauek kudeatu eta antolatzen dituztenak: lanak atzerrian, hizkuntza-ikastaroak, lana eta ikasketak uztartzea, egonaldiak familietan, udako kanpamentuak, au pair egonaldiak eta praktikak, betiere hizkuntza hobetzeko helburuarekin.

- **INFOIDIOMAS**

Infoidiomas atariak datu-base osoa eskaintzen du: ikastaroak probintzietan eta atzerrian, online dauden aukerak hizkuntzak ikasteko, udako ikastaroak, eta abar. Work & Study atalean gomendatutako enpresen bilatzaile osotua duzu eskura, hizkuntzak eta lana bilatzeko gomendatuak hain zuzen.
www.infoidiomas.com/

- **ASEPROCE**

Atzerrian Hizkuntza Ikastaroak Sustatzeko Espainiako elkartea da. Ikasleen eskubideak babesteko sortutako elkartea da, profesionalek, enpresek eta legez ezarrita dauden erakundeek eratua. Ikus ezazu zein erakundek hartzen duten parte eta atzerrian proposatzen dituzten ikasketa- eta lan-programak.
http://www.aseproce.org/

- **Get Ready**

Espainiako agentzia bat da, eta udako programak, hizkuntza-ikastaroak atzerrian, ordaindutako lana eta abar eskaintzen ditu, baita Espainian gaztelania ikasteko zenbait programa ere.
www.getready.es/

- **EF**

EFk hizkuntza-ikastaroak, trukeak, hizkuntza-bidaiak, lan-praktikak eta atzerrian ikasteko beste hainbat programa eskaintzen ditu. Hautatu zure premietara ondoen egokitzen den programa!
http://www.ef.com.es/

- **Kaplan Internacional**

Kaplanek ingelesezko komunikazioa hobetzen lagunduko dizu, bai eta, atzerrian lan eginda, oinarrizko lan-esperientzia eskuratzen ere. Bere ikasleen emaitzak bermerik onena dira. Oso eskaintza interesgarriak ditu Europar Batasunetik kanpo.
www.kaplaninternational.com/spa/cursos/estudiar-trabajar/al-extranjero.aspx

• **Europaplus**
Adin guztietarako ikastaroak mundu osoan. Lan-programak eta ikastaroak enpresentzat.
www.europaplus.net/

• **IHS Idiomas**
Hizkuntza-programa eta -ikastaroak kudeatzen ditu atzerrian: eskolak, lanbide-praktikak, lanak, ikasturtea eta abar.
www.ihs-idiomas.com/

• **Intertravelwork, SL**
Enpresa honek hizkuntza-ikastaroak sustatu eta kudeatzen ditu atzerrian (EBko edozein herrialde, AEB, Hego Afrika, Australia, Zeelanda Berria), ostatuaren kudeaketaz arduratzen da, eta abar. Ordaindutako eta ordaindu gabeko zenbait praktika-programa ere kudeatzen dituzte, urte osoan.
http://www.itw.cat/

• **Infort.Org**
Infort hezkuntza-zerbitzuen erakundea da, atzerriko kultura- eta hizkuntza-programen kudeaketan eta aholkularitzan jarduten duena. Honako programa hauek eskaintzen ditu: hizkuntza-programak (ingelesa, frantsesa, alemana eta italiera),
praktikak kualifikatutako eta/edo ordaindutako enpresetan, hizkuntza eta boluntario-lana, eta au pair egonaldiak.
www.infort.es

• **Interlink**
Interlinkek ikastaro-katalogo zabala eskaintzen du. Ikastaroak ordaindutako praktikekin, enpleguarekin eta au pair programekin osatzen dira, Britainia Handian, Irlandan, Frantzian, Alemanian, Austrian, Norvegian, Finlandian, Australian, Kanadan eta AEBetan. Oso gomendagarria.
www.interlink-idiomas.com

• **ESL Idiomas en el extranjero**
Ikastaro eta enplegu-aukeren eskaintza zabala. Katalogoak doan jasotzeko aukera duzu, eta, besteak beste, enpresa honek elkarrizketa pertsonala egiteko aukera ere eskaintzen dizu, aukerarik onenak bilatzeko.
www.esl-idiomas.com/es/home.htm

• **Beste orrialde batzuk:**

London Job www.londonjob.net
Interclass http://interclass.es/
Studia In Italia www.studiainitalia.com/
Aulaingles.es www.aulaingles.es
Mosaic International Studies http://mosaic.edu.es/
Viajar y estudiar www.viajaryestudiar.com
Top School www.topschool.es
Easy-Go www.easy-go.org/
Sabatica www.sabatica.org/
Actiostay www.actiostay.com/
Language4you http://language4you.com/
Centro Cultural Idiomas www.ccidiomas.es
Choices www.choices-international.com/
Over The Rainbow http://www.overtherainbow.es/
LLC www.londonlanguagecentre.com/
Angloschola www.angloschola.com/index2.asp
Consulting Idiomas Extranjeros www.cie.es/
Euro Practice www.euro-practice.com
Anglojet http://www.anglojet.com/
Go Languages www.golanguages.es/
Idiomas Watson www.idiomaswatson.com/
Empleo en Londres www.language-in.com/
Trabajo en Londres http://www.trabajoenlondres.eu/
Time 2 London http://www.time2london.com/
Mundoidiomas
http://www.mundoidiomas.com/estudio-trabajo/cursos-trabajo-extranjero.php
Nacel http://www.nacel.es/
Sheffield Centre http://www.sheffield.es/es/
Club RCI http://www.clubrci.es/
CEVEX http://www.cevex.es/
European idiomas http://www.europeanidiomas.com/
ITEA http://www.itea-idiomas.com/
Grupo SHE Spanish Heritage http://she.es/cursos/

8 "Au Pair"

8.1. Zer da “au pair” plana? 237
8.2. Nola lan egin “au pair” moduan? 240
8.3. “Au pair” moduan joateko baliabideak 241

LABURPENA

'Au pair' joatea hizkuntzak ikasteko eta hobetzeko moduetako bat izan ohi da, eta, bidenabar, beste kultura bat ezagutzekoa eta atzerrian abentura eder bati ekitekoa. Askorentzat plan biribila da, eta gehienentzat esperientzia aberasgarria. Haurrak zaintzen eskarmentua izan ala ez, gida labur honetan abentura honetan parte hartzeko behar duzun adinako informazioa jasoko duzu.

- Ez baduzu kontaktu zuzenik edo familia batengana jotzeko kemenik, modu egokiena 'au pair' joateko agentzia batera edo horretan espezializatutako erakunde batera jotzea da.
- Egin plana sasoiz. Ez dago eperik; hortaz, behar beste denborarekin jokatu zuretzat aproposak diren datak aukeratzeko eta beharrezkoak diren izapideak egiteko.
- 'Au pair' jarduteko agentzia eta erakunde kualifikatuetara jo. Hasi hurbilen duzun aukeretara joaz.
- Gogoan izan bestelako aukera hauek ere: **DEMI AU PAIR** eta **AU PAIR COUPLE**. Interesgarriago begitandu ahal zaizkizu.
- Ez ahaztu Euskadin bertan dauden baliabideak!
- EURES eta EUROPE DIRECT ahalmen handien duten sareak dira eta Europa osoan zabalduta daude. Jo horietara.

8 "Au Pair"

8.1. ZER DA 'AU PAIR' PLANA?

Herrialde batera joan eta hizkuntza-maila hobetzeko bada modu merke bat: au pair plana. Jende askok (gehienetan neskak izaten dira) aukera hau hautatu du bidaiak egin, hizkuntza hobetu eta atzerriko herrialde bat ezagutzeko.

***"Au pair"* plana zera da, familia gonbidatzaile batekin bizitzera joatea eta familia horretako seme-alabak zaintzea, etxeko lan arinak egiten lagunduz**. Gehieneko lan-

orduak aldatu egiten dira au pair aukeraren arabera eta herrialdearen arabera, baina, oro har, astean 25-35 ordu izaten dira eta astean egun bat, gutxienez, libre izaten da. Trukean, au pairra familia hartzailearekin bizi da, familiako kide bat izango balitz bezala, eta astean diru-kopuru txiki bat jasotzen du. Batzuetan, au pairrak hizkuntza-ikastaroak edo bestelako ikastaroak egiten ditu ordu libretan.

Lan-ordutegitik kanpo, libre eta independente izango zara. Au pairrek ez dute lan-harremanik familia hartzailearekin; izan ere, Europaren kasuan, Au pairrei buruzko Europako Itunari atxikitzen zaizkio eta herrialde bakoitzeko arauak bete behar izaten dira. EBko herrialde askotan atzerriko neskei erraztasunak ematen dizkiete bisatua eta lan- baimena lortzeko.

Ez dira nahastu behar au pair direlakoak eta nannyak; azken horiek haurrak hezteko kontratatzen dira baina ez ohi dira familia enplegu-emailearekin bizitzen. Nannyen prestakuntza heziketarekin eta pedagogiarekin loturik egoten da eta ordainsariak, betebeharrak eta eskubideak lan-arloko legeriaren araberakoak izaten dira.

Esperientzia batzuk ezagutu nahi badituzu, RTVEren "Comando Actualidad" programako "Yo en verano, aprovecho - Au pair" saioa gomendatzen dizugu.
http://www.rtve.es/alacarta/videos/comando-actualidad/comando-actualidad-yo-verano-aprovecho-au-pair/1152978/

- **Au pair joateko baldintzak**
  - Adina: 18 eta 30 urte bitartean. Salbuespenik izan ahal da goiko mugatik, inguruabarrek hala justifikatuta eta helmugako herrialdeak onartuta.
  - Gizona zein emakumea.
  - Ez dute haien ardurapeko pertsonarik izan behar.
  - Umeak zaintzen ibili izanaren eskarmentua.
  - Beste herrialde eta beste kultura batean bizitzeko pertsona zabala, malgua eta prestatua izatea.
  - Helmugako herrialdeko hizkuntza nahiko jakitea, behinik behin eguneroko elkarrizketa arruntetan moldatzen jakitea.
  - Tokian-tokian bestelako baldintzak ezarri ahal dira. Mesedez, egin kontsulta.

• Poltsikorako dirua

Gutxienik au pair diharduenak astean 70 euro jasoko ditu (poltsikorako dirua deritzona) **edo hortik gora familiari emandako laguntzaren arabera.**

Kopurua agentziak edo harrera-familiak ezarriko dute eta parte hartzaileari aurretiaz jakinaraziko zaio zertan den. Familiak ordainketa astero-astero egingo du, eta berau asteko zein egunetan izango den ondo zehaztuko da.

Poltsikorako diruaren kopuruak alda daitezke herrialdez herrialde:

- Erresuma Batua: 70-80 libera astero.
- Alemania: 260 € hilero.
- Estatu Batuak: 195,75$ astero.

• Au pair: ostatua

Egonaldiak irauten duen bitartean ostatua eta pentsio osoa emango dio familiak au pair dabilenari.
Bakarkako gela izango du, ondo egokitua, altzari eta guzti, eta leihoduna ondo aireztatzeko. Au pairren ardura izango da gela garbi eta txukun izatea.

• Asegurua

Au pair ibiliko denaren ardura da helmuga duen herrian osasun-estaldura izatea, bai eta istripuei, herrialdera bueltatzear eta erantzukizun zibilari dagozkien aseguruak, baldin eta helmugako herriko gizarte-segurantzak edo beste organo batek bermatzen ez baditu. - EGIN KONTSULTA.

Au pair dabilenak gidatzeko ardura izanez gero, familiak aseguruan sartuko du eta horrek eragindako gastua ordaindu.

• Au pair ibiltzeko beste aukera batzuk

DEMI PAIR
Lanaldi erdiko au pair modalitatea da hau. Astean 20 ordutan familiaren umeak jagon eta etxeko lan arinetan lagunduko duzu. **Ez duzu diru-ordainik edo poltsikorako dirurik jasoko**. Ostatua eta jana dituzu saritzat 20 orduko laguntza horren truke.
Ordu libre gehiago izango duzu hizkuntzak ikasteko edo bestelako ekintzak egiteko.

AU PAIR COUPLE
Au pair bikoteka ibiltzeko aukera ere bada. Zaila da halakorik lortzea, baina hainbat agentzia saiatzen da: hiri edo herrialde batean bikote bat batera aritzeko aukera ematen du modalitate honek.

8.2. NOLA LAN EGIN 'AU PAIR' MODUAN

Bi aukera daude:

1. Zenbait **webguneren bitartez** familiarekin zuzenean harremanetan jar zaitezke. (Horrek hainbat konplikazio eragin ditzake). Izan ere, bitartekorik ez dagoenez, harrerako familiarekin egokitzeko edo bestelako arazorik egonez gero, ez dago inolako euskarririk. Bestetik, bitartekaririk gabe, aurreztu egiten da.

2. Au pair zerbitzuak kudeatzen dituen **agentzia** bat bilatzea. Dena legezkoa dela bermatzeko, agentzia **IAPA International Au Pair Association elkartean erregistratuta** dagoela egiazta dezakezu; IAPA elkartea 1994. urtean sortu zen au pair lanetan aritzen ziren pertsonak babesteko.

Agentziek eskaintzen dituzten zerbitzuak aldatu egiten dira, baina, oro har, au pair bakoitzari familia egokia bilatzen diote eta alderantziz, eta izapide burokratikoak ere betetzen dituzte. Eskatzaileak diru-kopuru bat ordaindu behar izaten du eta horren truke, zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea izango du.

• **Au pair jarduteari buruzko Europako Hitzarmena (legedia):**
http://www.judicatura.com/legislacion/1481.pdf
http://www.empleo.gob.es/es/guia/leyes/Aaupair.htm
https://www.boe.es/diano_boe/txt.php?id=BOE-A-1988-21042
http://conventions.coe.int/Treaty/FR/Reports/Html/068.htm [EN][FR][IT][DE]

8.3. "AU PAIR" MODUAN JOATEKO BALIABIDEAK

• **AEPA.** *Au pair* Programarako Espainiako Agentzia
Au pair Programarako Espainiako Agentzia edo AEPA, Espainian diharduen eta nazioartean onartutako erakunde bakarra da. Estatuan Au Pair Programa sustatzea du helburu, eta batutako kide guztiek etika-kode bati eutsi behar diote nahitaez. Aztertu zer kide biltzen dituen eta eskaintzen duten informazioa.
http://www.spanishaupairassociation.com/

• **ASEPROCE**
(Atzerrian Hizkuntza Ikastaroak Sustatzeko Espainiako Elkartea)
Atzerrian Hizkuntza Ikastaroak Sustatzeko Espainiako elkartea da. Ikasleen eskubideak babesteko sortutako elkartea da, profesionalek, enpresek eta legez ezarrita dauden erakundeek eratua. Ikus ezazu zein au pair programa eskaintzen duten.
http://www.aseproce.org/

• **Transitions abroad.com**
Webgune honetan liburu bateko kapitulu baten laburpena aurkituko duzu; hain zuzen ere, erakunde eta agentziek gomendatzen duten *The Au Pair and Nanny's Guide to Working Abroad* liburuaren "Au pair moduan lan egitea Europan" izeneko kapituluaren laburpena. Susan Griffith eta Sharon Legg dira idazleak. Horretaz gain, au pair plana kudeatzen duten Europako hainbat herrialdetako agentzien zerrenda bat ere aurkituko duzu. **Webgune oso gomendagarria!**
www.transitionsabroad.com/publications/workabroad/articles/workasaupairineurope.shtml [EN]

• **International Au pair Association**
Elkarte hau 1994. urtean sortu zen au pair lanetan aritzen diren pertsonak babesteko. Au pairrei herrialdeari buruzko informazioa ematen die; au pair zerbitzuen kudeaketarekin loturiko enpresa eta agentziak biltzen ditu eta laguntza praktikoa bermatzen du.
www.iapa.org/ [EN]

• **Au pair World**
Au pair moduko enpleguari buruzko datu-base ezagunena da Interneten. Au pairrak eta harrera-familiak doan erregistra daitezke. Erregistratu ostean, zuk nahi duzun au pairrarekin eta familiarekin zuzenean harremanetan jar zaitezke munduko edozein txokotan. http://www.aupair-world.net/

• **Au pair Box**
Ezin errazagoa! Bete ezazu «eskaintzak» edo «eskaerak» inprimakia eta bidali Internet bidez. Era berean, Txat bat eta foro bat ere baditu, esperientziak elkartrukatzeko.
www.au-pair-box.com

• **Find au pair**
Mundu osoan komenigarrienak diren au pairrak eta familiak aurkitzeko atari bat. Eztabaida-foroa, bisatuei buruzko informazioa eta ohiko galderak.
www.findaupair.com [EN]

• **Planet au pair**
1992an sortua, 'au pair' programa baten bitartez Espainian, Frantzian, Alemanian, Austrian, Italian, Ingalaterran, Irlandan, Eskozian edo AEBetan bizitzeko aukera ematen die gazteei Planet Au Pair agentziak.
www.planetaupair.com

• **Au Pair elkarteak**

Kangaroo Au Pair https://kangarooaupair.com/es

RC Aupairs http://www.rcaupairs.com/

International Au Pairs http://www.languageabroad.info/

Au Pair in Spain http://www.aupairinspain.es/

SpanishTeachers
http://www.spanishteachers.es/jovenes-adultos/au-pair-y-demi-pair/

Au Pair Conecta http://www.aupairconecta.com/

Destino Idiomas http://www.destinoidiomas.com/au-pairs.html

Family&Au Pair http://www.familyandaupair.es/es

Grafton School
http://www.graftonschool.com/programas-au-pair/programa-au-pair-en-europa

Hola Au Pair http://www.holaaupair.com/
Inpar3 http://www.inpar3.com/#!ser-au-pair/c1gjg
Mag´AuPair http://www.magaupair.com/
Global Au Pairs http://www.global-au-pair.com/
Servihogar http://www.servihogar.org/
Aupair Castellón http://www.aupaircastellon.com/
New Au Pair http://www.newaupair.com
The Best Au Pair http://www.thebestaupair.com/en.aspx

- **Erresuma Batuan eta Irlandan 'au pair' gisa lan egiteko agentzien zerrenda**

Easyaupair [EN]
http://es.easyaupair.com/aupair_trabajo/United-Kingdom/England/London/
Aupairnet24 [EN]
http://www.aupairnet24.com/es/family/UK/p1
Learn4good [EN]
http://www.learn4good.com/jobs/language/spanish/list/au_pair/uk_reino_unido/
Aupair-village[EN] https://www.aupair-village.com/es/
Findababysitter [EN] http://www.findababysitter.com/
Care [EN] https://www.care.com/
Greataupair [EN] http://www.greataupair.com/
Nanny-agency [EN] http://www.nanny-agency.com/
Sittercity [EN] https://www.sittercity.com/
Meetaupairs [EN] http://meetaupairs.net/
Childcare [EN] http://meetaupairs.net/
Universalaupairs [EN] http://www.universalaupairs.com/
Bappa http://bapaa.org.uk/
Care Like Me http://www.carelikeme.co.uk/ [EN]
Spanish Au Pair http://spanishaupair.ie/ [EN]
Au Pair By Avalon http://www.aupairsbyavalon.com/

- **Alemanian eta Suitzan 'au pair' jarduteko agentzien zerrenda**
  http://www.au-pairs.de/
  http://www.aupairagentur-cefelin.de/
  http://aupair-visa-switzerland.greataupair.com/
  http://www.profilia.ch/

9 Boluntario lana

9.1. Nazioarteko boluntarioak **246**
9.1.A. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa 247
9.1.B. Nazioarteko boluntarioentzako baliabideak 248
9.2. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS) **251**
9.2.A. Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzeko 6 urrats 252
9.2.B. Europako boluntarioekin loturiko baliabideak 254
9.3. Auzolandegiak **255**
9.3.A. Auzolandegiak, Euskadiko lan-eremuak 256
9.3.B. Auzolandegiekin loturiko baliabideak 256
9.4. Gazte trukeak **258**
9.4.A. Gazte-trukeei buruzko baliabideak 258

LABURPENA

Besteei laguntzeaz batera, ez dauzkazun gaitasunak eskuratu nahi dituzu? Boluntario-lanak bestelako jendea eta kulturak ezagutzeko aukera emango dizu, eta zure bizitzan eta zure etorkizuneko lan-ibilbidean eragin itzela izango duen esperientzia biziko duzu. Boluntario-lanean beste herrialde batera joan ahal zara edo zure etxetik gertuago lankidetzan aritu. Jarraian datozen orrialde hauek Europan eta munduan eskura duzun aukera zabalaren berri emango dizute.

- Nazioartean boluntario ibiltzea aldez aurretik planifikatu behar da eta hainbat baliabide eskura izan. Irakurri arretaz atal hau, edozertan hasi baino lehen.
- Interesa baduzu, baina aurreneko aldia bada, erabili Eusko Jaurlaritzak eskainitako baliabideak (Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa eta Auzolandegiak).
- Europako Boluntario Zerbitzua aukera interesgarria da: ez dakar kosturik eta gaikako lanketak proposatzen ditu.
- Oraindik ere zalantzarik? Kontsultatu Gazteaukeran hurbil dituzun kolektiboak eta baliabideak, hautu onena egiten lagunduko dizute eta.

9 Boluntario lana

9.1. NAZIOARTEKO BOLUNTARIOAK

Nazioarteko Boluntario Zerbitzua aurreko mendean sortu zen, 1920. urtean, eta hainbat esparrutako ekintzak biltzen ditu, hala nola hezkuntza-alorreko lankidetza, boluntarioak larrialdi eta katastrofe humanitarioetan, prebentzioa eta landa-garapena.

Europako Boluntario Zerbitzuak baino perspektiba zabalagoa du.

Prozesuan **hiru parte-hartzaile** nagusi daude: **boluntarioa**, erakunde igorlea eta erakunde hartzailea. Kontuan izan behar da erakunde igorlerik ez dela beti izaten.

Irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundek ostatua eta otorduak eskaintzen dizkiete gazteei berariazko programetan laguntzako eta lankidetzako lanak egitearen truke. Oporrak edo gure bizitzako aldi bat igarotzeko beste modu bat da; beste hizkuntza eta/edo kultura bat ezagutzeaz gain, interes sozial, kultural edo humanitarioko proiektu batean lagun dezakegu. Erakunde bat edo beste aukeratzeko garaian, hainbat faktore izan behar dira kontuan: zer alorretan lan egin nahi dugun, non egin behar diren boluntario-lanak, zenbat denbora dugun eta gure berariazko prestakuntza.

9.1. A. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi bazara, 1986 eta 1993 bitartean jaio bazara eta jarduera gauzatuko den herrialdeko nazioarteko hizkuntza baldin badakizu, programa honen bidez boluntario-zerbitzua eskain dezakezu Amerikako, Afrikako edo Asiako herrialdeetan, hiru hilabetez.
Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatzen dute programa hau, Euskadiko gazteak sentsibilizatzeko Hegoaldeko herrialdeen garapenari laguntzeko lankidetza-ekintzen bidez eta EAEko gazteengan herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzeko.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa: Informazio gehiago Gazteaukera webgunean:
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-6525/eu/contenidos/informacion/jov_coop_1programa/eu_13753/programa.html

9.1. B. Nazioarteko boluntarioentzako baliabideak

Zerrenda honetan, boluntarioen programak dituzten **erakundeei buruzko informazioa aurkeztuko dugu:**

• **Volunteers for peace**
Bakearen aldeko ekimenetan eta laguntza humanitarioa ematen nazioartean lan egiteko boluntarioak.
www.vfp.org/ [EN]

• **World volunteer**
Mundu osoko boluntarioen lanerako baliabideak biltzen dituen
www.worldvolunteerweb.org/ [EN]

• **Boluntario programen nazioarteko elkartea**
Kontsulta itzazu online aukera guztiak eta irakurri informazio praktikoa, baita, oro har, boluntarioen lanari buruzko zenbait gomendio ere. Bi hilean behin buletina kaleratzen dute, eta harpidetza egin daiteke.
www.volunteerinternational.org/ [EN]

• **Global volunteer network**
Libre dauden boluntario-postuei buruzko informazioa, Txina, Ekuador, Ghana, Nepal, Errumania, Errusia, Thailandia eta Ugandako erakunde kideen bitartez. Hautagai izan nahi baduzu, online formularioa bete dezakezu. Eta ez ahaztu argazkiak begiratzea!
http://www.globalvolunteernetwork.org/ [EN]

• **OXFAM**
Oxfam International erakundearen edo bere erakunde elkarturen baten boluntario-zerbitzuaren jardueretan parte hartzeko moduari buruzko informazio praktikoa.
http://www.oxfam.org/en/countries/volunteer-us

• **Nazioarteko zerbitzu zibila**
Boluntarioen proiektuak, epe labur eta luzekoak, mundu osoan; horrelako proiektuak gauzatzen dituzten erakundeei buruzko informazioa eta beste hamaika lotura eta dokumentu baliagarri.
www.sciint.org [EN]

• **Boluntarioak atzerrian**
Boluntario-zerbitzua interesatzen al zaizu? Webgune honetan boluntarioen lanari buruzko informazioa aurkituko duzu, baita nondik hasi behar duzun ere. Beste webgune baliagarri batzuekiko loturak ere baditu.
http://www.goabroad.com/volunteer-abroad [EN]

• **Rural volunteers**
Ingurumenaren arloko boluntario-lana egin nahi duzu, nagusiki metodo ekologiko eta iraunkorrekin lan egiten duten landetxeetan edo herrixketan? Orduan, WWOOF da zure elkartea. Bilaka zaitez WWOOFER eta parte hartu esperientzia honetan, mundu osoko landetxeetan.
http://ruralvolunteers.org/WHOSTS/ [EN]
http://wwoofinternational.org/ [EN]

• **Volunteer Action for Peace (VAP)**
Volunteer Action for Peace Erresuma Batuko ongintza-erakundea da, nazioarteko bakea, justizia eta gizakien arteko elkartasuna eraikitzearen eta horiei eustearen alde lan egiten duena, bai pertsonentzat, bai euren komunitateentzat. Proiektuak garatzen ditu mundu osoan.
http://www.vap.org.uk/

• **Lagundu etxetik**
Webgune honek etxetik mikroboluntario-lana egiteko aukera ematen dizu, hau da, astialdiaren zati bat kausa handietan eta etxetik laguntzeko erabiltzeko. Proposamen interesgarria. Mikroesfortzua, makroinpaktua.
http://helpfromhome.org/

• **Workingabroad**
Erakunde independentea, mundu osoan boluntario aritzeko aukera ematen duena. Hautagai izateko formularioa online bete dezakezu eta boluntarioen esperientziak ere irakur ditzakezu.
www.workingabroad.com [EN][FR]

• **Youth challenge international**
Erronkak gustuko dituzu? Bizi ezazu esperientzia hau 18-30 urteko boluntario-taldeekin batera, tokiko garapenaren, arreta sanitarioaren eta ingurumenaren esparruetan.
www.yci.org [EN]

• **British trust for conservation volunteers**
Fundazio honek ingurumena babestearekin loturiko boluntario-lanak sustatzen ditu.
www.tcv.org.uk/ [EN]

• **Cross-cultural solutions**
Boluntario-programa hauek osasunarekin, hezkuntzarekin eta garapenarekin loturik daude, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Asiako, Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako hainbat eremutan dituzte programak.
www.crossculturalsolutions.org/ [EN]

• **Do it**
Britainia Handiko boluntario-erakundea; 40 urtetik gorako esperientzia du. Erresuma Batuko boluntario-lanari buruzko datu-basea eskaintzen du.
https://do-it.org/ [EN]

• **Educo**
Proiektu humanitarioak Asian, Afrikan eta Latinoamerikan. Boluntarioen poltsa dauka.
http://www.educo.org/

• **Munduan lan egitea. Boluntario-lana**
Boluntario-laneko hainbat orri eskura (2016ko Rio Janeiron ospatuko diren olinpiadetarako, Nepalen ingelesa irakasteko, Cabo Verden edo Estatu Batuetan itsas dortokak babesteko, etab.)
http://trabajarporelmundo.org/category/voluntariados/

• **Kibbutz Volunteer**
Israelgo kibbutz batean boluntario jarduteko gomendioak eta informazioa.
www.kibbutzprogramcenter.org/ [EN]

• **YES 4 EVS**
Boluntario-lana Europan, Afrikan eta Latinoamerikan.
http://www.yesforevs.eu/worldwidevolunteering.php

• **United Nations Volunteers**
Nazio Batuen boluntario-laneko programa.
www.unv.org/

• **DRH NORWAY: ONE WORLD VOLUNTEER INSTITUTE**
Gazteentzako boluntario- eta lankidetza-programak.
http://drh-norway.org

• **EROSKI CONSUMER**
Alfabetikoki ordenatutako GKEak.
http://ong.consumer.es/

• **COOPERATING VOLUNTEERS**
Boluntario-lan eskaintzak mundu osoan zehar.
http://www.cooperatingvolunteers.com/

• **Boluntario-lanak Erresuma Batuan egiteko asmorik?**
Charityjob.com
Charitypeople.co.uk
Ncvo.org.uk
Voluntaryworks.org.uk
RoyalVoluntaryService
Idealist.org
Handsupholidays.com
Keenlondon
Timebank
Redcross
Nationaltrust

9.2. EUROPAKO BOLUNTARIO ZERBITZUA (EVS)

ERASMUS+ programaren ekintzetako batek Europako Boluntario Zerbitzua (EVS) du izena. EVS ikaskuntza-esperientzia ez formala da, pertsona gazteei beren hezkuntza-, prestakuntza- eta lanbide-garapenean eragina duten gaitasunak lortzeko edo hobetzeko aukera ematen diena. Gizarteratzen ere laguntzen die.

Boluntarioek **jatorrizkoa ez den beste herrialde bateko boluntario-lana garatzen dute**. Egin beharreko lanak jardunaldi osoan burutzen dira epe zehatz baterako (normalean **2 eta 12 hilabete bitartean**) eta onura nabariak dakarzkiote helmugako erkidegoari. Hainbat arlo dituzu aukeran, **kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte-laguntza eta ingurumena, besteak beste.**

Jarduera ordaintzen ez bada ere, programak ia gastu guztiak estaltzen ditu:

- **Egonaldiaren gastuak** (ostatua, mantenua eta tokiko garraioa) guztiz ordaintzen dira.
- **Joan-etorrien gastuak** (helmugarainoko joan-etorriak distantziaren araberako unitateko kostuen taula batean oinarrituz finantzatzen dira).
- **Esku-dirua** (gastu txikietarako dirua; zenbatekoa herrialdearen araberakoa izango da).

Boluntario-lanetan honako hauek hartzen dute parte:

- **Erakunde hartzaile** batek (bertan garatuko dira boluntario-lanak).
- **Erakunde igorle** batek (bizi zaren herrikoa).
- **Koordinazio-erakunde** batek (eskatzailea; proiektuaren administrazio- eta finantza-arduraduna). Harrerako erakundearen berdina izan ohi da.

BOLUNTARIO IZATEKO OINARRIZKO BALDINTZAK

- 17 eta 30 urte bitartean izatea diru-laguntza eskatzerakoan.
- Jatorriko erakundearen herrialdean legezko bizilekua izatea.
- Ordainsaririk gabeko proiektu boluntario batean inplikatzeko gogoa.
- Erakunde hartzaile, erakunde igorle eta koordinazio-erakunde bat izatea.

9.2.A. Europako boluntario zerbitzuan parte hartzeko 6 urrats

1. URRATSA

Aurkitu **“zure proiektua”** Europako Batzordearen datu-base o izialean.Datu-base horretan sartzeko, bilatu Google-n **“EVS database”** edo sartu zuzenean ondorengo webgunean: http://europa.eu/youth/evs_database_es. Bertan erakunde hartzaile guztiak eta garatzen dituzten proiektuak aurkituko dituzu, bai eta erakunde igorle gertukoenak ere. Erabili datu-basea **interesatzen zaizun proiektu bat bilatzeko**. Ziurtatu baldintza guztiak betetzen dituzula eta berrikusi proiektuaren eta erakundearen deskribapen- itxa; han zehazten dira beren harremanetarako datuak.

2. URRATSA.
Idatzi harremanetarako helbide elektronikora Europako boluntario-proiektuan parte hartu nahi duzula jakinarazteko, **boluntarioen bila** dauden jakiteko eta, hala izanez gero, **noizko** behar dituzten galdetzeko.

3. URRATSA.
Baietz erantzuten badizute, **bidal iezaiezu zure Europass CVa eta aurkezpen-gutuna** jatorriko herrialdearen hizkuntzan edo, besterik ezean, ingelesez.
https://europass.cedefop.europa.eu/es/home

4. URRATSA.
Aukeratu duzun erakunde hartzaileak hautatu zaituenean, **jo ezazu Euskadin egiaztatutako erakunde igorleren batera**. Gaur egun Euskadin Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzen ari diren erakunde igorle nahiz hartzaile egiaztatuen zerrenda aurki dezakezu **Gazteaukeran**, bai eta partaideen esperientziak eta argazkiak ere.
http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-5072/eu/contenidos/informacion/prog_europeos_proyectos/eu_9054/programa_juventud_proyectos.html

5. URRATSA.
Erakunde igorlearekin harremanetan jarri eta gero, erakunde hori arduratuko da zure proiektuaren administrazio-izapide guztiak kudeatzeaz, hala nola zure **"Boluntario-hitzarmena"** adosteaz; koordinazio-erakundea eta alderdi guztien eskubide eta betebeharrak ezartzen ditu.

6. URRATSA.
Koordinazio-erakundeak zure egonaldia finantzatzeko balio duen boluntario-proiektua eskatuko du. Hiru deialdi daude urtean; horrek zehaztuko du proiektuaren hasiera-data. Horregatik gomendatzen dizugu 6 hilabete lehenago has zaitezen zure boluntario-proiektua bilatzen.

9.2.B. Europako boluntarioekin loturiko baliabideak

• **EVS: Informazio gehiago eta hautagai izateko formularioak**
Xehetasun gehiago aurkituko dituzu gazteria-programaren Europako Boluntario Zerbitzuaren proiektuari buruz: proiektuaren deskribapenak, nork parte har dezakeen eta nola parte hartu.
Boluntario nahiz erakunde hartzaile izan, EVSen programa batean parte hartzeko eskaera aurkezteko nahitaez bete beharreko formularioak aurkituko dituzu (PDF edo WORD formatuan).
http://europa.eu/youth/evs_database_es [EN]

• **Gazteak Ekinean programaren Espainiako Agentzi Nazionala**
Irten baino lehenagoko informazio praktikoa eskaintzen du (dokumentazioa, segurtasuna, bankuko paperak etabar):
http://www.formacionsve.es/salida/7_aspectos_practicos.php

Indarrean dagoen programa eta ohiko galderak
http://www.erasmusplus.injuve.es/

• **Europa eres tu**
Europako boluntarioen inguruko azken eskaintzen berri ematen dute.
http://europaerestu.eu/

• **Zerbitzu boluntarioaren Europako erakundeen elkartea**
Elkarte honetan biltzen dira zerbitzu boluntarioaren nazioarteko proiektuak gauzatzen dituzten erakunde nazionalak. Webguneak sarearen aurkezpen zehaztua eskaintzen du, baita kideen zerrenda bat ere.
https://www.facebook.com/alliancenetwork/info?tab=page_info [EN]

• **Zerbitzu boluntarioaren erakundeen elkartea**
Atzerrian boluntario-jarduera egin nahi baduzu, webgune honek informazioa eskainiko dizu Europan zerbitzu boluntarioko programekin lan egiten duten erakunde kide guztiei buruz.
http://www.avso.org/all-about-volunteering [EN]

• **Gazteen Europako ataria**
Europako Boluntario Zerbitzuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, atari hau bisitatzea gomendatzen dizugu.
http://europa.eu/youth/splash_en

9.3. AUZOLANDEGIAK

Auzolandegia zera da, **arraza, kultura, ideologia eta nazionalitate guztietako pertsonak elkarrekin bizi eta lan egiten duten toki bat**; 10 egunetik hilabete batera bitarte irauten du proiektuak eta tokiko babesle batek antolatzen du. Auzolandegi gehienak udan izaten dira eta 7 parte-hartzailetik 25 parte-hartzailera bitarte izaten dituzte, nazioartekoak.
Auzolandegietan jende askoren energiak uztartu eta elkarrekin gure etorkizun komuneko arazo garrantzitsuak konpontzen dira. Pariseko haurrentzako zentro batean lan egin dezakezu, Austriako garapen iraunkorreko proiektu batean eta abar.

Proiektuak hiru kategoriatan sailkatzen dira:
- lan fisikoa: eraikuntza, konponketak edo haztegiak;
- gizarte-lana: haurrekin edo arazoak dituen jendearekin; eta
- lana eta ikasketak: lan egitearekin batera ikasi ere egiten da.

Eta hainbat modalitate ere badira, nazioartean erabiltzen den kodearen arabera.
- AGRI - Nekazaritza
- ART - Auzolandegi artistikoak
- CONS - Eraikuntza
- CULT - Kultura
- ENVI - Ingurumena
- FEST - Jaia
- HIST-STUDI – Historia eta ikasketak
- KIDS - Umeekin lan egitea
- MANU - Eskuz egin beharreko lanak
- RENO - Zaharberritzea
- RENO-HERI-RESTORATION – Kultura edo ondarea
- SOCI - Gizarte-proiektua
- WORK & STUDY – lana – ikasketak / Eztabaidak / Ikerketa

9.3.A. AUZOLANDEGIAK Euskadin

Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak Euskadiko gazteentzat auzolandegiak antolatzen ditu atzerrian. Gazteaukera webgunean izango duzu plazei eta baldintzei buruzko informazioa, baita jendearen esperientziak ere.
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-3412/eu/contenidos/informacion/campos_trabajo_informacion/eu_7496/campos_trabajo_informacion.html

9.3.B. Auzolandegiekin loturiko baliabideak

• **Nazioarteko zerbitzu zibila**
Boluntario-zerbitzuko erakundea; mundu osoan 37 adar eta talde ditu eta iraupen laburreko auzolandegien antolaketa zuzentzen du. Auzolandegiei buruzko informazio orokorra eta joan aurretik prestatzeko gomendioak. Auzolandegiak bilatzeko, herrialdearen arabera edo gaiaren arabera egin daiteke.
www.ongsci.org

• **Concordia**
Erakunde honek Europan, Afrikan, Asian eta Latinoamerikan auzolandegiak finkatzen eta babesten ditu. Auzolandegiei buruzko informazioa eta, joan aurretik, nola funtzionatzen duten hobeto ezagutzeko eta prestatzeko gomendioak.
https://www.concordia.fr/ [FR]

• **Nazioarteko trukerako ongintzako erakundea**
Nazioarteko erakunde honek Alemanian, Latinoamerikan eta Suitzan ditu auzolandegiak. Programei buruzko informazio orokorra ematen du eta auzolandegi batean aurki daitekeenaren gaineko gomendioak ere bai. Informazioaren zati bat ingelesez aurki daiteke.
www.ibg-workcamps.org [DE] [EN]

• **Pro International**
Alemaniako erakunde honek mundu osoko auzolandegietan jarduten du. Proiektuen deskribapena egiten da webgunean eta hautagai izateko formulario bat ere aurki daiteke, parte-hartzaileekin harremanetan jartzeko datuekin batera. Informazioaren zati bat ingelesez ere aurki daiteke (programa PDF formatuan).
www.pro-international.de [DE]

• **Nazioarteko boluntario zerbitzua**
Udako kanpamendu batean partehartzeko aukera izango duzu Europan, Ipar Amerikan edo Afrikako iparraldeko herrialdeetan, mundu osoko jendea ezagutuz. Proposatzen dituzten jardueren artean, bakearen aldeko eta arrazakeriaren aurkakoak nabarmen ditzakegu. Egonaldiak iraupen labur, ertain edo luzekoak izan daitezke. 18 urtetik gorakoek baino ezin dute parte hartu..
www.ivs-gb.org.uk [EN]

• **Gazte boluntarioen nazioarteko zerbitzu komunitarioak**
Alemanian eta Europako gainerako herrialdeetan antolatzen diren iraupen laburreko auzolandegiei buruzko informazioa, baita Afrikan, Asiako hegoaldean eta Latinoamerikan egiten diren auzolandegi luzeei buruz ere. Programen eta proiektuen deskribapena eta eskaera aurkezteko eta prestatzeko gomendioak. Informazioaren zati bat ingelesez aurki daiteke.
www.ijgd.de [DE] [EN]

• **Gazteen elkartasuna: nazioarteko auzolandegiak**
Frantziako Gazte eta Kirol Ministerioaren esparruan, elkarte honek nazioarteko auzolandegiak antolatzen laguntzen du. Auzolandegiei buruzko informazio orokorra.
www.solidaritesjeunesses.org/?section=1 [EN] [FR]

• **Kings camp**
Gazteei euren gaitasunak kirolaren bitartez garatzen laguntzen dien ongintza-fundazio batean dago Kings Camps. Bere kanpamentuetan diruz lagundutako plazak eskaintzen dituen GKE bat da.
http://www.kingscamps.org/

9.4. GAZTE TRUKEAK

Truke-programei esker, beste herrialde bateko **familia batera joateko aukera** izango duzu aldi baterako; familia aldez aurretik hautatzen da eta horrekin batera, **ikastetxe batera ere joango zara**, edo bestela, ikasturtea atzerrian egin dezakezu **harrera-familia batean**.

Familiek kultura-trukean parte har dezakete etxetik atera ere egin gabe. Nazioarteko parte-hartzaile bat hartuz gero, familia osoak izango du kultura-arteko esperientzia paregabe eta aberasgarria bizitzeko aukera. Irakatsiz, ikasiz eta konpartituz, denbora eta distantzia gaindituko dituen adiskidetasuna eta lotura sortuko da.

> Oharra: ERASMUS+ programaren barruan, Europar Batasunak taldeko gazte-trukeak finantzatzen ditu. Informazio gehiago nahi izanez gero, ERASMUS+ egitasmoari buruzko 6. atalean aurkituko duzu.

9.4.A. Gazte-trukeei buruzko baliabideak

• **Ikasi eta esperimentatu beste kultura batzuk**
AFS boluntarioen erakundea da, irabazi-asmorik gabekoa. Webgunean programak aurki daitezke, gazte parte-hartzaileen eta nazioarteko ikasle gazteak hartu nahi dituzten familien artean kultura-arteko ikaskuntza sustatzeko programak, hain zuzen.
www.afs-intercultura.org

• **Youth for understanding (nazioarteko ikasle trukea)**
Urtebete edo uda bat atzerriko familia gonbidatzaile batekin bizitzen igarotzeko aukerak aurkituko dituzu. Hautatu zure jatorrizko herrialdea eta parte hartzeko moduari buruzko informazioa lortuko duzu.
www.yfu.org

• **Gazteak bakearen alde ekinean (Youth Action for Peace – YAP)**
Webgune honetan, mundu osoko boluntarioen trukeetan parte hartzen eta nazioarteko gazte-mugimenduekin lan egiten duten erakundeen lotura interesgarriak aurkituko dituzu.
www.yap.it [EN]

• **Lions Club**
Erakunde honek 15-21 urteko gazteen arteko trukeak antolatzen ditu, lau astetik sei astera bitarteko aldietarako. Nazioarteko harremanen eta zonen araberako trukeen arduradunekin harremanetan jartzeko informazioa aurkituko duzu. Informazioaren zati bat beste hizkuntza batzuetan ere aurki dezakezu; web-orri nagusian egin behar da hautaketa.
www.lionsclubs.org/EN/index.php [EN]

• **Gazteen nazioarteko truke erakundea**
Erakunde honek mugikortasuna, nazioarteko ikaskuntza eta Nazioarteko Boluntario Zerbitzua sustatzen ditu. Hautagai izateko eskaerak aurkezteko eta herrialde elkartuei buruzko informazioa.
www.icye.org [EN]

• **WORKAWAY.INFO**
Bidaiarien, hizkuntza-ikasleen, familien, kultura-zaleen nahiz laguntza bila dabiltzan erakundeen arteko bidezko trukea sustatzeko sortua, hainbat jarduera interesgarrirekin.
http://www.workaway.info/index-es.html

10 Curriculum Vitae-a eta, Europass

10.1. EUROPASS **261**
10.1.A. Europass Curriculum Vitae-a (Europass CV -a) 263
10.1.B. Gaitasunen pasaporte europarra 263
10.1.C. Europass hizkuntza pasaportea 264
10.1.D. Arrazoiak agertzeko gutuna 264
10.1.E. Europass mugikortasun-agiria 264
10.1.F. Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarria 265
10.1.G. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria 266
10.1.H. Europass agiri berriak 267
10.2. YOUTHPASS **268**

LABURPENA

Prestakuntza eta enplegua gogoan, Curriculum Vitae-a berebiziko garrantzia daukan tresna da. Gida honek Europass agiriak eta lagungarri izango zaizkizun baliabide guztiak gomendatuko dizkizu. Horrela zure oinarrizko gaitasunak eta lanari dagozkionak islatu ahal izango dituzu.

- SEPEren aholkuei jarraitu zure CV-a eta herrialdez herrialdeko aurkezpen-gutuna moldatzeko.
- Europass CV agiria prestatzeko egin kasu aholku praktikoei.
- Eskatu garaiz tituluen osagarriak. Laguntza handia emango dizute mugitzeko edo bidaiatzeko asmotan bazabiltza.
- Baliabide eta agiri berriak sortu dituzte, *Arrazoiak agertzeko gutuna edo IKT gaitasunak* direlakoak kasu. Europass agiriek baliabide asko eskaintzen dituzte; hortaz, baliatu itzazu.

10 Curriculum Vitae-a eta, Europass

10.1. EUROPASS

Beste herrialde batean hezkuntza -edo prestakuntza-programa batean matrikulatzeko, enplegua bilatzeko edo atzerrian lan-esperientzia bat edukitzeko asmoa baduzu, zure gaitasunak eta trebetasunak erraz ulertzeko moduan aurkezteko gauza izan behar duzu.

• Europass sistema berriari esker, honako zeregin hauek errazagoak dira herritarrentzat:

- gaitasun eta kualifikazio pertsonalak Europa osoan aurkeztea (Europar Batasuna, AELC/EEE eta herrialde hautagaiak), aise ulertzeko moduan;
- Europa osoan barrena mugitzea eta lan egitea.

• Europass sistemak zazpi dokumentu biltzen ditu:

Interesdunak bere kabuz egin ditzakeen lau dokumentu:

1. Europass curriculum vitaea (CV)
2. Gaitasunen pasaporte europarra
3. Europass hizkuntza-pasaportea.
4. Arrazoiak agertzeko gutuna (aurkezpen-gutuna))

Eskumena duen administrazioak egiten eta ematen dituen hiru dokumentu gehiago:

5. Tituluaren edo ziurtagiriaren Europass osagarria
6. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria
7. Europass mugikortasun-dokumentua

Europass-i buruzko informazio guztia hemen: http://europass.cedefop.europa.eu/

• Zergatik erabili EUROPASS agiriak?

Asko dira curriculum-ereduak, eta horien artean onena elkarrizketa egitera eta horren ondorioz lanean jardutera eramango zaituena da. Dena den, Europass eredua erabiltzeko gomendioa egiten dizugu. Zergatik?

- Eredu bateratua, estandarra delakoa, gure mugetatik haratago erraz ulertzen dena.
- Lan-kualifikazioei dagokienez, gardena da.
- Europako herrialdeetan erabiltzen diren tokian tokiko kualifikazioen deskribapen- sistemen arteko baliokidetzak azaltzen ditu.
- 2005etik hona 50 milioi CV egin dira.
- Europass ereduak zuk daukazun “ahalmenaz” hausnar egitera bultzatzen zaitu, lan-mundura bideratu ahal duzun ahalmenaz alegia.
- Ohiko ereduen aldean, Europass Curriculum Vitae-ak garrantzi handia aitortzen die lan-gaitasunei, komunikatzeko, antolatu eta kudeatzeko, edo lankidetzan aritzeko gaitasunei esaterako.

10.1.A. Europass Curriculum Vitae-a (Europass C V-a)

Europass sistemaren dokumentu garrantzitsuena da. Europa osorako estandarizatutako eta normalizatutako curriculum vitaea da, eta, horrenbestez, Europako herritar guztiei aukera ematen die gaitasun eta prestakuntza pertsonal guztiak eredu berean aurkezteko. Gainerako Europass dokumentuak ereduzko dokumentu horri eransteko aukera ere badago.
Europassen web-orrian Europass CVaren ereduak aurki ditzakezu EBko hizkuntza guztietan.
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/curriculum-vitae/examples

• Europass CV-aren eredua nola bete behar den:
Hiru aukera dauzkazu eskura:
- Europass CVa **online** betetzea: Pantailan ageri diren adibide eta jarraibideei jarraiki.
- Europass CVaren **dokumentuak deskargatzea**: Eredua bete gabe, jarraibideak, adibideak, Europassen lehen orrialdea.
- **Eguneratu** zure Europass CVa (XML / PDF + XML): Dagoeneko Europass CV bat eskura baduzu XML / PDF + XML formatuan, hura kargatzeko eta zure datuak eguneratzeko aukera duzu.

• Gomendioa
Zure Europass CVa online bete nahi baduzu, prozesuaren amaieran hautatuko duzu zer formatutan deskargatu nahi duzun. Guk honako hau gomendatzen dizugu: deskargatu kopia bat **XML / PDF + XML** formatuan, nahi duzunean kargatzeko eta datuak online eguneratzeko aukera izan dezazun, eta beste kopia bat formatu editagarrian (**Word edo OpenOffice**). Bi kopietan, CVa egin den data erantsiko dugu artxiboaren izenean, une oro zure curriculuma gutxi gorabehera noiz eguneratu den jakiteko.

Gure aholkua da oinarrizko dokumentu bat sortzea, zure eskarmentu, prestakuntza eta dena delakoaren berri ematen duena. Oinarri hori egokitu egingo duzu aurkeztu behar duzun lekua zein den kontuan izanik.

10.1.B. Gaitasunen pasaporte europarra

Agiri berri hau, basikoki, zure tituluak eta ziurtagiriak sartzeko portfolioa da, zure gaitasunen eta kualifikazioen berri ematen duena. Online sor eta egunera dezakezu,

bai eta Europass CVan erantsi ere, osagarri gisa.
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport

10.1.C. Europass hizkuntza pasaportea

Europass hizkuntza-pasaporteak aukera ematen dizu Europan lan egiteko edo prestatzeko funtsezkoak diren zure hizkuntza-gaitasun pertsonalak deskribatzeko. Horretarako trebetasunen (mintzatzea, irakurtzea, entzutea eta idaztea) araberako gaitasunak deskribatzeko Autoebaluazio-taula erabili da. Noizean noiz taula hori gaurkotu egiten da.

Informazio osagarriaren berriere ematendu: lortutako diplomak, egindako ikastaroak, edo beste hizkuntza eta kultura batzuekiko kontaktuak.

Europako Kontseiluak sortu du Europass hizkuntza-pasaportea, Hizkuntzen Portfolio Europarrera biltzeko. Beste bi dokumentuk osatzen dute portfolio hori, hain zuzen ere hizkuntza-biografiak eta hizkuntza-dosierrak.

Europassen web-orrian hainbat adibide aurki ditzakezu, EBko hizkuntza ofizial guztietan.
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport/language-passport
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport

10.1.D. Arrazoiak agertzeko gutuna

Europass editoreak baliabide hau dakar aldean: Europass formatuari jarraiki arrazoiak agertzeko gutuna egitearena. Aurkezpen- edo hautagaitza-gutun ere baderitzo; bertan arrazoiak emateko gutunak behar dituen osagai guztiak erantsi ahal izango dituzu.
https://europass.cedefop.europa.eu/editors/es/cl/compose

10.1.E. Europass mugikortasun-agiria

Europass mugikortasun-dokumentua dokumentu pertsonala da. Titularrak jatorrizkoaz bestelako herrialde europar batean egindako berariazko ikastaldia erregistratzen du dokumentu horretan, bere esperientziak —eta, bereziki, jasotako

gaitasunak— hobeto komunikatu ahal izateko.

Besteak beste, ikastaldiaren barnean honako hauek har daitezke:
- enpresa batean egindako lan-praktikak;
- ikastaro akademiko bat truke-programa baten barnean;
- aldi baterako borondatezko lana GKE batean.

Europass Mugikortasun-dokumentuak **atzerrian egindako jarduerak eta lortutako gaitasunak** jasotzen ditu. Europako edozein herrialdetan mugikortasun-esperientzia bat egiten duen orori emateko sortu da, pertsona horren adina eta hezkuntza-maila edozein dela ere.

Bi zentro elkartuk, batak jatorrizko herrialdean eta besteak harrerakoan, **ikuskatzen dute** mugikortasun-esperientzia. Bien artean, esperientziaren iraupena, edukiak eta helburua zehazten dituzte; gainera, harrerako herrialdeak tutore bat hautatzen du. Unibertsitateak, eskolak, prestakuntza-zentroak, enpresak, GKEak eta abar izan daitezke ekimen horren zentroak. Titularra atzerrira bidaltzen duen erakundeak online izapidetzen du dokumentua, eta berau gazteleraz eta ingelesez ematen da.

• **Europass mugikortasun-dokumentuen adibideak:**
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport/europass-mobility

• **Non eskura daiteke?**
Jar zaitez harremanetan atzerrira bidali zaituen zentroarekin, eta eska iezaiozu Europass Zentro Nazionalarekin harremanetan jar dadin.
http://europass.cedefop.europa.eu/es/about/national-europass-centres

10.1.F. Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarria

Teknikari-tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarria erdimailako lanbide-heziketako tituluari edo profesionaltasun-ziurtagiriari erantsitako dokumentua da, hirugarrenei, bereziki beste herrialde bateko erakunde edo enpleguemaileei, **ziurtagiriaren esanahia ulertarazteko sortua, titularrak eskuratutako gaitasunei** dagokienez.

Tituluaren/ziurtagiriaren Europass osagarri batean erregistratutako informazioa eskumeneko agintarien eskutik dator, maila nazionalean adostutako prozedurei jarraiki.

• Zer ez den

Teknikari-tituluaren edo profesional-ziurtagiriaren Europass osagarria ezin daiteke inola ere izan:

- titulu edo ziurtagiri ofizialaren **ordezkoa**;
- **automatikoki**, agintari akademikoek jatorrizko ziurtagiria edo **titulua** formalki onartzen dutela **bermatzen duen mekanismoa**.

• Non eskura daiteke?

Prestakuntza-zentroak ematen du teknikari-tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarria, edo, hala badagokio, jatorrizko titulua edo ziurtagiria emateko ardura duen administrazioak.

- Dagoeneko zenbait herrialdek teknikari tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarrien katalogo nazionalak sortu dituzte;
- Oraindik horrelakorik eduki ezean, jar zaitez harremanetan zure herrialdeko erreferentziazko puntu nazionalarekin, teknikari-tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarria (zure hizkuntzan edo EBko beste hizkuntza batean) egin behar dizun erakundea zein den galdetzeko.

Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarriaren adibidea:
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport/certificate-supplement/examples

• Lanbide Heziketaren Europass osagarria

Espainiako Lanbide Heziketaren webgunean Lanbide Heziketaren Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloen Europass osagarria deskarga dezakezu, ingelesez eta frantsesez.
http://todofp.es/todofp/orientacion-profesional/movilidad/que-es-el-suplemento-europass.html

10.1.G. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria

Goi-mailako tituluaren Europass osagarria lanbide heziketako edo unibertsitateko goi-mailako irakaskuntzako **titulu ofizialari erantsitako dokumentua** da, hirugarrenei, bereziki beste herrialde bateko erakunde edo enplegu-emaileei, **tituluaren esanahia**

ulertarazteko sortua, titularrak eskuratutako gaitasunei dagokienez. UNESCOk eta Europako Kontseiluak batera sortu dute goi-mailako tituluaren Europass osagarria.

• Zer ez den
Goi-mailako tituluaren Europass osagarria ez da:
- titulu ofizialaren **ordezko** bat;
- **automatikoki**, agintari akademikoek jatorrizko **titulua** formalki onartzen dutela **bermatzen duen mekanismoa**.

• Non eskura daiteke?
Jatorrizko titulua eman duen goi-mailako irakaskuntzako zentroak egin behar du goi-mailako tituluaren Europass osagarria.
Goi-mailako tituluaren Europass osagarriaren adibidea:
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport/diploma-supplement

10.1. H. Europass agiri berriak

Europass agiri bizia da, denboraren joanean eguneratuz doana. Hori dela-eta, bi agiri erantsi zaizkio: **"Europass esperientzia"** eta **"IKT gaitasunak eta trebetasunak (ITC Skills)"** izenekoak.

• EUROPASS esperientzia
Alde bateko mugikortasun-esperientziak (bidalketa-agentziarik gabeak) erregistratuko ditu agiri honek, bai nazio barrukoak, bai nazioartekoak. Boluntario-lanarekin, bekekin, praktikaldiekin eta abarrekin lotutako jarduerak erregistratu ahal izango dira. Mugikortasun-esperientzian titularrak jasotako gaitasunak azpimarratzea da agiriaren helburua.

• IKT gaitasunak eta trebetasunak (ITC- SKILLS)
Informazio- eta komunikazio-teknologien arloko gaitasunei buruzko esparrua zabalduko da. **IKTen arloko ezagutzak autoebaluatzeko koadro baten bitartez islatuko dira**, gaitasunak trebetasunaren arabera deskribatuko dituena: informazio-bilaketa, komunikazioa, ekoizpena, segurtasuna eta erabakiak hartzeko gaitasuna.

10.2. YOUTHPASS

Ziurtagiri bat da, gazteen ERASMUS + programaren esparruko ikaskuntza eta parte-hartzea onartzen eta baliozkotzen duena. Aldi berean, "ikasten ikasteko" pedagogia- eta hezkuntza-tresna bat ere bada.

YOUTHPASS Europako Batzordearen ekimen baten emaitza da. Ikaskuntza ez-formala onartu eta baliozkotzeko europar estrategiaren esparruan garatu da ekimen hori, ERASMUS + programaren testuinguruan

Une honetan lanean ari dira etorkizunean YOUTHPASS Europako beste ekimen batzuetan integratzeko, hala nola EUROPASS edo Europako herritartasunaren testuinguruko Europako beste programa batzuk.

YOUTHPASS ziurtagiriaren webgunea
www.youthpass.eu/

11 Europan Barrena Bidaiatzeko

11.1. Beharrezko dokumentuak **270**
11.2. Bidaiatzeko aholkuak **272**
11.3. Lekualdatzea **273**
11.3.A. Errepidetik 273
11.3.B. Hegazkina 275
11.3.C. Trena 279
11.3.D. Itsasontzia 280
11.3.E. Metroa 281
11.3.F. Bizikleta eta txangoak 281
11.3.G. Motxila turismoa 282
11.4. Nazioarteko txartelak **282**
11.5. Ostatua **283**
11.6. Bestelako informazio praktikoak **290**
11.7. Zer egin? **292**
11.8. Turismo-webgune ofizialak herrialdeka **294**
11.9. Bidaiatzeko ezinbesteko aplikazioak **295**

LABURPENA

Gidaren atal honetan zure bidaia planifikatzeko edozelako baliabideak aurkituko dituzu, bai eta gerta daitekeen edozein gorabeherari aurre egiteko informazio praktikoa.

- Birpasatu beharrezkoak izango dituzun dokumentuak, eta ondo izan gogoan behar besteko denborarekin lortu behar duzula Europako Osasun Txartela. Buruko min asko kenduko dizu horrek.
- Beherapen, deskontu eta aurrezteko bideak badira hor zehar zabiltzanean. Aztertu zein agiri edo txartel-mota etorriko zaizun ondo.
- Europar Batzordearen webgunera jo, helmuga duzun herrialdearen gaineko informazioa kontsultatzeko: abiadura-mugak, moneta, segurtasuna, eta abar.
- Edozein gorabeherari konponbide emateko laguntzarako euskarriak: larrialdietako telefonoa, lapurreta-salaketa, dokumentazioa galtzea, eta abar.
- Eraman mugikorra edozein jazoeratarako prest eta baliabide guztiak zure eskura

11 Europan Barrena Bidaiatzeko

11.1. BEHARREZKO DOKUMENTUAK

• Pasaportea edo nortasun agiria

Dagoeneko muga-kontrolik ez dago EBko herrialde ugariren artean. EBko legeriaren parte den Schengeneko itunak kontrol guztiak deuseztatu zituen barneko mugetan. Gainera, kanpo-mugetan kontrol eraginkorrak ezarri zituen, baita bisatuen politika orokorra ere.

Guztira, **26 dira Schengen espazioa osatzen duten herrialdeak**: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Hungaria, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo Malta, Norvegia, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublika, Suedia eta Suitza.

GARRANTZITSUA: Schengeneko itunaren arabera, **ohiz kanpoko egoeretan**, ordena publikoaren edo segurtasun nazionalaren aurkako mehatxua antzematen denean, Estatu kideek **aldi baterako kontrolak egin ahal izango dituzte mugetan**. Kontsultatu mugako kontrolak aldi baterako berrezarri dituzten herrialdeen zerrenda eta informazio eguneratua.
http://ec.europa.eu/dgs/home-affairs/what-we-do/policies/borders-and-visas/schengen/reintroduction-border-control/index_en.htm

Hala ere, Bulgaria, Kroazia, Zipre, Irlanda, Errumania edo Erresuma Batura bidaiatuz gero, indarrean dagoen nortasun agiria edo pasaportea aurkeztu behar dituzu. EBko herrialdeak dira horiek, baina ez daude atxikita mugarik gabeko Schengen esparrura. Bidaian hasi baino lehen, egiaztatu ondo zeintzuk diren beharko dituzun agiriak, eta adi Schengen esparruari atxikita ez dauden herrialde horiekin.

EBn barrena bidaiatzean ere, hobe duzu agiri horiek eramatea, horien premia izan dezakezulako zure burua identifikatzeko edo segurtasun-arrazoiak direla medio. Ez ahaztu **agintari nazionalek emandakoa dela nortasun-agiri baliodun bakarra**.

• Bisatua

EBn barrena bidaiatzeko ez duzu bisatu baten beharrik..
Atzerriko egonaldiaren lehen hiru hiletan ezin dizute eskatu erregistro batean izena ematerik (hau da, herrialdean egoteko eskubidea berresten duen agiri bat eskura dezazula), baina egin dezakezu, hala nahi baduzu.
Herrialdean **hiru hilabete igaro eta gero, dagokion erregistroan izena ematea exiji diezazukete** (udaletan polizian egin ohi da izapide hori).

• Aseguruak

Ez ahaztu aseguruen (bidaia, osasuna eta automobila) dokumentazioa zurekin eraman behar duzula.

• Europako Osasun Txartela

Europako osasun-txartela ere eraman behar duzu. Osasun-txartelak aukera ematen dizu Europar Batasuneko herrialdeetan eta EBrekin hitzarmenak sinatu dituzten herrialdeetan osasun-laguntza jasotzeko.
www.seg-social.es/Internet_1/Trabajadores/PrestacionesPension10935/Asistenciasanitaria/DesplazamientosporE11566/TSE2/index.htm

Europar Batasuneko web-atarian aurkituko duzu bidaiatzeko behar duzun dokumentazioari buruzko informazioa: Zure Europa
http://europa.eu/youreurope/citizens/travel/entry-exit/eu-citizen/index_es.htm

11.2. BIDAIATZEKO AHOLKUAK

Atzerrian barrena bidaiatzeko, hobe duzu bisitatzen duzun herrialdearen lege eta ohituren berri izatea. Herrialde askoren bizimodua eta kultura gureen oso bestelakoak dira. Legeak ere aldatzen dira, eta zure herrialdean legezkoak eta arruntak diren gauzak arazo-iturri bihur daitezke beste herrialde batean.

Garrantzi handikoa da beste herrialde batzuetan estupefazienteen (alkohola barne) jabetzari, kontsumoari eta trafikoari dagokienez indarrean dauden legeen berri izatea.

Gainera, atzerriko herrialde baterako bidaia hasi aurretik, hobe duzu Espainiak bisitatu beharreko herrialdean duen enbaxadari edo kontsulatuari buruzko informazioa jasotzea. Agiriak galdu edo lapurtuz gero edota beste arazoren bat sortuz gero laguntza handikoak izango dira zuretzat.

Behin argi daukagunean Europako beste herrialde batean zer egonaldi mota egin behar dugun, bidaian abiatu aurretik paperak eguneratuta daudela egiaztatu behar dugu, ezinbestean.

- Hobe dugu garrantzizko dokumentuen **originalekin batera fotokopiak** ere eramatea beste toki batean gordeta, originalak galduz gero lagungarri izan daitezkeelako. Txartel-argazkiak eramatea komeni da, litekeena delako baimen bereziren bat kudeatu behar izatea. Hodeian eskaneatuta izatea ere komenigarria da.
- Eraman beti **nortasun-agiria**, eta kontsultatu helmugako herrialdeak pasaportea eta bisatuak eskatzen ote dituen.
- Idatzi telefono-zenbaki bat dokumentu nagusietan, behar izanez gero, norbaitek zure familiari ohartarazteko aukera izan dezan.
- Eraman zurekin Espainiak bidaiaren herrialdean duen **enbaxadaren edo kontsulatuaren helbidea**.
- Oro har, herrialde bakoitzak zer baldintza jartzen dituen jakiteko (txertoak, bisatua, pasaportea eta abar), erabili lotura hau, eta, ageri den datu-basean, tekleatu interesatzen zaizun herrialdearen izena; bertan, dokumentazioari eta prozedurei buruz behar duzun informazio guztia aurkituko duzu.

http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/ServiciosAlCiudadano/SiViajasAlExtranjero/Paginas/RecomendacionesDeViaje.aspx

Gehienetan, bidaiatzea jarduera atsegina eta positiboa izaten da. Baina bidaia amesgaizto bihurtzeko aukera ere badago. Ezustekoek, kontratatutako zerbitzuak ez betetzeak eta beste zenbait arazok zaputz dezakete bidaia. Horregatik, oso garrantzitsua da egin beharreko bidaia ongi prestatzea, kontratua egiaztatzea, eta, bereziki, gure eskubideak errespetaraztea. Hau da, kontsumitzaileen eta kontsumitzaileen eskubideak errespetaraztea.

Europako Batzordearen webgunean, besteak beste, bidaiatzen duzunean dituzun eskubideen eta kontsumitzaile gisa dituzun eskubideen eta abarren berri emango dizute.
http://europa.eu/youreurope/citizens/travel/index_es.htm

11.3. LEKUALDATZEA

Badaude hainbat garraioen bilatzaileak: bilatzailean bi leku jarrita, nondik nora joan nahi duzun, webgune hauek garraiatzeko aukera guztiak ematen dituzte (gutxi gorabeherako prezioekin).

- **Rome2Rio**: http://www.rome2rio.com/
- **GoEuro**: http://www.goeuro.co.uk/

Euro Cheapo: Europan zehar merke bidaiatzeko bilatzailea eta aholkuak
http://www.eurocheapo.com/

Maps.me aplikazioa: http://maps.me/en/home, aplikazio honekin munduko mapak izan ditzakezu zure mugikorrean eta offline erabili.

11.3. A. Errepidetik

Ibilgailu partikular batean bazoaz, ez ahaztu honako hauek eraman behar dituzula:
- Gidabaimena.
- Ibilgailuaren zirkulazioko baimena.
- Ibilgailuaren asegurua eta indarreko ordainagiria.
- Ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartela egunean, baldin eta ibilgailuak lau urtetik gorako antzinatasuna badu.

• Gidabaimena

Europar Batasuneko herrialde batean emandako **indarreko gidabaimena balioduna da gainerako Estatu kideetan**. Herrialde gehienetan, ibilgailua gidatzeko gutxieneko adina 18 urte da. Autoak alokatzeko gutxieneko adina aldatzen da EBko herrialde batetik bestera, baina 20 urtetik 23 urtera bitarte izaten da normalean. Zenbait herrialdetan gehieneko adina ere izaten da, 65 urtetik 75 urtera bitarte izan daitekeena.

• Automobil asegurua

Autoaren aseguruaren polizak gutxieneko estaldura (hirugarrenekiko estaldura) eskaintzen dizu automatikoki, EBko kide guztien eta Islandiaren, Norvegiaren eta Suitzaren legeriak eskatzen duena. Zure herrialdean arrisku orotako asegurua baduzu, egiaztatu atzerrian ere estaltzen zaituela.

Gutun berdea ez da nahitaezkoa EBn barrena bidaiatzeko, baina nazioartean onartua dago aseguru-proba gisa, eta kalte-ordainak erreklamatzeko bidea errazten du istripua izanez gero. Gutun berderik ezean, hobe duzu nahitaezko aseguruaren egiaztagiria eramatea.

www.cobx.org/ [EN]

Zure aseguru-etxeak Europako istripu-partea eman diezazuke, dokumentu estandar horretan zure datuak errazago betetzeko aukera izan dezazun, atzerrian istripua izanez gero.

• Bide segurtasuna

Bide-segurtasunari, abiadura-mugei, bidesariei, alkoholemia-mugei eta Europan barrena gidatzeko bestelako informazio praktikoei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu Europar Batasunaren ataria.

http://ec.europa.eu/transport/road_safety/going_abroad/index_en.htm [EN]

“Atzerrira bidaiatzea” doako aplikazioa jaitsi ahal duzu. Bertan Europako bide-segurtasunari loturiko arau nagusiak zeintzuk diren aztertu ahalko duzu, eta zenbait jolas dibertigarritan aritu. Abiatu aurretik deskargatzen baduzu, ez dizute ibiltaritza-tarifarik kobratuko.

http://ec.europa.eu/avservices/video/player.cfm?&ref=I090369&sitelang=en

• Mapak eta ibilbideak

Badira Europako ibilbideetan barrena autoz zein bizikletaz bidaiatzeko aplikazio oso erabilgarriak, ibilbideak antolatu, iraupena eta gastuak ezagutu eta ibilbide posibleak ikusteko aukera ematen baitute. Google Maps, Mappy edo – ViaMichelin.

• Autoa partekatzeko

Autoa partekatzeari **carpooling** deritzo. Ekimen horri esker, dirua aurreztuko duzu eta gutxiago kutsatuko duzu, bidaiatzeko modu erraz eta merkea izateaz gain:
www.compartir.org
www.blablacar.es
www.amovens.com
www.mylifts.com [EN]
www.shareling.es
https://www.blablacar.fr/ [FR]

• Autobusa

Autobus eta autocar zerbitzu guztietan eta ibilbide luzeko batzuetan (250 kilometro baino gehiagokoetan), bidaiariei aplika dakizkiekeen **eskubide batzuk** arautu ditu Europar Batasunak: laguntza eta informazio egokiak, dirua itzultzeko edo garraiobide alternatiboa eskuratzeko bermea, atzerapenen ziozko kalte-ordaina, babesa heriotza-, lesio-, galera- edo kalte-kasuetan eta berariazko laguntza dohainik gaigabetasunak edo mugikortasun urritua duten pertsonentzat.
http://europa.eu/youreurope/citizens/travel/passenger-rights/index_es.htm

• Eurolines

Europan barrena autobusez bidaiatu nahi dutenentzako gunea. Ikus eskura dauzkazun helmuga eta ordutegi guztiak. Erreserbatu txartela online.
www.eurolines.com

• HITHCWIKI

Auto-stop eginez bidaiatzeko webgune erabilgarria:
http://hitchwiki.org/en

11.3. B. Hegazkina

• Aireko bidaiarien eskubideak

Aireko bidaiariek zenbait eskubide dituzte honako hauei buruzko informazioari dagokionez: hegaldiak eta erreserbak, ekipaje hondatuak, atzerapenak eta bertan behera uzteak, ontziratze-ukatzeak, istripuengatiko konpentsazioak edo antolatutako oporretan sortutako arazoak. Informa zaitez.
http://europa.eu/youreurope/citizens/travel/passenger-rights/air/index_es.htm

• Zerrenda beltza
EBk zenbait konpainiari ukatu die EBn jarduteko edo EBko aireportuak erabiltzeko aukera.
http://ec.europa.eu/transport/modes/air/safety/air-ban/index_es.htm

• Segurtasuna
Bidaiarien kontrolari, esku-ekipajeari, fakturatutako ekipajeari eta hegazkinen segurtasun-kontrolei buruzko arau batzuk daude indarrean, EB osoan segurtasun-maila handia bermatzen dutenak. Informa zaitez.
http://eur-lex.europa.eu/summary/chapter/transport.html?root_default=SUM_1_CODED%3D32,SUM_2_CODED%3D3205&locale=es

• WORLD TRAVEL GUIDE
Orri honetan aireportuen gida bat aurkituko duzu eta hirigune bakoitzera heltzeko garraio-aukerak ikus ditzakezu.
http://www.worldtravelguide.net/airports

• Hegaldi merkeen bilatzaileak:
www.ultimasplazas.com
www.govolo.es
www.edreams.es
www.mobissimo.com
www.vuelosbaratos.es
www.rumbo.es
www.whichbudget.com
www.kayak.com
www.trabber.com
www.skyscanner.es/
www.vuelo24.es/
http://www.es.lastminute.com/
http://www.mirayvuela.com/
http://www.easyviajar.com/
http://www.momondo.es/
http://www.liligo.es/
https://es.skypicker.com/

• Aire-konpainia merkeak Europan:
Aer Arann:hegaldi nazionalak Irlandan, eta Irlandatik Ingalaterrara eta Eskoziara.
Air Baltic: Hegaldiak Riga, Austria, Bielorrusia, Belgika, Txekiar Errepublika,

Danimarka, Estonia, Finlandia, Alemania, Irlanda, Holanda, Polonia, Errusia, Suedia eta Ukrainara
Air Berlin: hegaldi nazionalak Alemanian, eta Austria, bai eta Europa osoan eta Afrikako iparraldean ere.
Air Dolomiti: hegaldi nazionalak Italian, eta Austria, Frantzia, Alemania, Espainia eta Suitzatik.
Air Europa: ez da hegaldi merkeen konpainia bat, baina mota horretako aldi baterako eskaintzak izan ohi ditu. Espainia eta Europako hainbat norako.
Air Malta: Konexioak Malta eta Londresera.
Air Vallèe: hegaldiak Aostara eta Torinora.
Aluu Airlines: hegaldiak Groenlandia, Danimarka eta Islandian.
Blue Air: hegaldiak Errumania, Turkia, Italia, Alemania, Frantzia, Espainiara...
Blue Panorama Airlines: hegaldiak Italia eta Grezian, batez ere.
Brussels Airlines: Bruselan oinarri duten hegaldiak.
BudgetAir: hegaldiak Irlanda eta Frantzia, Grezia, Portugal eta Espainia artean.
Carpatair: hegaldiak Errumania eta Italia artean eta Alemania eta Hungaria artean.
Condor: hegaldiak Alemaniatik, Europako hainbat aireportutara.
Corendon: hegaldiak Holanda eta Turkia, Espainia, Grezia, Portugal, Maroko eta Bulgaria artean.
Club Air: hegaldiak Italia, Errumania, Frantzia eta Belgika artean.
Cytyjet: hegaldiak Belgika eta Alemania, Ingalaterra, Italia, Jersey Uhartea, Luxenburgo, Holanda eta Frantzian artean.
EasyJet: hegaldi merkeen konpainia garrantzitsuenetako bat. Espainiatik eta Europako beste toki batzuetatik eskaintzen dituen hegaldiak ikusteko, ikus Easyjet-en hegaldi merkeak.
Etihadregional: hegaldiak Suitza, Italia, Frantzia, Ingalaterra, Espainia eta Alemanian artean.
Fly Baboo: hegaldi nazionalak Suitza eta Italiatik, Txekiar Errepublika, Espainiatik ia Europa osotik.
Flybe: hegaldiak Ingalaterra, Frantzia, Irlanda, Man Uhartea, Italia, Holanda, Eskozia, Espainia, Suitza eta Ulsterretik.
TuifflyNordic: hegaldiak Suedia, Norvegia, Txekiar Errepublika, Espainia eta Hungaria artean.
Germania Express: hegaldiak Alemania barruan, eta Austria, Frantzia, Italia eta Espainiatik.
Eurowings: hegaldiak Alemania barruan, eta Austria, Frantzia, Ingalaterra, Italia, Portugal, Txekiar Errepublika, Espainia, Suitza, Turkia eta Hungariatik.
Hellas Jet: hegaldiak Grezia eta Belgika, Frantzia, Ingalaterra eta Suitza artean.
Helvetic: hegaldiak Suitza, Austria, Belgika, Espainia eta Frantzian artean.

HOP!: hegaldiak egunero Europako 50 norakotara, batez ere frantsesak.
Iberia Express: hegaldiak Espainia, Frantzia, Danimarka, Alemania, Grezia, Islandia, Irlanda, Italia, Holanda, Norvegia, Polonia, Errumania, Errusia, Suedia eta Erresuma Batuan.
Jet2: hegaldiak Ingalaterra eta Frantzia, Italia, Holanda eta Espainia artean.
Meridiana: hegaldiak Italia barruan, eta Frantzia, Ingalaterra, Holanda eta Espainiatik.
Monarch Airlines: hegaldiak Ingalaterra, Gibraltar, Portugal eta Espainia artean.
Norwegian Air Shuttle: hegaldiak Norvegia barruan, eta Ingalaterra, Portugal eta Espainiatik.
Niki: hegaldiak Austriatik Europa osora, bereziki Grezia, Turkia, Egipto eta Marokora.
Onur Air: hegaldi nazionalak Turkian.
Ryanair: hegaldi merkeen konpainiarik handiena Europan. Hegaldiak Ingalaterra, Austria, Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Alemania, Irlanda, Italia, Holanda, Norvegia, Portugal, Eskozia, Espainia eta Suediara.
Ikus: Ryanairren hegaldiak Europako hirietara.
SAS: Finlandia barruan aritzen da, eta hegaldiak Belgika, Danimarka, Alemania, Herbehereak, Norvegia eta Suediarekin.
Scandjet: hegaldiak Suedia, Bosnia eta Kroazia, Malta eta Espainian artean.
SkyEurope: hegaldiak Eslovakia eta Kroazia, Frantzia, Ingalaterra, Italia, Alemania, Holanda, Polonia, Txekiar Errepublika, Espainia eta Suitza artean.
Smart Wings: hegaldiak Txekiar Errepublika eta Danimarka, Frantzia, Holanda, Espainia, Suitza eta abarren artean.
Sun Express: hegaldiak Turkia, Austria, Alemania eta Suitza artean.
ThomsonFly: hegaldiak Ingalaterra, Frantzia, Jersey Uhartea, Espainia eta abarren artean...
Transavia: hegaldiak Holanda eta Danimarka, Frantzia, Alemania, Ingalaterra, Irlanda, Italia, Norvegia, Portugal, Espainia eta Suediaren artean.
Virgin Airlines: hegaldiak Belgika, Danimarka, Frantzia, Grezia, Ingalaterra, Italia, Portugal, Espainia, Suedia eta Suitza artean.
Volotea: Bartzelonan ezarritako konpainia; hegaldiak Espainia, Italia, Grezia, Alemania, Txekiar Errepublika, Kroazia eta Albanian.
Vueling: hegaldi merkeen konpainia kataluniarra. Hegaldiak ia Europa osoan barrena
Wizz Air: hegaldiak Hungaria, Polonia, Frantzia, Grezia, Alemania, Ingalaterra, Italia, Txekiar Errepublika, Espainia eta Suediatik.
WOW Air: hegaldiak Islandia eta Danimarka artean, eta Ingalaterrarekin.

11.3. C. Trena

Trena garraiobide eraginkorra eta ekologikoa da, aukera ugari eskaintzen dituena. Nazioarteko lineetan badaude programa batzuk kostuak merkatu egiten dituztenak.

• Interrail

Txartel moduko bat da, hainbat egunetan trenez Europako 30 herrialde baino gehiagotan lehen edo bigarren mailan bidaiatzeko aukera ematen dizuna.
Bi txartel mota daude, bidaiariari malgutasun handiagoa eskaintzeko hautatutako helmugaren eta bidaiatzen eman nahi dituen egunen araberakoak. Txartel globalak eta tokian tokikoak:

Txartel globalak: bisita itzazu eskaintzaren herrialde guztiak, nahi dituzun tren guztiak hartuta, 22 egunez edo hilabetez.
Txartel global "malguak": bisita itzazu herrialde guztiak, trena darabilzun egunak bakarrik kontuan hartuta. Guztira emango dituzun 10 egunetan, 5 bidaiatzen eman ahal dituzu, eta 10 guztizko 22 egunetan.
Tokiko txartel "malguak": tokian tokiko txartelari esker, herrialde bat bisitatu ahal izango duzu, trena darabilzun egunak bakarrik kontuan hartuta.

www.inter-rail.org webgunean, hasiberrientzat propio sortutako gida kontsulta dezakezu; gainera, foro batean parte har dezakezu, eta esperientziak, zalantzak, gomendioak, kontsultak eta abar aurkeztu edo jaso. Halaber, Europako trenbide-mapa aurki dezakezu sarean, zure bidaia programatzeko oso baliagarria.
www.inter-rail.org/
www.interrail.eu

• Renfe

Bidaiatzeko modu horri buruzko xehetasun guztiak jartzen ditu zure eskura. Zoaz RENFEren edozein leihatilara edo bidaia-agentzia batera, eta erosi zure txartela. Interneten ere eros dezakezu.
http://www.renfe.com/viajeros/viajes_internacionales/interrail.html

• Eurail Passes

Eurail: Europa trenez ezagutzeko aukerarik onena. Eurail Passes (Eurorail ere deitzen zaie) txartelei esker, tren-bidaia malgua egin dezakezu Europako sareko 18 herrialdeetan barrena:
http://es.eurail.com/
www.raileurope.com

• Rail Plus
Txartel pertsonal eta besterenezina da, tren-txartelak prezio berezietan erosteko aukera ematen duena. Txartel hori baduzu, **tren-txartelaren prezioa % 25 murrizteko aukera** izango duzu.
http://www.renfe.com/viajeros/viajes_internacionales/railplus.html

• Euro<26 Gazte Txartela
26 urtetik beherakoentzako abantailak. Autonomia-erkidegoen eta EYCAren gazte-txartela.
http://www.renfe.com/viajeros/tarifas/carnet_joven.html

• European Railway Server
Trenzaleentzako ezinbesteko gunea; Europako trenbide nazionaletako webgune guztiekiko loturak eskaintzen ditu atari honek.
www.railfaneurope.net/ [EN]

• SNBC Europe
Abiadura handiko trenak Europako hiriburu nagusietara
www.b-europe.com

• Voyages-sncf.com
Bila zabiltzan tren-bidaia preziorik onenean aurkitzen duen konpainia frantsesa. Eskaintza bereziak eta txartelak blokeatzeko aukera doan.
http://es.voyages-sncf.com/es/viaja-tren-europa

• SEAT61
Mundu osoko trenen gida osoen eta eguneratuena da. [EN]
http://www.seat61.com/

11.3. D. Itsasontzia

